




## EGOITZATIK KANPO, EGUZKIAREN EPELEAN

Zaharren egoitzetan egoerak hobera egin du, egoiliarrek eta langileek txertoa hartuta; ondorioz, kalera sarriago irteten ari dira / 2

Pilar Valdezate eta Javier Valle semea, Eskoriatzan, eguaztenean, Jose Arana zaharren egoitzaren kanpoaldean.

XABIER URZELAI



**Saio eta edukiz betea itzuliko da eskualdeko telebista, oraingoan ere "%100 ematen"**

Goiena telebistak udaberriko programazioa estreinatuko du datorren astean / 23



Eneko Carrascal eta Malen Ruiz de Azua, Mojategin, astelehenean. JOKIN BEREZIARTUA

## Dominak eskuratuta itzuli dira etxera Arrasateko atletak

Eneko Carrascalek zilarrezko domina eta Malen Ruiz de Azuak urrezkoa lortu dituzte Espainiako Txapelketan / 38

### SINADURAK

|   |  |
|---|--|
|  XABIER ARREGI MURGIÓNDO / 6 |  MIKEL LARREA ZABALO / 33 |
|  JOHANNA SANCHEZ / 11        |  AMAIA EROSTARBE / 34     |
|  MARKEL ARRIOLABENGOA / 15   |  AINTZANE OIARBIDE / 48   |

 Bidaia bat Erdi Aroko sekretuak aurkitzeko

 Enara Iruretagoienari elkarrizketa

 Hemen garbiketak

Inoiz baino garrantzitsuagoa

**ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA**

ESKORIATZA  
T.- 943 71 48 45  
www.hemen-garbiketak.com  
hemen@hemen-garbiketak.com





Jose Arana zaharren egoitzako Isabel Carrillo eta haren seme Lorenzo Garcia, eguaztanean, Eskoriatzan, kalean. XABIER URZELAI

# Txertoaren laguntzaz, egoitzetako adinekoak ari dira kanpora irteten

Adinekoen egoitzetako egoiliarrek hasi dira sarriagp kanpora ateratzen. Bestetik, 100 urtetik gorako sei laguni jarri diete txertoa, Debagoieneko Ospitalean. Gaur hasiko dira, besteak beste, eguneko zentroetako erabiltzaileak eta irakasle batzuk txertatzen

## Maialen Santos ARRASATE

Debagoieneko adinekoen egoitzetako egoiliarrek hasiak dira senideen bisitak jaso eta egoitzatik kanpora irteten. Hori arautzen duen dekretua irailean argitaratu bazen ere, duela aste gutxira arte handia zen egoitzetako presioa –kasu positiboak tarteko–, eta, arrazoi horregatik, azken egunetan areagotu egin dira egoitzatik irtetera animatu direnak. Gaur-gaurkoz, araudiak dio egoiliarrek astean bi bisita soilik jaso ditzaketela, eta senide bera izan behar dela ikustera joaten zaiena. Kanpora irtentzeko bisita horietan, paseo terapeutikoak egiteko helburuarekin. Gorritz markatutako herrien kasuan, baina, egoiliarrek ezin dira egoitzatik irteten.

Eskoriatzako Jose Arana egoitzako Dominga Otxoaizpurua

da irteteko aukera aprobetxatu duenetako bat. "Eskerrak paseatzera irtentzeko gaitzakeen; oso gustuko dut eta onurak ekartzen dizkit", azaldu dio GOIENARI. Are gehiago, adierazi du azken hilabeteetan egoitzatik ezin irtetea "oso gogorra" egin zaiola. Orain, txertoa hartuta, "askoz lasaiago" aritzen da kalean. Egoitza berean bizi da Isabel Carrillo, eta uste du "alde izugarria" dagoela egoitza barruan egotetik kalera irtetera: "Txertoak ez dit albo-efekturik eragin eta lasaiago ari naiz, gainera".

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru aldundiek datorren astean argitaratuko dute bisiten malgutzea ekarriko duen Foru Arau berria; hain zuzen, besteak beste, astean hiru bisita jasotzea ahalbidetuko die egoiliarrei, martxoaren 1etik aurrera.

## HILDAKOEI OMENALDIA

### GAUR OMENDUKO DITUZTE ADINEKOEN EGOITZETAN BIRUSAK JOTA HIL DIRENAK

Gipuzkoako Foru Aldunditik adierazi dute Gipuzkoako adinekoen egoitzetan COVID-19arekin hil diren pertsonak omenduko dituztela gaur, goizean Zarautzen egingo den ekitaldian. Aldundiko eta egoitzetako ordezkariak hartuko dute parte.

Debagoienera etorrita, 60 dira, guztira, COVID-19arekin hil diren egoiliarrek: 26 Arrasateko Iturbiden, 24 Aretxabaletako GSR Debagoienan, zortzi Bergarako Mizpirualden, bat Eskoriatzako Jose Aranan eta bat Oñatiko San Martinen. Azken asteetan ez da egoiliarrik hil

## Positibo kasuak

|                | Positiboak aste honetan | Positiboak aurreko astean | Positibo metatuak | Positiboak mila biztanleko |
|----------------|-------------------------|---------------------------|-------------------|----------------------------|
| Oñati          | 61                      | 110                       | 881               | 76,82                      |
| Arrasate       | 49                      | 48                        | 2.393             | 108,37                     |
| Bergara        | 33                      | 27                        | 1.244             | 82,73                      |
| Eskoriatza     | 14                      | 1                         | 281               | 68,49                      |
| Aretxabaleta   | 11                      | 7                         | 532               | 75,14                      |
| Antzuola       | 10                      | 2                         | 174               | 79,85                      |
| Aramaio        | 1                       | 2                         | 136               | 91,89                      |
| Elgeta         | 0                       | 0                         | 51                | 45,09                      |
| Gatzaga        | 0                       | 0                         | 8                 | 32,00                      |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>179</b>              | <b>201</b>                | <b>5.700</b>      | <b>87,95</b>               |

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

birusak jota. Ildo horretatik, aipatzekoa da kasu bakarra dagoela aktibo Arrasateko San Juan de Dios ospitalean.

## POSITIBO BERRIAK

### AZKEN ASTEAN 179 DEBAGOIENDAR KUTSATU DITU KORONABIRUSAK

Joan den egunetik eguaztaren honetara arte, 179 debagoiendar kutsatu ditu koronabirusak, joan den astean baino 22 gutxiago –179 izan ziren–. Hori horrela, atzora arte, eskualdeko 5.700 lagun kutsatu ditu gaitzak.

Herrika, Oñati izan da, hirugarren astez jarraian, kasu gehien erregistratu dituen herria (61), baina, hala eta guztiz ere, positiboek behera egin dute dezentze; izan ere, aurreko zazpi egunetan baino 49 positibo gutxiago izan dituzte. Oñatiren ostean, Arrasaten baieztatu dituzte kutsatu gehien, 49, eta Bergaran 33 –aurreko astean baino sei gehiago–. Eskoriatzan eta Antzuolan kasuen gorakada izan da azken egunetan: hamalau eta hamar kasu hauteman dituzte, hurrenez hurren. Horri lotuta, esan behar da Antzuolako Herri Eskolan 60 haur konfinatuta daudela: 4, 5 eta 6 urteko gelak konfinatuta daude, eta baita jangela txikiko umeak ere. Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak azaldu du egoera eskolara mugatzen

dela, momentuz, eta birusa zabaldu ez dadin espero duela. Elgetan eta Leintz Gatzagan, kasu berririk ez dute zenbatu.


Osasun Sailaren semaforoaren sistemari jarraiki, Oñati da gorritz dagoen herri bakarra, nahiz eta intzidentzia-tasak zertxobait behera egin duen –1.360,31akoa zen atzo–. 5.000 biztanletik gorako gainontzeko herriak, Bergara, Arrasate eta Aretxabaleta, laranja margotuta ageri ziren atzo, eta, hain justu, azken herri hori atzo igaro zen horitik larantzia. 5.000 biztanletik beherako herriak sistema horretan kontuan hartzen ez badituzte ere, aipatzekoa da Antzuolako 500eko intzidentzia-tasaren muga pasa duela, atzo 550,71koa zen.

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, atzora arte, bederatzita zeuden koronabirusak jota ingratuta. Debagoieneko ESItik azaldu dute kutsatze berriak geroz eta gutxiago direla EAEn, baina joera hori ez dela gertatzen ari eskualdean. Hala, gogora ekarri dute "arduraz" jokatzeko ezinbestekoa dela.

## INTZIDENTZIA-TASAREN BILAKAERA

### DEBAGOIENeko INTZIDENTZIA-TASAK ZERTXOBAIT EGIN DU BEHERA

Joan den asteaz geroztik, egonkor jarraitzen du Debagoieneko azken hamalau egunetako 100.000




## Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA


14 EGUNEKO TASA  
100.000 biztanleko

- >=500
- 300-499
- 60-299
- < 60



## Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



biztanleko intzidentzia-tasak, zertxobait behera egin duen arren. Joan den egunean, 629,54an zegoen, eta atzo, aldiz, 586,33an. Hala eta guztiz ere, Hego Euskal Herriarekin alderatuta okerrago dago eskualdea; izan ere, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroako intzidentzia-tasak horren azpitik daude.

Lurralde guztietako tasak egin du behera azken asteen –egun batzuetan salbuespenak izan badira ere–. Nafarroak dauka tasarik guztietan tasarik baxuena, 138,38koa, eta horren ostean dago Gipuzkoa, 218,61koarekin.



Bixente Murgiondo bergararra –13an 102 urte beteko ditu– txertoa jasotzen. GOIENA

## BIRUSAREN AURKAKO TXERTOAK 100 URTETIK GORAKO SEI DEBAGOIENDAR TXERTATU DITUZTE ASTE HONETAN

COVID-19 gaitzaren aurkako txertaketa-planaren baitan, 100 urtetik gorako sei debagoiendarrrek hartu zuten txertoa eguaztenean, Debagoieneko Ospitalean horretarako egokitu duten espazioan. Debagoieneko ESItik azaldu dutenez, ospitalean txertoa hartu ez zuten bi egoiliarrek eguneko zentroan hartuko dute txertoa, eta azken batek, etxean.

Horien txertaketa amaitu ostean izango da 90 urtetik gorako txanda, baina ez dago horretarako datarik zehaztuta.

Bien bitartean, profesional soziosanitarioei eta Osakidetza-

ko langileei txertoa ematen jarraitzen dutela adierazi dute ESItik, eta baita asteon hasi direla Debagoieneko Ospitalean praktikak egiten diharduten ikasleei lehen dosiak jartzten.

Horretaz gain, Aldundiak aditzera eman du gaur bertan hasiko direla Gipuzkoako 63 eguneko zentroetako adineko erabiltzaileak eta 55 urtetik gorako profesionalak txertatzen. Hiru kolektibok jasoko dute txertoa, zehazki: 15 pertsona baino gutxiagoko bizikidetz-unitateetan bizi diren eta desgaitasuna eta gaixotasun mentala dutenak, eguneko zentro batera joaten direnak eta arreta ematen dieten profesionalak ere. Horrenbestez, Aldundiak 55 urtetik beherako profesional soziosanitarioei Astrazzenekako txertoak ematen jarraituko du, eta Pfizer eta BioNtech-enak erabiltzaileei eta 55 urtetik gorako langileei. Zehaztu dutenez, txertaketa-kanpainaren etapa berri hau –lehen dosiaren aplikazioarekin– bizpahiru astetan amaitzea aurreikusten dute.

Era berean, gaur arratsaldean iritsiko zaie txertoa hartzeko txanda hezkuntza publikoko 55 urtetik beherako langileei, irakasleei eta irakasleak ez direnei. Maskararik erabiltzen ez duten ikasleekin harremanetan dauden langileek jasoko dute: Haur Hezkuntzakoek, Heziketa Berezikoek, ikasgela egonkorretakoek edo jangeletako monitroek.

## KIROL FEDERATUA

### KIROL FEDERATUEK BAIMENDUTA DUTE MUGIKORTASUNA, BALDINTZEKIN

Otsailaren 15etik aurrera Jaur-laritzak zertxobait malgutu zituen mugikortasunari lotutako mugak, eta horietako askok zalantza sortu dute herritarren artean.

Dekretuak diotenari jarraiki, kirolen batean federatuta daudenak EAE osoko herrietan mugi daitezke entrenatu zein lehiatzeko, nahiz eta baldintza batzuk bete behar diren. Bere udalerrira gorriz markatuta duen herritarrak ezin da bertatik irten, eta, era berean, ezin da eremu gorrian dagoen herri batera sartu. Soilik profesionalak edo erdiprofessionalak entrenatu edo lehiatu daitezke eremu gorrian.

Jaur-laritzako ordezkariak gal-detuta, argitu dute autoz mugitu daitekeela norberarena ez den udalerrira batera, bertan kirola egitera –federatuen kasuan–. Horren harira, Bergarako Pol Pol Mendi Elkarteko presidente Aitor Erañak azaldu du "kome-nigarria" dela federatu txartela alboan eramatea. Aitortu du, gainera, federatu kopuruak gora egin duela aurtun, "jendea animatu baita mendira joatera".


Jaur-laritzak jarritako neurriak lotutako zalantzak argitzeko telefono bat egokitu berri du Ertzaintzak: 900 10 35 84.

## 100 urtetik gorako bizipenak



**BALDOMERA MENDIZABAL**  
TXERTOAK HARTU BERRI

"101 urte beteko ditut bihar, eta eguaztenean hartu nuen txertoa. Aitortu behar dut hasieran ez nuela hartu gura, baina komenigarria dela esan zidaten. Ondo nago, pixka bat nekatuta. Orain artean, berakata eraman izan dut poltsikoan, eta horregatik ez nau birusak harrapatu".



**ASUNCION BIANI**  
TXERTOAK HARTZEKO ZAIN

"Datozen egunetan hartuko dut txertoa, eta gogoz nago. Ez diot beldurrik, ausarta izan behar da. 100 urte ditut eta txerto gehiago hartutakoa naiz; besteak beste, gripearen aurkakoa. Txertoa hartzen dudanean, hobeto arituko naiz; eta lasaiago joango naiz ile-apaindegira, esaterako".



# "Erreforma beharrezkoa eta oso presazkoa da"

**SARA MUÑOZ** EKONOMIALARIA ETA POLITOLOGOA

'Pentsioen erreforma, Toledoko Ituna' izeneko hitzaldia egin zuen Sara Muñozek martitzenean, Kulturaten. Nagusien Kontseiluak antolatuta, 70 lagun bildu ziren

**Maialen Santos** ARRASATE

Pentsio publikoen sistemaren erreforma "oso beharrezkoa" eta "presazkoa" dela uste du Muñozek. Eta sistemaren jasangarritasuna "kolokan" dagoela dio, biztanleria-piramideak erakusten duelako populazioa desorekatua dagoela; gazte baino adinako gehiago dago.

**Zertaz jardun zenuen hitzaldian?**

Pentsio publikoen sistemaren jasangarritasunari buruz, oro har. Sistemak pairatuko duen erreformari buruz jardun genuen, Toledoko Itunetik irten diren eta Espainiako Gobernuak Bruselara eraman dituen proposamenak zeintzuk diren aztertu genuen, eta baita osasun krisiak ekonomian eta, batez ere, pentsioen sisteman duen eraginaz berba egin.

**Zer jasotzen du erreformak?**

Hainbat puntu. Horietakoa bat da finantzaketa ahalmena banatzea. Alegia, gizarte-segurantzako dirua eta pentsioen itsulapikoan dagoena ez daitezela erabili Estatuko aurrekontuen menpe egon beharko lirakekeenak finantzatzeko. Bestetik, pentsioak KPIaren (Kontsumo Prezioen Indizea) arabera izan daitezkeen ere jasotzen da. Pentsiodunek uste zuten azken puntu hori lege organiko bidez arautuko zutela, eta era horretan pentsioen pribatizazioa debekatu; baina ez da hala izan.

**Lan-ibilbidea luzatzea ere gerta daiteke etorkizunean?**

Jendeak bizitza laborala luzatu dezan gura dute, eta, hala, horiek saritu. Horren kontrari, erretiroa behar baino lehenago hartzen dutenak nolabait zigortzea ere aukera bat da, nahiz eta oraindik penalizazioa zein den ez duten zehaztu.

**Zergatik zigor hori?**

Helburua delako erretiroa hartzeko adin erreala -64,6 urte- ahalik eta gehien gerturatzea adin legalera -66 urte-.



Sara Muñoz ekonomialaria, martitzenean, Kulturaten. XABI GOROSTIDI

## "GAZTEEK PENSIO SISTEMAREN ETORKIZUNA EZ, BESTE KEZKA BATZUK DITUZTELA USTE DUT"

**Erreforma beharrezkoa ikusten duzu?**

Oso beharrezkoa, eta ez hori bakarrik: oso presazkoa dela uste dut. Ordaindu beharreko pentsioek goraka jarraitzen dute, eta, aldiz, sartzen den dirua geroz eta gutxiago da; sistemaren jasangarritasuna kolokan dago. Hori horrela, ez dugu 2050era begira geratu behar, arazoa dagoeneko gainean dugu eta. Hala eta guztiz ere, esan beharra daukat erreforman jasotzen direnak ez direla inolaz ere nahikoa; esan daiteke sistemaren zauriak tapatzeko tirta bat dela, baina arazo estrukturalak konpontzeke daude oraindik.

**Autonomoen kontaketa sistemaren aldaketa, esaterako, negoziatzeko dago oraindik...**

Hala da, eta polemika handia sortu da horren bueltan. Negoziatzeko dago autonomoek ko-

tizatu dezaten euren diru-sarrera errealean arabera; ez, ordea, eurek zehazten duten oinarriaren arabera. Jakinekua da autonomoen erdiak oinarri minimoan kotizatzen dutela.

**Ildo beretik, kotizaziorako kontaketa sistema 25 urtetik 35era gura dute luzatu...**

Bai, baina hori ere negoziatzeko dago oraindik. Hala eta guztiz ere, badirudi norberaren urte onenak hartuko lirakeela kontuan hala izatekotan.

**Herri askotan astelehenero batzen dira pentsiodunak. Balio izan dute protestek?**

Jakina. Badaude protesta horietatik irten diren proposamenak; esaterako, pentsioak KPIaren arabera neurtzearena. Uste dut garrantzitsua dela pentsiodunek esateko dutena entzutea, eta, are gehiago, negoziaketetan aktiboki parte hartzea.

**Gazteen ahotsak entzuten ez direla esaten da...**

Hori entzuten da. Martitzeneko hitzaldian ere entzun nuen gazteei ez diela axola pentsioen etorkizunak. Nire ustez, beste kezka batzuk dituzte: nola lortu hipoteka kreditu bat edo lan merkatura nola sartu, adibidez.



Joseba Azkarraga, Sareko bozeramailea eguaztenean, Arkupen. MIRARI ALTUBE

## Urruntze politika, preso gaixoak eta gradu progresioa berbagai

Sareko bozeramaile Joseba Azkarraga euskal presoek bizi duten "egoeraz" jardun zuen, martitzenean

**M.S. ARETXABALETA**

Euskal preso, iheslari eta deportatuek egun bizi duten egoera izan zuten aztergai martitzenean, Aretxabaletako Arkupen. Hiru hizketagai izan zituen Sareko bozeramaile Joseba Azkarragak: presoek bizi duten urruntze politika, larriki gaixodauden presoen egoera eta gradu progresioaren blokeoa.

**Hamalau preso, gerturatuta**

Urruntze politikaren bueltan "aurrerapausoak" ematen ari direla azaldu zuen, "nahiz eta espetxe batetik bestera hurbildu dituzten artean soilik hamalau gerturatu dituzten Euskal Herrira". Hala eta guztiz ere, aitortu zuen Andaluzia, Levante edota Galiziako espetxeak "hustuz" doazela pixkanaka: "Iaz, sasoi honetarako, 170etik gora zeuden hango espetxeetan, eta 41 soilik geratzen dira".

Larriki gaixodauden presoengururatu esan zuen egoera "muturrekoa" denean uzten dituztela aske, eta helburua ez dela etxean sendatzea, etxean hiltzea baizik. "Ez dutena gura da gaixodaudenak espetxeetan hiltzea, arazoak ekiditeko", zehaztu zuen.

Gradu progresioan gertatzen ari den "blokeoak" ere jakinmina piztu zuen ikus-entzuleen artean, eta bozeramaileak aitortu zuen euskal preso gehienak gaur egun lehen graduan ari direla zigorrak betetzen. "Bigarren graduan 70 preso inguru daude, baina horretan aurrera ezinik geratzen badira ez dute

zigorraren hiru laurdenak beteta espetxetik irteteko aukerarik", salatu zuen. Horri lotuta, adierazi zuen euskal presoak "salbuespena" direla Espainiako gainontzeko presoekin alderatuz gero.

Era berean, azaldu duen euskal preso batez besteko adina 47 urtekoa dela eta hamaseik dituztela 45 urtetik gora. Horrez gain, 53 presok hogeitau baina gehiago daramate preso, eta, aldiz, seik, 30 urtetik gora.

**Lorpen ugari**

Azken hilabeteetan egindako lorpenak "asko" izan dira, Azkarragaren hitzetan. "Egindako lorpenik handien artean dago bakartuta dagoen presorik ez dela geratzen, gaur-gaurkoz. Iaz, bazegoen eguneko hogeitau ordu zeldan eta beste laurak patioan egiten zituenik; hor ere bakarrik".

Osasun krisiak presoengururatu "okertu" egin duela dio -bisitak jasotzeko debekuak tarteko-, baina jendeak "arazo honekiko" konpromisoa erakusten jarraitzen duela uste du, eta, bide horretan jarraitzeko helburuarekin, datorren maiatzaren 8an Euskal Herriko mendietara igoera egitea aurreikusten dute.

**EUSKAL PRESOEN BATEZ BESTEKO ADINA 47 URTEKOA DA, ETA HAMASEIK DITUZTE 65ETIK GORA**



# Unai Iparragirre ETBko zuzendaria izango da

Institutuko ikasle zela Arrasate Telebistan hasi zuen ibilbidea –'Kukaratxa motel' saioa aurkeztuz, besteak beste–, eta ostean, ETB, TVE eta Discovery Channel kateetan aritu da lanean. Apiriletik aurrera, ordea, ETBko zuzendari lanetan arituko da

**Xabi Gorostidi** DEBAGOIENA

EITBk aste honetan eman ditu aditzera talde barruan egongo diren arduradun aldaketak, eta izen berri horien artean dago Unai Iparragirre arrasatearra. Martitzenean egindako administrazio kontseiluko bileran eman zuten taldeko izendapen guztien berri, eta Unai Iparragirre Torres (Arrasate, 1973) izendatu dute ETBko zuzendari, Edu Barinagaren ordez.

Telebistako lehen pausoak Arrasate Telebistan eman zituen, *Kukaratxa motel* saioan, besteak beste. "Oso-oso gazte hasi zen Arrasate Telebistan. Sormen eta irudimen handiko pertsona zela erakutsi zuen hasieratik; lider bat zen", adierazi du Oihane Agirrek, Goiena Telebistako egungo zuzendariak. "Mutikoa zela eman zituen lehen pausoak Arrasate Telebistan, askotan bere etxeko bideo-kamerarekin hartzen zituela irudiak. Mutiko bat zen, baina liluratuta zegoen



Unai Iparragirre arrasatearra. ETB

telebistarekin", adierazi du Twitterren Joxe Aranzabalek.

Ondoren, *Jaiak*, *Superbat*, *Galdestreet* eta *Egun ero* saioak aurkeztu zituen ETBn, besteak beste. 2005a ezkerreko, Discovery katearentzat egin du lan, Lon-

dresen. Discoveryko produktuak garatu eta berritzeko presidenteordea izan da orain arte, eta taldearen Turkiako kateak ere gidatu ditu. Discovery Communications kanaleko Europa, Ekialde Ertaina eta Afrikarako Eduki Estrategiako presidenteorde kargua ere bete du.

## Maidar Eguesen erreakzioa

Unai Iparragirreraren alboan lanean urte asko egin zituen Maidar Eguesek; bai Arrasate Telebistan eta baita ETBn ere. Honela erreakzionatu du ETBko zuzendari izango dela jakitean:

"Asko pozten naiz beragatik eta poz handia hartu nuen berria jakiterakoan. Une asko konpartitu genituen elkarrekin; Arrasate Telebistan eta geroago ETBn ere bai. Lagun-min handia dut, nahiz eta azken hamabost urteetan Londresen bizi izan den. Oso pertsona langilea eta alaia da, beti poza transmititzen duen horietakoa. Gamberro samarra ere bai; zentzu onean, betiere. Horrez gain, sormenerako trebezia berezia du, eta ziur nago horrek asko lagunduko diola orain hartuko duen erronka berri horretan".



## Arrasate Telebistako hastapenak

Institutuan hasi, eta zortzi urte inguru egin zituen ATBn. "Hor ikasi nuen editatzen, argizatzen, gidioak idazten, aurkeztzen... ATBn ibili ezean, ez nuen hori edukiko, unibertsitatean informatika ikasi nuen eta", adierazi zion *Puntuari*, ATBren 25. urteurrenean.



Goikoetxea –ezkerretik, laugarrena–, 2012an MUK egindako ekitaldi batean. GOIENA

## Jose Ramon Goikoetxea hil da, MCCko lehendakariorde ohia

72 urterekin hil da, kooperatibagintzan ibilbide oparoa izan ostean; Eskola Politeknikoko zuzendari ere izan zen

**X.G. ARRASATE**

Arrasaten jaioa, Industria Peritutzako ikasketak egin zituen Tarragonan, eta ondoren, Arrasateko Eskola Politeknikoko ingeniari teknikoen lehen promozio kide izan zen. Ikasketak bukatzean, Ulgorren hasi zen lanean. Ostean, Ularoko Ingeniaritza Zerbitzuan sartu zen eta Uldata desagertuaren sail batzuen integrazio-prozesuaren eta Fagor Automaten muntaia-negoziaren buru izan zen, Fagor Sistemak sortzeko. Goikoetxea izan zen Fagorren eta LKSn kooperatiba berriak sus-

tatzeko egitura berrien batasunaren bultzatzaileetako bat. Ezagutzaren alorrean, 1997an Mondragon Unibertsitatea eratu ondoren, Mondragon Goi Eskola Politeknikoko lehendakaria izan zen Goikoetxea eta, horregatik, MUko Kontseilu Errektoreko kide. Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteko parte ere izan zen 2009az geroztik. 2015eko Batzar Nagusian, Zuzendaritza Batzordeko kide hautatu zuten, eta 2017an, lehendakariorde. "Lankide bikaina izan da, konprometitua", azaldu dute elkarteko kideek.



GOIENA

## Hitzarmena sinatzea eskatu dute

Aita Menniko hainbat langilek elkarretaratzea egin zuten atzo Gesalibarko ospitalearen aurrean. ELAtik adierazi dutenez, bi urte daramatzate mobilizazioekin, lan baldintzak hobetzeko "borrokan". Sindikatuak dio pandemiak okertu egin dituela langileen lan baldintzak eta segurtasuna, eta, ondorioz, baita pazienteen egoera ere.



ZABALIK

XABIER ARREGI MURGIONDO

## Azken olatua?

Azkenaldian, eta zoritxarrez, makina bat aldiz entzun eta irakurri dugun metafora da olatuarena. Ez dago batere garbi bigarrena, hirugarrena edo enegarrena igarotzen ari ote garen, egun. Edozelan ere, zenbatgarrena ote den baino olatuaren indarra eta bere hedapena da benetan garrantzitsua, dudarik gabe.

Paralelismorik egin gabe, olatuaren metafora erabili nahi dut, gogora ekartzeko urtarrilaren 9an, Euskal Herriko 400 baino herri gehiagotan, kostaldetik hurbil edo urrun izan, eta eguraldiak *lagun*, ikusi eta bizi izan genituen elkartasun olatuak. Izan Bidearen dinamikari lotutako olatu erraldoi bilakatu ziren. Presoen etxeratzeko prozesua azkartzeko, guztion artean sortutako olatuei esker, agerian utzi genuen, berriro ere, jendartearen gehiengo zabal batek salbuespeneko espetze politikaren amaiera nahi duela, orain.

Aldaketak berehala eman behar direla esan genuen ozenki. Oraindik ere berrehundik gora euskal preso ditugu. Horietako 160 inguru, estatuko 36 kartzelatan

### GEHIENGO ZABALAK SALBUESPENEZKO ESPETXE POLITIKAREN AMAIERA NAHI DU

sakabanaturik. Horien %29, 600/1.100 kilometrorra; %20, 400/590 kilometroko tartean; eta %38, 100/390 kilometrorra. 186 gizon, 32 emakume eta bi haur. Horietako sei presok 70 urte baino gehiago dute, eta 60

inguruk ezarritako zigorraren hiru laurdena beteta. Eta oraindik ere, gehienak, lehen graduko erregimenean; hau da, isolatuta.

Bai Frantzia bai Espainian ematen ari diren baldaketarako pausoak positiboak diren arren, lanean jarraitu beharra dugu. 2021. urtea hurbilketaren eta gradu-progresioen aldaketaren urtea izatea nahi dugu, eta izan behar du. Bidea zaila den arren, elkarrekin eginda errazagoa eta sendoagoa izango da. Horregatik, urtarrilean hasitako bide beretik jarraitu behar dugu, bidea elkarrekin eginez. Herri honek behar duen bakerako eta elkarbizitzarako – azken- bultzada, olatu erraldoi honetatik etor dadin.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Pandemiaren urmaelean

IZARO ANDRES

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Gero eta geldiago daude urmaeleko urak. Eta badirudi luze egongo garela bertan, pandemia osteko garai ederrei begira, zain. Dena geldi, eta geldi dagoen uretan bizitza usteldu egiten da. Eta gu bertan, ustel usaina hartzea ere kosta, behintzat konturatu eta alde egiteko. [...] Penak maleta desegiten duenean, eta bere arropa zure armairuan sartu, oso zaila da arropak zureak ala bereak diren desberdintzea. Ez zaio hori egiteko denbora nahikorik utzi behar, bisita azkar bat, perspektiba hartzeko, zer sendatu behar

den erreparatzeko, eta gero aio, hurren arte.

Egoera honetaz nazkatuta, urmaeleko urak mugitzeko teknika deskubritu dut, behintzat niri funtzionatzen didana. Gezurra dirudi, nire ofizioa kontuan hartuta, baina duela hilabete deskubritu nuen musika jarri bezain pronto urmaeleko ura dantzan hasten dela. Nota bakoitza, tanta bat izango balitz bezala, uhinak sortzen, txikitik handira, txikitik handira. Haize atsegin bat sartzen da nonbaitetik, eta urmael inguruko landareak mugitzen hasten dira, lirain. Igelek burua mugitzen dute irribarretsu. Ura gardentzen hasten da, eta kolorezko harritxo pila bat ikus ditzakezu hor azpian,

ikusten? Ez? Eman *play*. Orain bai? Urak indarra hartzen du, eta olatu bat heltzen da zure oinetara. Behatzak busti dizkizu, hotza dago, baina ez oso. Eta gero beste olatu bat, hau ja orkatiletaraino. Ai, ze fresko. Bista zerurantz, txori pila bat hegan, kantari. Zin egingo zenuke lehen ez zeudela hor. Baina orain badaude. Eta, praktikan, ez da deus aldatu, baina musikaren harmonia burmuina barrutik laztantzen ari zaizu, eta zure begiek laztan horiek isurtzen dituzte errealitatera. Eta ez alderantziz. Eman *play*. Eman *play*.

! Post gehiago 9. orrialdean.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga,  
Ziortza Martín,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



## BERBAGAI

# "Euskalkiekiko harrotasuna badagoela sentitzen dut"

IDOIA ETXEBERRIA BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEA

**Xabi Gorostidi** DEBAGOIENA

Hogei urte bete dira Deba ibarreko euskara elkartearen sortu zela.

**Badihardugu elkartearen sorreran aipatzen zen gure euskalkiaren gaineko konplexuak kentzea zela helburuetako bat. Hogei urte pasa ostean, gutxitu egin da konplexu hori?**

Erantzuteko galdera zaila. Gaur-gaurkoz, konplexu puntu hori edukitzen jarraitzen dugula esango nuke, baina, agian, lehen baino gutxiago. Baina gure herritik Euskal Herriko beste puntu batera joaterakoan gure euskalkia baztertzen jarraitzen dugu, ulertuak ez izateko beldurreratik. Ez dugu uste gure euskalkia txarra denik, baina besteek ulertzeko zailtasunak izan ditzaketela pentsatzen jarraitzen dugu. Baina, era berean, gure herriko euskalkiarekiko harrotasuna badagoela ere sentitzen dut. **Euskalkiarekiko harrotasuna aipatu duzu. Alde horretatik,**



Idonia Etxeberria, Badihardugu elkartearen langilea. OIHANA ARANBURU

**duela hogei urte baino hobeto gaude?**

Donostian bizi naiz, eta, agian, ez naiz aproposena galdera hori ondo eta zehatz erantzuteko. Baina oñatiarra naiz, eta gazteek euren

euskalkia maite dutela sentitzen dut.

**Zein erronka nagusi dituzue une honetan?**

Erronka nagusia *Ahotsak.eus* proiektuarekin jarraitzea da. Bailaran sortutako proiektua

izan zen, baina hasi eta gutxira Euskal Herriko dimentsioa hartu zuen. 75 urtetik gorakoak elkarrizketatzen hasi ginen, memoria historikoa, pentsaera eta euskalkia ez galtzeko helburu garbiarekin. Horietako asko ez daude gure artean, baina, zorionez, eurekin grabatutako altxor horiek denen eskura daude. Gerrako eta gerraosteko belaunaldia dokumentatzeko lan handia egin dugu, eta gure hurrengo erronka 50eko eta 80ko hamarkada bitarteko belaunaldian zentratuko da. Euskalgintzan, kulturagintzan, politikagintzan eta beste aspektu askotan oso garai aberatsak izan ziren, eta horiei heldu nahi diegu.

**2009an sartu zinen elkartearen, eta ordutik askotariko argitalpenak eta proiektuak izan ditu elkarteak. Zeintzuk landu dituzue?**

Elkarte txikia garen heinean, denetarik egitea tokatzen da. Donostiako *Ahotsak* proiektuan hasi nintzen, eta ahozko ondarea jasotzen zentratu naiz, nagusiki. Baina argitalpenetan ere aritu naiz, eta Oñatiko *Ingo xonau* da horietako bat. Baina bestelako proiektuetan ere aritu naiz.

**Non, adibidez?**

*101 L* da horietako bat; Euskal Herrian hitz egiten diren

hizkuntzen aniztasuna eta aniztasun kulturala ezagutaraztea da webgune horren helburua. Gure lurraldean 101 ele mintzo direlako eta aniztasun hori ezkutuan dagoelako, gehienetan. Proiektu horretan hasieratik aritu naiz buru-belarri. Batutako materiala ikasgeletan erabiltzeko lan egin izan dut ere. *Gerrako ahotsak*, kantak eta ipuinak grabatzen, *Gazte gara gazte...* Azken finean, gure lana da ahozkotetasuna batzea, eta denen eskura jartzea. Nolabait esateko, herriari jasotakoa herriari ematea.

**Hogei urte ez dira egunero betetzen. Ez dira garairik onenak ospakizunak egiteko, baina zer egitea aurreikusten duzue?**

Abbadia saria eman ziguten ekitaldian abesti berezi bat taularatu genuen; Juan Martin Elexpuruk idatzi zituen hitzak eta Ainara Ortegak abestu zuen. Hala, bi hamarkada hauek ospatzeko abesti hori abestu dugu elkartearen bueltan gaudenok; egoera ikusita, telematikoki egin dugu, bakoitzak abestiaren estrofa bat grabatuz. Era horretarako beste bideo bat egiteko asmoa ere badugu, urte hauetan gurekin parte hartu izan duten lagunekin batera.

## ITURRI ONETIK

### Garbilaldia: paseatu eta zaborra jaso

Natura-guneak, erreka ertzak, plastikoz, botilaz eta bestelako hiri hondakinez ikustera ohituago gaude azkenaldian. Horren jakitun dira bai udalak eta baita hainbat herritar ere. Andoni Orobengoa arrasatearrak ekimen bat abiatu du, Garbilaldia, *garbitu* eta *ibilaldia* berbak batuta. Gustuko paraajetara paseatzera doanean, botata aurkitzen dituen hondakinak jaso eta dagokien tokira eroaten ditu; argazkia atera eta partekatuz. Hori egitera gonbidatu ditu herritarrek.

## ALBISTE IZAN ZEN

2004-02-28

### Arazoak sortu zituen elurte handiak

Elurteak hainbat arazo sortu zituen Debagoiengan, batik bat, leku garaietan -Elgetan, Leintz Gatzagan, goi auzoetan...-. Albiste izan ziren elurtearen ondorioz sortu ziren argi mozketak - Antzuolan 24 orduz argi barik-, herritarren erorketak kalean, arazoak errepideetan, asteburuko hainbat ekitaldi bertan behera geratu izana... Asteburuan etorri zen elurte handia eta aisialdirako ere baliatu zuten askok; irudi ikusgarriak ere utzi zituen.



GOIENA

## HAU BE BADOGU!

### 'Zabalza auzia' berbera izan da sare sozialetan

Mikel Zabalza torturapean hil zutela frogatzen duen audioa kaleratu ostean, txioz bete da Twitter:

@maia\_jon: "Torturatuen oiha ez ziren kontutan hartzen. Ea torturatzailen hitzak. #MikelZabalza".

@ibaizabala1: "Galindo bizi zen artean Intxaurren gertaturikoak ixilean gordeko zirela esaten zuten. Hasi da bada tantaka luzea; ea zelako uholdea sortzen den...".

@martinez\_xabier: "Elkarrizketak bakarrik hotzikara sorrarazten du gorputzean. Zein lasai hitz egiten duten torturaren inguruan".

## D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi OÑATI

EAEko energia estrategiak proposatu eta helburu horiek lortzeko sustapen lanak egitea da Jaurlaritzaren baitako Energiaren Euskal Erakundearen egitekoa.

Enrique Monasterio da erakundeko berrikuntza eta garapen zuzendaria.

**Trantsizio energetikoaz hitz egiten dugu. Trantsizio hori noiz hasi zen eta zein puntutan gaude eboluzio horretan?**

Kontzeptua orain jarri da modan, baina trantsizio energetikoa duela urte asko hasi zen. EEE sortu zenean, esaterako, 1982an, Euskadiko estruktura energetikoak ikatzaren presentzia handia zuen. Gasa ez zen existitzen, eta berriztagarriak ia inork ez zituen ezagutzen. Harrezkero, ikatza desagertu egin da, gasak presentzia handia hartu du eta berriztagarriak gero eta gehiago dira. Hori ere trantsizio bat zen, baina, ez diogu inoiz horrela deitu. Orain, beste batean gaude. Egia bada oso desberdina eta indartsua dela, eredia aldatzeraino.

**Trantsizio horren bukaera noizko aurreikusten da?**

Helburua da %100 berriztagarria izango den gizarte bat izatera iristea. Sektore elektrikoan 2050erako dena izango da berriztagarria. Pentsa, Iberiar penintsulan sektore horretan sortzen den energiaren %50 iturri berriztagarrien bitartez egiten da dagoeneko. Erronka dago gainontzekoan, erregai fosilak erabiltzen diren tokian, hau da, gas naturala edo petrolioak erabiltzen den eremuetan. Garraioa ere erronka handia da.

**Eredu energetiko berriaz dihardugunean, zertaz ari gara?**

Badakigu CO2 emisioak ekidin egin behar ditugula, eta, noski, helburua hori denean argi dago ezin dugula erregai fosilak erabili. Horren alternatiba iturri berriztagarriak dira. Aerosorgailuak, fotovoltaiakoak, itsasoko energia... Gertatzen da horiek guztiak elektrizitatea sortzen dutela eta behartuko gaituela dena elektrifikatzera. Eta hain zuzen ere, hori bai da eredu aldaketa bat.

**Zein ondorio ekarriko ditu?**

# "2050ean sektore elektrikoan sortuko den energiaren %100 izango da berriztagarria"

**ENRIQUE MONASTERIO** EEE-KO GARAPEN ETA BERRIKUNTZA ZUZENDARIA

Debagoiena 2030 ekimenak energia trantsizioaren inguruan antolatu duen saioan parte hartuko du Monasteriok, Energiaren Euskal Erakundeko berrikuntza zuzendariak



Enrique Monasterio. EEE

**"ERRONKA DAGO ERREGAI FOSILAK ERABILTZEN DIREN EREMUETAN, BAITA GARRAIOAN ERE"**

**"ELEKTRIFIKAZIORA JO BEHARKO DA INDUSTRI ALORREAN ETA ETXEKO BEROGAILUETAN"**

Ba, nik diesel auto bat baldin badut, ia segurtasun osoz elektrifikaziora jo beharko dudala. Eta berdin etxeko berogailuarekin edo industria alorreko erabileretan, nahiz eta arraroa egiten zaigun. Aldaketa horretan gertatzen dena da berriztagarriek gura dutenean sortzen dutela, eta hori egokitu egin beharko da. Hor egongo da, batetik, jendearen ohiturak aldatu beharra, edo energia hori gorde beharra, behar handiko momentuetan biltegitratutako hori erabil ahal dezagun.

**Eta hori posible da?**

Bai; biltegitratzeko modu bat hidrogenoa da. Europa hegoaldeak energia fotovoltaiako sorkuntza altua izango du, eta sorkuntza horrek akats bat du; beti aldi berean sortzen duela. Gerta daiteke behar dena baino askoz sorkuntza handiagoa izatea eguerdiko hamabietan, esaterako. Sobera geratzen den elektrizitate hori hartu eta hidrogeno bilakatu dezakegu. Hidrogeno horrekin estrategia desberdinak garatu genitzake. Bat da berriz ere elektrizitatea sortzeko erabiltzea, horrenbesteko sorkuntzarik ez dagoen orduetarako, eta beste bat da erregai bezala erabiltzea ibilgailuetan edo gaur egun gas naturala erabiltzen duten industrietan, esaterako. **Badirudi erakundeak kezkatuta daudela gaiarekin.** Europak dituen planak ez dira soilik aldaketa klimatikoarengatik. Europak

posizio geostrategiko bat ere bilatzen du honekin, izan ere, sekulako dependentsia dauka beste herrialde batzuekiko energiari dagokionez, eta, hain zuzen, dira horien gaineko inolako kontrolik ez duten herrialdeak. Errusia, Persiar golkoa... eta horien mehatxuen aurrean oso ahula da. Hortik dator baliabide energetiko propioak sortzearen arrazoia. **Gure bailara ez da aberatsa errekurtsio naturalei dagokienez. Lortuko dugu Europak ezarritako helburuak betetzea?**

Hemen akatsa da pentsatzea Europak ipintzen dituen helburu horiek lurralde txikietarako ere berdinak izango direla. Hau da, Europak helburu bat ipintzen duenean Europa mailan ipintzen du, ez tokian toki. Eta hor ezin dira konparatu Luxenburgo edo Espainia, esaterako. Bizkaian eta Gipuzkoan daukagun errekurtsio berriztagarria da biomasa. Errekurtsio berriztagarria da, eta baliozkoa. Pentsatu beharko dugu baita ere zer egin fotovoltaiakoarekin. Edo daukadan gutxi hori aprobetxatu eta etekina atera, edo kanpoan erosi. Eta hor dago, hain zuzen ere, debatea. Nik nahiago dut hemen sortzea, porru batzuk jan gura baditut nahiago dudalako nire ortuan landatuak izatea.

## Online saioa, martxoaren 3an

Martxoaren 3an, 10:00etatik 12:30era, Debagoiena 2030 dinamikaren baitan, trantsizio energetikoaren gainean Debagoiengan landutako diagnostikoa aurkeztu eta kolektiboki aztertze saioa egingo dute.

Saio horretan, gainera, Energiaren Euskal Erakundeko Enrique Monasteriok ere hartuko du parte. Hain zuzen, energiaren sektoreko joerez eta eredu energetiko jasangarriako trantsizioaz jardungo du hark.



## GUTUNAK

**Deklarazio faltsuen aurrean, egia****IKER ELIZBURU**

WOLFRATEX ENPRESAKO  
ZUZENDARIA, ENPRESAREN IZENEAN  
BERGARA

Gutun honen bidez, Wolfratex enpresaren inguruan egin diren adierazpen faltsuen harira ondorengo puntuak azaldu nahi genituzke:

1. Wolfratex ez da itxi. Bere jarduerak indarrean jarraitzen du.

Tamalez, eta gure eskuetatik kanpo dagoen merkatuan, asiar jatorriko produktu gehiegi dago, eta ekoizle hauen aurka lehiakor izateko zailtasunak medio, salmentak jaitsi egin zaizkigu eta,

ondorioz, gure produkzio ahalmena ajustatu beharra izan dugu; horretarako, hainbat langileren kontratuak eten egin behar izan ditugu. Dena dela, egoera honi buelta eman eta gure jarduerarekin jarraitu ahal izateko, akzio komertzial eta inbertsio desberdinak onartu ditugu.

2. Wolfratexeko langile guztiak dagokigun lan hitzarmenak – ehungintzakoak – ezartzen dituen baldintzetatik gora egon dira. Datuei erreparatu, lan hitzarmenak markatzen duena baino %38 gehiago ordaindu dugu.

3. Wolfratexek ez du administrazio publikoaren

dirulaguntza edo subentziorik jaso, eta, ondorioz, aurrera eraman diren inbertsio guztiak bazkideen poltsiko eta banketxeei eskatutako kredituetatik –oraindik ordaintzeko ditugunak– atera dira.

4. Wolfratexen ez da dibidendorik banatu.

Wolfratex enpresak bere ibilbidean herriarekiko duen jarrera gogorazi nahiko genuke, bai herrian lanpostuak sortuak eta baita herriko autonomo eta enpresa txiki askori lana emanez; alde batetik, lehengaia bertan erosiaz eta, bestalde, gure inbertsio guztiak berauek kontratatuta eginaz. Aipatzekoa da zazpi

hilabete hauetan eginiko inbertsio hauek guztiak 2,5 milioi euroko zenbatekoa batzen dutela.

Kezkagarria iruditzen zaigu aurreko astekoan moduko adierazpenek duten eragina; izan ere, min handia egiteaz gain, konfiantza falta handia sortzen dute ekintzaile edo inbertsore berriengan inizatiba enpresarialak gure herrian garatzeko.

Egia hauek guztiak argi utzi eta gero, Wolfratexen gure lanetan jarraituko dugu, herrian inbertituz, ahal den neurrian lanpostuak sortuz eta guztion bizi kalitatea hobetzeko helburua duten ekimenak sustatuz.

## HANDIK ETA HEMENDIK

**Adaxkak****ANDONI EGAÑA**

HTTPS://LABUR.EUS/490GR  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Etorkizuna ere aintzat hartzea omen da pertsonaren ezaugarri behinenetakoa. Iraganeko eskarmentutik eta orainaren premietatik bizitzen, animaliek ere ba omen dakite. Etorkizuna aintzat hartzeak bihurtzen du objektu bat lan-tresna, gaur zerbaitetarako baliagarri izan zaidan hori gorde, sailkatu eta hobetzen saiatzeak. [...]

Tximinoak gai dira, nonbait, iraganetik ikasirik eta unean uneko premiak ase asmotan, eskueran ez daukatena ere harrapatzeko. [...]

Baina agintariak sumatzen ditut tximino samar. Unean unean adaxka bat topatzen dute eta moldatzen dira harekin. [...]

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia.

Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

! Post gehiago 6. orrialdean.

# Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

# Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

# Erguingo lau igogailuak, uda baino lehen martxan

Hiru igogailu bukatuta daude dagoeneko, "erremate batzuk" falta zaizkien arren, eta laugarrenarekin "buru-belarri" ari direla onartu du Juan Antonio Urdangarin Hirigintza Saileko teknikari arduradunak; Aste Santu osterako lanak amaitzea aurreikusten dute

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Hiru igogailu bukatuta daudela azaldu du Urdangarin, "bati sarrera eta irteeretan erremate batzuk falta zaizkien arren". Uribarri etorbidea eta Urriburu kalea lotzen dituen igogailua egiten ari dira orain, eta bukatzean, guztiak "lehenbailehen" martxan jartzea da helburua, teknikari arduradunak nabarmendu duenez. "Ea tramite eta baimen guztiak lortzen ditugun Aste Santu osterako, herritarrek erabiltzeko moduan egoteko".

Igogailu publikoak izango dira; hau da, beti zabalik egongo dira eta edonork erabili ahal izango ditu. "Helburua hasieratik izan da Erguin auzoari, behetik goraino, lotura irisgarria ematea, kale guztiak irisgarri egitea. Behekoak erabiltzaile gehiago izango ditu, seguruenik, eta goikoak gutxiago, baina, hasiera batean, guztiak daude prest edonor hartzeko. Lau igogailu dira eta horietako bakoitzak, igotzen joan ahala, maila ezberdinetan

irteera bat dauka. Beraz, igogailu batzuek lau irteera dituzte eta beste batzuek, hiru. Ez dago bikorik", dio Urdangarin.

Tamainari dagokionez, pertsona bat bizikletarekin edota bikien karroarekin sartzeko modukoak dira lau igogailuak. "Era horretan, irisgarritasuna ez dugu bakarrik oinezkoentzako bermatzen. Aulki gurpildunak ere sartuko dira, noski".

## Igogailuetan, bideo ikuskapena

Jatorrizko proiektuari hainbat egokitzapen egin dizkiote. Udalpe plazako euste hormak, esaterako, egokitu egin dituzte, transformadoreak eta elektrizitate kanalizazioak moldatuta. Horrez gain, bigarren igogailu-

**2.570.352,76 EUROKO AURREKONTUA DUTE LANEK, BEZ-A BARNE; ASTE SANTU OSTEAN BUKATUKO DITUZTE**

ko hormak ere egokitu dituzte, "terrenoaren ezaugarriak ikusi eta gero, segurtasuna bermatuz". Era berean, lehenengo igogailuko akaberak aldatu egin dituzte, "itxura hobea" emateko. "Igogailu guztietan bideo ikuskapena jarri da, herritarren segurtasuna areagotzeko".

## Ezusteko batzuk ere bai

Urdangarin esanetan, "txarrena" izan da Iberdrolako linea bat aurkitu dutela, aurreikusten ez zutena. "Lan batzuk lehenetsi behar izan ditugu eta horrek epeetan eragin du". Aldiz, "one-rako", horma batzuk aurreikusi baino arinagoak egin ahal izan dituztela azpimarratu du.

## Santa Teresako igogailuak

Maria Ubarretxena alkateak azaldu du Santa Teresako mugikortasun bertikalaren proiektua lantzen ere badihardutela. "Udalaren asmoa da auzotarrekin batera erabakitzea igogailu sistema eta dagokion kokalekua".



ARRASATEKO EH BILDU

## Haritza ez botatzeko eskaera

Santa Barbarako haritzaren "inausketa orokorra eta zorrotza" egiteko erabakia geroratzea eskatu du EH Bilduk. "Inausketa arina eta jarraipena egitea eskatzen dugu. Hala, udazkenean, gure neska-mutikoei Arrasaten bakonetakoa den ehun urtetik gorako amandrearen ezkurak batzeko aukera edukiko lukete eta ezkur horietatik, haritz berriak sortuko lirateke".

## Aramaio eta Deba, garbituta

Bi errekek garbitzen, 80 zabor poltsa handi bete dituzte baso-erreka langileek, eta, batez ere, plastiko-hondakina izan dela nabarmendu du Udalak, egur eta burdin zatiak ere batu dituzten arren. Gaineratu du aurrerago ere egingo dutela "garbiketa sakonagoa", orain erreka hazita doalako. Zazpi udal baso-erreka langile aritu dira lanean.



ARRASATEKO UDALA

## Zalduspeko autobus geltokia egiteko lanak hasi dituzte

"Behin-behineko" geltokia egiteko lanek bi hilabete inguru iraungo dute, eta, bitartean, Zalduspe inguruko aparkalekua ez da erabilgarri egongo. Hori dela eta, Udalak alboko industrialdean behin-behineko aparkalekua gaituko du erabiltzaileentzako. "Seinaleztapen berezia ezarriko da eta, guztira, 65 aparkaleku inguru egongo dira".

## Taxiaren guardia zerbitzuan aldaketak, astelehenetik aurrera

Eskaerak 688 65 59 08 zenbakian egingo dira zuzenean, eta zenbaki hori taxilariak kudeatuko dute. Bestalde, guardia zerbitzuaren ordutegia 23:30etik 05:30era izango da, salbuespen batekin: eskualdeko ospitalera joateko edo bertatik irteteko eskatzen diren zerbitzuetan. Horietan, ohiko ordutegia izango da, 22:00etatik 08:00etara.



Atzo, eguena, egin zuen Udal Gobernuak prentsa agerraldia, lanak nola doazen jakinarazteko. TXOMIN MADINA



# Merkemerkaua, neguko arropak saltzeko asmoz

Atzo hasi eta bihar arte, Arrasateko 25 bat komertziok hartuko dute parte Ibai-artek antolatutako azokan. Aurten, egun bat gehiago izango du, "jende pilaketak saihesteko helburuarekin", eta haur eta gazteentzako jolasak egongo dira bihar, hiru gunetan

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Atzo, eguena, hasi zuten Merkemerkaua, eta bihar, zapatua, emango diote amaiera. Hala, udazkeneko eta neguko stocka salduko dute herriko merkatariek, "prezio ezin hobekin", eta herritarrei dei egin diete deskontu horiek aprobetxa ditzaten.

Gaur, egubakoitza, 16:30etik 20:00etara egongo dira zabalik postuak, eta bihar, zapatua, 10:00etatik 20:00etara.

Urtero moduan, askotariko saltokiak aterako dira kalera, euren establezimendu aurrera edo komertzio-guneetara, udazkeneko eta neguko produktuei deskontu handiak aplikatuta: moda, lentzeria, osagarriak, oinetakoak, altzariak, eta abar.

## Saltokiak eta kokalekuak

Honako komertzio hauek hartuko dute parte azokan: BC (Maalako Errebala); Bea Lentzeria (Iturriotz kalea); Beinke eta Errekamendi (Arbolapeta); Eya Altzariak (Ignazio Zuloaga kalea); Garraxi (Zarugalde); Gili-Gili eta Txuri-Beltz (Iturriotz kalea); Intersport Loramendi (Garibai etorbidea eta Maiatzaren Bata plaza); Itxaso, Mabel, Markiegi, Sikol eta Tamayo (Olarke kalea); Josle (Otalora Lizentziaduna etorbidea); Kapi-kua (Doctor Bañez); Kili-Kolo (Ferrerias kalea); Luko, Maitia, Ouka eta Troko (Erdiko kalea); Promise eta Zubia (Biteri etorbidea); Ume (Garibai etorbidea).

## Haur eta gazteentzako jolasak

Bihar, zapatua, haur eta gazteentzako jolasak ere egongo dira -txirrista puzgarria, *super-jumping*-a, hutserako jauzia, zezen mekanikoa, girokopia...-. Hiru gunetan jarriko dituzte jolas horiek, Maiatzaren Bata plazan, Herriko Plazan eta Seber Altube plazan, 11:00etatik 14:00etara goizez eta 16:00etatik 20:00etara arratsaldean.



Beherapen handiak eskainiko dituzte herriko komertzioek egun hauetan. E.A.

## Merkatariek, "une txarrean"

Jon Apraiz Ibai-arteko presidentek aitortu duenez, une txarrean dago merkataritza. "Abendura arte, nola edo hala, lortu genuen aurrera egitea. Baina beherapenak hasi zirenetik oso gaizki

doa denboraldia eta merkatariek kezkatuta daude". Merkemerkauak kalte horiek nolabait arintzen laguntzen duela azpimarratu du, eta herritarrak animatu ditu kalera irten eta bultzadaxoa ematera.

## "Arrasateko denda itxi egingo dugu"

MAIALEN BORDA  
OUKA DENDAKO ARDURADUNA

2014an ireki zituen atek Ouka dendak Arrasaten -Beasainen beste bat daukate-. Orain, itxi egingo dute.

### Zergatik itxiko duzue?

Azken urtea oso gogorra izan da autonomoentzako. Egokitzapen handia egin behar izan dugu eskaeran. Moldatze horrek lan handia ekarri digulako eta beste arrazoi batzuk tarteko, denda bakarrarekin jarraituko dugu orain, Beasaingoarekin.




E.A.

### Penaz utziko duzu herria?

Arrasate utzi beharrak bihotzean min handia ematen digu, bai langileei eta baita niri ere. Hala ere, Arrasateko bezeroak ez ditugu galdu gura eta *Ouka.eus* webgunearen bitartez bidalketak, esaterako, doan eskainiko dizkiegu.

### Merkemerkauan, zer?

Stock zaharraz gain, udaberriko bilduma berriko arropak %40ko beherapena izango dute; likidatzera goaz.




NIRE USTEZ

JOHANNA SANCHEZ

## Gure ondarea

2020an Arrasaten pintaketa kopuruak izugarri egin du gora udal eraikinetan eta eraikin pribatuetan. Modu negatiboan eragiten dute mota horretako ekintzek herrian, eta Arrasateko hiri ondarea kaltetzeaz gain, kaleen garbiketa eta irudia ere kaltetzen dituzte. Pintaketan %85 politikoak dira: alderdi jakin batzuen aurkakoak, greba deialdiak, ETAko preso oroitzen, Udaltzaingoaren, Ertzaintzaren eta Guardia Zibilaren aurkakoak eta konstituzioaren aurkakoak. Gainerako %15ak grafitiak edo zirriborroak dira. Zehazki, pintaketak hirigune historikoan eta erdigunetik hurbil dauden tokietan agertu dira. Baina sozialistonek iritziz, larrietakoa da eraso egitea Monterron jauregiari, Olarteko Erdi Aroko arkuari eta Kulturateri; ondare balio handia dute horiek. Hala, uste dugu gure ondare historikoa eta kultur ondarea babestu behar dugula. Gure altxor handienetako bat da. Ezin da pintaketan bidez kaltetu, eta errespetatu egin behar da, arrasatear guztiona delako. Gure iraganarekiko errespetuagatik, gure etorkizunarekin pentsatzen dugun orainarekin bizitzeko.

## GORA ETA BEHERA



## Rokodromoa, "egoera txarrean" Uarkapen



"Koltxonetak egoera txarrean daude eta tabloiak, ustelak. Hori dela eta, presa mordoa askatuta daude. Bestalde, ezin da onartu neguan rokodromoa 20 egunez itxita egotea", dio herritar batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo ☎ 688 69 00 07.

## OHARRAK

### Martxoaren 8a antolatzeko bilera irekia, bihar

Kulturateko Jokin Zaitegi gelan egingo dute, 10:30ean hasita. "Egin zure ekarpenak eta elkarrekin antolatu dezagun", diote.

### Erraki sarearen hitzaldia, gaur, Kulturaten

Erraki Langile Kontrolpeko Espazioen Babes Sareak hitzaldia egingo du gaur, egubakoitza, Kulturateko areto nagusian, *Okupazioaren kontrako ofentsiba* izenburupean, 18:30ean.

### Sasoibide: Lilatoian parte hartzeko deialdia

"Neska, andere, emazte, zatoz Sasoibiderek Lilatoia oinez egitera. Martxoaren 5ean, 17:00etan, bost kilometroko ibilaldia izango da. Harremanetarako: 635 74 46 02", adierazi dute.

# "Play-off"-etarako sailkatzea da aurtengo helburua ligan"

**AITOR AZKARATE MONDRAKO KAPITAINA**

Zazpi partiduko liga izango da aurtengoa, eta lehen laurak sailkatuko dira 'play-off'-etarako. Arrasatearrek goian egoteko konpromisoarekin ekin diote denboraldiari

**X.U./E.A. ARRASATE**

Futboleant, Ohorezko Erregional Mailan, denboraldiari berrekin diote talde gehienek. Mondrak, lehen partidua 0-1 galdu zuen Elgoibarren kontra, Mojategin, eta bigarrena Amaiak Bat taldearen aurka jokatuko du, bihar, zapatua, 16:30ean, Deban.

**Lehen partidua galdu arren, inportanteena hastea zen.**

Bai. Ia urtebete eman dugu jokatuko barik eta sekulako gogoia genuen berriro futbol zelaira bueltatzeko. Nik uste dut hori izan dela garrantzitsuena, berriro jokatuko ahal izan dugula eta bagabiltzala entrenatzen. Baina, egiari zor, denboraldia hobeto hasi gura genuen.

**Emaitza ez zen onena izan.**

Ez gaude guztiz pozik emaitzarekin, baina taldea ondo irten zen berdegunera, intentsitate handiarekin eta borrokatuz. Liga motza da eta gauzak azkar joango dira; beraz, irabazten hasi behar dugu, lehenbailehen. **Hainbeste denboraren ostean, urduritasun puntu bat ere edukiko zenuten, ezta?**

Ilusioa, tentsioa eta urduritasuna. Hamar urteren ostean, errutina bat finkatuta genuen, astean zehar hiru entrenamendu eta asteburuan partidua, eta, batean, hori gelditu egin zen.



Aitor Azkarate, taldeko kapitaina, Mojategin, eguazteneko entrenamenduan. E.A.

Errutina eta tentsio hori berreskuratzeko urduritasuna eta poztasuna ematen digu.

**Harmailak hutsik egotea ere arraroa izango zen zuentzat.**

Bai, hala da. Nahiz eta normalean ere ez den jende askorik etortzen gu ikustera, beti egoten da zurrumuru edo marmarren bat, eta arbitroari eta aurkariari presioa ere egiten diete zaleek. Beraz, ezer ez entzutea arraroa da, bai. Gure ahotsak bakarrik entzuten dira, eta, momentuan kontzentrazioagatik askorik ez nabaritu arren, desberdina da.

**Aurtengo denboraldia ere ezberdina da, arnas motzekoa.**

Halaxe da, bai. Ez da ohiko liga bat. Zazpi partidu bakarrik dira eta lau onenak sailkatuko dira 'play-off'-etarako. Beraz, hasieratik hasi behar dugu topera. Gainera, ez dugu denboraldi-aurrerik eduki eta lagunarteko partidurik ere ez, eta, normalean, horrek laguntzen du sasoia hartzen joateko. Orain arte, entrenamendu batzuk ere egin izan ditugu, sasoia ez galtzeko, eta duela hiru aste hasi ginen entrenamenduetan estutzen.

Egia da lehen partidua galdu egin dugula; datozen partiduetan topera irten beharko dugu, ahalik eta gehien irabazteko.

**Ze asmorekin hasi da Mondra ligan? Urtea salbatzeko ala play-off-etarako sailkatzeko helburuarekin?**

'Play-off'-etarako sailkatu gura dugu. Kapitainok zuzendaritzarekin hitz egin genuen, eta erabaki hori hartu. Azken batean, gu ez gatoz denbora pasatzera. Bakoitzak bere bizitza dauka hemendik kanpo, eta gustatzen zaigulako gaude hemen. Beraz, egiten duguna ondo egin gura dugu; behintzat, lehiatu eta ahalik eta ondoen jokatuko. Datorren urteari begira, bestalde, talde gaztea daukagu, jokalar berriak daude eta oinarri sendoa sortu gura dugu.

**Maila galtzeko aukerarik ez dagoenez, presio barik jokatzeko eta jokalar gazteei aukera emateko ere balio du liga honek, formatzen joan daitezela.**

Gure kasuan, entrenamenduetara jokalar gazteak ere etortzen dira. Seiko taldeetan entrenatzen gara, hori bai, baina guztiek lehiakortasun puntu hori edukitzea gura dugu. Garbi dago ligako oilarrak goiko postuetan egoteko borrokatuko direla, baina guk ere horien artean egon gura dugu. Talde ona daukagu. Hasieratik bloke bera mantendu dugu eta kanpoko jendea ere gurekin geratu da: Josu Durana murgiarra, Julen Barrutiabeña ondarrutarra eta Jokin Gorostola zumaiarra. Jokalar horiek gure aldeko apustua egin dute eta guk ere zerbait polita egin gura dugu haiekin.

**Zeintzuk dira aipatu dituzun oilarrak?**

Gure multzoan, Eibar goian egongo da, ia seguru; UDA bera ere ondo ariko dela uste dut, eta baita Amaiak Bat eta Bergara

ere. Dena dela, liga motz honetan edozer gauza gerta daiteke. *Entxufatuta* ateratzen denak aukera asko izango ditu goian egoteko.

**Bajek ere zeresan handia edukiko dute liga honetan...**

Hori garbi dago. Koronabirusaren liga izango da, eta Federazioak data batzuk finkatu ditu atzeratu daitezkeen partidua jokatu ahal izateko. Baina hori taldea konfinatu behar izanez gero bakarrik izango da. Jokalar pare bat edo hiruzpalau konfinatu behar izanez gero eta taldeko onenak badira, horiek barik jokatuko beharko dugu, gazteekin, eta egongo dira halako kasuak, seguru.

**Ohorezko Erregional Mailan, kapitainak batu zarete Federazioari hainbat eskaera egiteko.**

Bai. Bizkaiko hainbat talde elkartu ziren, lehenik, eta Federazioari eskatu zioten, semiprofesional maila eman diguten heinean eta entrenatzeko eta jokatzeko aukera dugun heinean, PCR eta antigenu probak egiteko aukera eduki ahal izateko, gure segurtasuna bermatzeko. Gero, gurekin harremanetan jarri ziren hainbat talde eta gu ere atxiki egin gara eskaera horretara. Sinatu egin dugu, eta Federazioaren esku dago azken erabakia. Guztion segurtasuna dago jokoan; adibidez, aurkariaren herria eremu gorrian badago eta 22 pertsona etortzen badira Mojategira, nor daki norbaitek birusa eduki dezakeen.

**"GU, BEHINTZAT, EZ GATOK DENBORA PASATZERA; EDOZER GERTA DAITEKE LIGA MOTZ HONETAN"**

## Sasoiko hamargarren garaipena eskuratu gura du Mondratek

Areto-futboleant, sekulako denboraldia egiten ari da aurtengo Mondrate eta lehen postuan jarraitzen du, alde handiarekin. Bederatzi partidu irabazi ditu Jon Zabalak entrenatzen duen taldeak, bat berdindu eta beste bat galdu. Bihar, zapatua, hirugarren sailkatua hartuko dute Musakolan, Zirauntza taldea, 18:00etan hasita.

## Asteburuan atseden hartuko du Kanpanzar Arrasate-Ordiziak


Lesioak tarteko, Kanpanzar Arrasate-Ordiziak eta Atletico SS-Hernani CRE taldeek elkarren aurkako partidua martxoaren 6ra atzeratzea erabaki dute, eta Altamiran jokatuko dute, Ordizian, 18:30ean. Bestalde, ARTko 16 urtez azpikoek asteburu honetan ekingo diote ligari. Bihar 16:00etan jokatuko dute, Mojategin, Txingudiren aurka.

## Aurreko asteburuko garaipena berresteko asmoz, Usurbilera

Eskubaloian, Ingou Mugarri taldeak lehen garaipena eskuratu zuen aurreko astean, Iturripen, Urrietaren aurka, eta Patxi Garciaeren taldeak dinamika ona berretsi gura du asteburu honetan. Hala ere, partidu zaila daukate, Ucin Aluminio Usurbil KE taldearen aurka, Oiardo udal kiroldegian. Partidua zapatuan izango da, 16:00etan.

## Lehenengo postua sendotzeko aukera dauka domekan MUK

EBA mailan, lider dago une hauetan Mondragon Unibertsitatea, hamahiru partidutik hamar irabazita eta hiru galduta. Iñaki Ogara *Arri*-k zuzentzen duen taldeak lehen postu hori sendotzeko aukera izango du domekan, Iturripen. Sailkapenean bosgarren dagoen CB Solares talde kantabriararen aurka jokatuko dute, 18:30ean hasita.



Egues taldearen aurkakoan. GOIENA



# Etorkinen errealitateari buruzko fikziozko obra

Bi domeka barru, martxoaren 7an, 'Atzerrian lurra garratz' antzerki obra aurkeztuko dute Huts eta Artedrama konpainiek Amaia antzokian. Laura Penagos eta Ander Lipus aktoreak dira protagonistak, eta etorkinei buruzko galderak planteatuko dituzte

**Hasier Larrea** ARRASATE

Duela bi aste Oñatiko Santa Ana aretoan estreinatutako *Atzerrian lurra garratz* obra taularatuko dute hurrengo asteburuan Amaia antzokian Huts eta Artedrama konpainiek. Errealitatean ardatzen den antzezlan da, eta deserria, migrazioa, zaintza eta emakumearen bizitza jartzen ditu erdigunean. Laura Penagosek gorpuzten duen Aurora Mora pertsonaia da protagonista, eta badu bata bestearen antzik: koloniar artistak dira biak eta duela urte batzuk etorri ziren bizitzera Euskal Herrira. Antzekotasun hori ez da kasualitate, Penagosek berak idatzi baitzuen testu literarioa. "Ander Lipusi irakurtzeko eman nion eta gustatu egin zitzaioela esan zidan; dramaturgia testu bilakatzeari ekin genion, beraz, Amancay Gaztañaga zuzendariak, Lipusek eta hirurok", azaldu du.

Bi urteko prozesua burutu dute Penagosoren testua antzerki obra bihurtu eta eszenaratzeko. Kontatu behar zutena "ondo ezagutzeari" lanak hartu dituztela aipatu du Penagosek: "Euskal Herrian bizi diren koloniar erbesterratuak ezagutzera gonbidatu dut Ander, eta nasa izeneko indigena komunitateko kideekin egin du harremana; pentsa, horietako batzuk bere etxean ere erroldatu ditu!".

**Atzeritarra eta bertakoa**

Antzerki obra idazteko ideia otu zitzaionean buruan zeuzkan galderak paperean agertu nahi zituela aipatu du kolonbiarrak, betiere, jatorrizko eta kanpoko pertsonaren arteko "talka" hori presente edukiz: "Zer da hementxo izatea? Eta zer kanpoko? Nitaz eta besteez hitz egin nahi nuen, entzuleari gogoetarako gonbidapena egiteko, eta inoiz ez zuzenean erantzunak emateko". Antzerkian galdera eta erantzunen erlazio hori argi



Aurora Morak bere gertuko pertsonen bisita jasoko du kontaketa zehar. ARTEDRAMAMA

## SORTERRIAREN ETA DESERRIAREN ARTEAN MUGITZEN DA, HAUSNARKETA ARIKETA BAT LUZATUZ

edukitzea "oso garrantzitsua" dela dio, gainera.

**Euskaraz, lehen saioa**

Ondorio horretara ez da gauetik goizera bitartean iritsi, eskermentu handiko antzezlea baita Penagos. Bere jaioterrian lau urteko antzerki ikasketak egin zituen, eta, ostean, bi urtez izan zen han antzerkigile lanean. 2008an zeharkatu zuen Atlantikoa, eta Sakana haraneko Etxarren kontzejuan bizi da egun: "Pandemia aurretik lekualdatu nintzen hona, eta zorte handia izan nuen, patxada ederrean bizi baikara hemen".

Gaur egun ere antzerkitik bizi dela dio, "zorionez", nahiz eta luxua dela ere nabarmendu duen, "zoritxarrez". Euskara ikasteari egozten dio, neurri batean, bere pasioa ogibide izatearen arrazoia: "Hona etorri nintzenean kost

egin zitzaidan antzerki munduan lehen pausoak ematea, gogorra izan zen, baina euskara ikasten hasi nintzen, bertako hizkuntza denez gero jakin beharra neukalako. Erronka zaila izan da, baina ederra, aldi berean. Nork esango zidan euskarak zabalduko zizkidala antzerkiaz bizitzeko aukera!".

**Errealismo magikoa**

Kontaketa protagonistaren sormen gelan gertatzen da une oro, nahiz eta salto ugari ematen dituen denboran. Aurora Moraren irudipenetan bere familiako kideak eta bere bikotekide euskalduna agertzen dira, errealitatean oinarritutako bizipenak oroitzuz eta sorterriaren eta deserriarren arteko harreman diferentzialak planteatuz. Amancay Gaztañagak eszenografia "sinplea" aurkeztzen duela ere aipatu du Penagosek, "istorio guztia kontatzeko nahikoa".

**Hiru astean, hamabi emanaldi**

Otsailaren 12an estreinatu zutenetik inguruko hiriburu eta herrietan aritu dira; martxoaren 7rako, 19:00etarako, egin dute hitzordua Arrasaten.

## "Gustuz lan egiten dugu, ederra baita emozioak sorraraztea"

**ANDONI ZUBIAGA AMAIAKO ARDURADUN TEKNIKO**  
Denboraldi honen nondik norakoak erreparatu ditu.

**H.L. ARRASATE**

Ia 30 urte daramatza Andoni Zubiagak Amaia antzokiko zeregin teknikoak betetzen.

**Pandemiak aldatu egin du zuen lana?**

Noski! Orduz gero eta salmenta moduan nabaritu dugu aldaketa. Orain, lehenago aritzen gara, eta pelikulak ikusteko sarrerak online ere saltzen ditugu.

**Ze neurri hartu dituzue?**

Besaulkien artean distantzia dezente jartzea lehenetsi dugu, legeak dioena baino gehiago. Bestalde, haizeztatze sistema batekin espazioa desinfektatzen dugu saioen aurretik eta ostean.

**Nola baloratzen du hori jendeak?**

Kalean sarri gelditzen naute, jende nagusiak batez ere, esker-rak emateko. Ohartu gara publikoa seguru sentitzen dela.

**Ikus-entzuleen jarrera aldatu egin da?**

Artistek askotan esaten digute Arrasateko publikoa "harria" bezalakoa dela. Garaiotan, ordea, beroago sumatzen dugu; badirudi egoeragatik jendeak emozioak errazago azaleratzen dituela.

**Adibiderik jar dezakezu?**

Duela aste batzuk Eñaut Elorrieta eta bere taldea etorri zirenean, oso kontzertu berezia eskaini zuten; hau ez dut esatearren aipatzen, urte asko daramatzat Amaian lanean, eta aparteko ikuskizuna iruditu zitzaidan: jendea hankarekin lurra kolpatzen, abesti gehiago eskatzen... Baten bati negar malkoak ere irten zitzaizkion. Ni ez naiz Eñaut



Andoni Zubiaga. A.Z.

Elorrietaren zale sutsua, baina bere azken diskoa erosiko dut, txunditu egin baininduen.

**Gustura zaudete zuen jardunarekin?**  
Oso gustura. Iazko martxotik irailera nahiko geldi egon zen kultur eskaintza, baina aurten sendo hasi eta sendo jarraitu dugu. Egia esan, ez dut oporrik nahi, momentuz. Zortea daukagu, emozioak sortzen laguntzeagatik ordaintzen digutelako.

**Zenbat langile zarete?**

Orain bertan, lau. Amaia jardunaz gain, kaleko eta Kulturatego Udalaren eskaintza kulturalaz ere arduratzen gara, Kulturatego teknikariarekin batera.

**Ezer gehiago gehitu nahi?**

Besarkada bat eman nahi diegu sarreran egoten zen Josemari Ugarte langile erretiratuari eta haren familiari. Oso pertsona goxoa da, eta badakigu ez dela momenturik onena pasatzen ari.

## 'Erraiak' filmaren aurkezpena eta solasaldia, Kulturaten

Datorren eguaztenean, martxoaren 3an, Ekain Martinez de Lizarduyk zuzendutako dokumentala emitituko dute Kulturatego areto nagusian, arratsaldeko zazpitan hasita. Proiektzioaren ostean, filmari buruzko xehetasunen berri jakiteko aukera izango dute ikusleek, zuzendaria bera egongo baita galderak erantzuten eta azalpenak ematen.

Emanaldia AED elkarteak antolatuko du; arrasatearrei bertara gerturatzeko gonbidapena egin diete antolatzaileek: "Irrintzia ardatz izanda ekoiztu den dokumental bakarra da *Erraiak*, euskara hutsez grabatua eta euskal kulturaren sakontze ariketa paregabea; munda zabalean hainbat sari jaso ditu, gainera". Ordu erdi pasatzeko ikus-entzuzko piezak irrintiaren jatorriari, erabilera anitzei eta tokian tokian dituen izen ezberdinei buruzko xehetasunak ematen ditu.

# "Epe motzera, txiki gera daiteke eguneko zentroa"

LEIRE ESPINOSA GIZARTE LAGUNTZAILEA

Gorbeialdeko Kuadrillako hiru udalerritan eskaintzen du zerbitzua Leire Espinosak: Arratzua-Ubarrundian, Legution eta Aramaion. Ateak zabalik ditu herritarrendako

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Dagoeneko hamahiru urte bete dira Leire Espinosa Aramaioko gizarte laguntzaile lanetan dabilela. Eguaztenetan eta bari-kuetan egoten da Aramaioko udaletxean, eta gainontzeko egunetan telefonoz eskaintzen du zerbitzua. Nagusiekin lotutako gaiak izaten ditu, nagusiki. **Zein da Aramaioko gizarte zerbitzuen egoera?**

Egunerokoan, batez ere, jende nagusiarekin lotutako gaiak kudeatzen ditut; jende nagusi asko dago, eta errekurtsio horiek kudeatzen ditut. Eguneko zentroa, dependentzia legearekin zerikusia dutenak...

**Eguneko zentroak ze behar asetzen ditu Aramaion?**

Eguneko zentro berezia da Aramaion daukaguna; hau da, eguneko zentrorra joan daitezke bere kabuz dabilzanak, autonomoak, edo lehenengo gradu-ko dependentzia maila dutenak. Bigarren edo hirugarren mailako dependentzia gradu dutenak, berriz, Arrasateko Aita Mennira bideratzen ditugu. Pertsona nagusi horiek euren kabuz irten daitezke, euren kabuz gauza asko egiteko gauza dira... Horren arabera, eguneko zentroko langileak euren egoerara egokituta daude.



Leire Espinosa gizarte laguntzailea, udaletxean. A.E.

**Noiz jarri zen martxan eguneko zentroa?**

2011n zabaldu zen, eta gaur egun zortzi pertsona daude. Nabarmendu dudana moduan, pertsona autonomoak direnez, eurekin langile bakarria egon daitezke zenbait momentutan. Batez ere, bakardadearen aurka borrokatzeko lekua da eguneko zentroa: nagusiak, etxean bakarrik egon beharrean, euren moduko beste herritar batzuekin elkartu eta eguneko orduak elkarrekin pasatzeko tokia da. 12:00etatik 18:00ak arte egoten dira egune-

ko zentroan. Hainbat jarduera egiten dituzte: gimnasia, egunkaria irakurri, ariketak... Bakardadearen aurka egiteko modua da, baina hori baino gehiago ere bada. Jarduera horien bitartez dependentziaren aurka borroka egiten dute; nolabait, atzeratu egiten dute egoera hori. **Aramaio duen izaerak, auzoetan bizi da jende asko... nola eragiten du nagusien bakardade horretan?** Nabarmendu behar da garraio zerbitzua dugula jende nagusia eguneko zentrorra ekartzeko. Gurutze Gorriko furgoneta bat

arduratzen da jendea batu eta eguneko zentrorra ekartzeko.

**Azken urtean bizi dugun pandemiak nola eragin du?**

Nabaritu dut konfinamenduaren ondoren jende gehiagok joan dela nigan. Lehenengo asteetan Legutiotik egiten nuen lan, ez nintzen Aramaioa etortzen; orduan, ez nituen dei asko izan. Baina berriro ere aurrez aurreko lanera itzuli naizenean igarri dut jende asko etorri dela zerbitzua erabiltzera. Batez ere, dependentziako balorazioak dira eskatzen dituztenak.

**Jende nagusiarendako ez da egoera onena izan.**

Denbora tarte honetan jende nagusia menpeko bihurtu da; atzerapen bat egon dela esan daiteke. Etxean egon dira, ezin irtenda, erlazio gabe... Eta horrek eragin egiten du. Familiarteko asko itxaroten egon dira, eta, azkenean, nigana etortzeko bidea hartu dute.

**Zeintzuk dira Gizarte Zerbitzuak Sailaren erronkak epe motzera begira?**

Momentu honetan esku artean daukadan erronka da Eusko Jaurlaritzarekin menpeko pertsonak egoitza batera eramateko lizitazioa egitea. Orain arte, menpeko pertsonak Aita Mennira joan izan dira; baina abenduan lizitazioa amaitu egin zen, eta momentuan ez zegoenez inor, lizitazioa egin barik geratu zen. Orain, bi pertsona daude itxarote-zerrendan eta lizitazioa egin behar dugu horiei irtenbide bat emateko. Foru Aldundiaren eskumena da pertsona menpekoen zaintza; gure kasuan, pertsona nagusiak Gasteizera eramatea ez da irtenbide onena, urrun geratzen delako. Hortaz, Aita Mennira edo Aretxabaletako GSR-ra eramatea izango da ego-

kiena. Bestalde, familiek etxeko langile bat kontratatzean laguntza jaso ahal izateko, kontratatzen duten pertsona horrek paperak izan behar ditu, eta baita formakuntza berezi bat ere. Zaila izaten da, batez ere, lehenengo baldintza hori betetzen duen norbait bilatzea. Kasu horietan, familiaren esku geratzen da pisu ekonomiko guztia.

**Horrez gain, eguneko zentroko edukiera handitzeko ideia ere baduzue esku artean.**

Hori ere erronka bat izango da. Izan ere, gaur egun, zortzi lagunendako lekua dauka eguneko zentroa, eta beteta dago; pertsona bat itxarote-zerrendan dago. Ikusten duguna da oso onarpen ona izan duela zentroa, eta aurrea begira, horrek ekar dezake eskaera gehiago izatea. Hau da, txiki geratuko da eguneko zentroa, eta horregatik nahiko genuke edukiera handitzea.

**Bestelako lanik izaten duzue migratzaileekin, gazteekin, emakumeekin...?**

RGiA jasotzen dutenekin, migratzaileekin... badira kasuak, baina oso gutxi. Bestalde, Aldunditik langile bat etortzen da lan bila dabilzanekin laguntzera, astelehenero. Indarkeria matxista pairatzen dutenekin ere egiten dut lan. 2020a oso urte berezia izan da: ez da kasurik izan. Kontuan izan etxean sartuta egon direla emakume horiek, eta ezin izan dutela hitz egin, estalita egon dira.

**"PANDEMIK EZ DIE BATERE LAGUNDU NAGUSIEI; ATZERAPEN BAT IZAN DUTE MENPEKOTASUNEAN"**

## Txertaketa Arrasaten egingo da, eta ez da eskatu beharko

COVIDaren aurkako txertoa dela-eta hainbat argibide eman dituzte Aramaioko anbulatorioko arduradunek

A.E. ARAMAIO

Aramaioko anbulatorioko arduradunek hainbat gomendio helarazi dituzte koronabirusaren txertoa dela eta. Nabarmendu nahi izan dute txertaketa berezia dela COVID-19aren aurkakoa;

hori horrela, "txertoa ez dute Aramaion jarriko". Arrasaten jarriko dute. Horren harira, azaldu dute ezintasunen bat dutenek etxean jasoko dutela txertoa, baina ez hala eskatuta. "Beste guztiei Arrasaten eman-

go zaie", gehitu dute. Gogora ekarri nahi izan dute txertoa jartzea ez dela derrigorrekoa.

Bestalde, anbulatorioko arduradunek argi utzi nahi izan dute txertoa jartzeko ez dela medikuaren baimenik behar, ezta osasun azterketarik edo odol analisisirik ere.

"Txertoa guztion eskubidea da eta dagoenaren arabera eta lehen- tasunen arabera banatuko da. Ez da eskatu behar", azaldu dute Aramaioko anbulatorioko arduradunek.

## Zabalik dute Salto udalekuetan izena emateko epea

Uemak antolatzen dituen Salto udalekuetan izena emateko epea zabalik da dagoeneko; martxoaren 31ra arte egongo da horretarako aukera.

Udalerrri euskaldunetako gazteendako topaketak ekainaren 28tik uztailaren 4ra bitartean izango dira. Beste urte batzuetan egin izan duten moduan, udaleku ibiltaria izango da: Zumaian

hasiko da eta Lekeition amaituko dute bidea gazteek. 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako udalekua izango da. Helburuak izango dira: euskararen inguruan sentsibilizatzea, kontzientziaztea eta eragile aktibo bihurtzea.

Gazte bakoitzak 89 euro ordaindu beharko ditu; eta 50 lagunendako lekua egongo da. Kantaldiak, kontzertuak, jolasak... izango dituzte. *Uema.eus* atarian edo 943 81 66 99 telefono zenbakian eman daitezke izena.





Dokumentalean jasotzen den irudietako bat. ZURTE.COM

# Intsumisioa oinarri duen lana, eta berbaldia

'Bi urte, lau hilabete eta egun bat' dokumentala eskainiko dute domekan, 19:00etan, kultura etxean. Lander Garrok zuzendutako filmak soldadutza egiteari uko egin zioten sei lagunentzako jasotzen ditu: tartean, Tonino Carotone solaskidea dago

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Intsumisioa oinarri duen dokumentala eskainiko dute domekan, 19:00etan. Kultura etxera sartu ahal izateko sarrerak aurrez erreserbatu beharko dira, *entradium.com* atariaren bitartez.

Emanaldiaren ondoren, Tonino Carotonek berbaldia egingo du. Izan ere, filmean jasotzen diren sei testigantza horietako bat iruindarrarena da. Musika-riaz gain, bi kazetari, suhiltzaile bat, irakasle bat eta Lurrari lotutako aktibista bat dira protagonistak. Dokumentaleko zuzendaria, aldiz, Lander Garro idazlea da. Intsumisioaren aldeko mugimendua gogoratu nahi izan du lanean, eta, nolabait, intsumisioaren garaipena ospatu nahi izan du.

## Aramaioko lagunak

Itsaso Aspiazu Kultura teknikariak azaldu du Carotonek baduela nolabaiteko harremana Aramaiorekin, lagunak dituela herrian. Horregatik animatu

dela amaierako berbaldian parte hartzera.

Intsumisioaren aldeko mugimenduak 90eko hamarkadan izan zuen indarra. Filmeko protagonisten hitzetan jasoko da zergatik aukeratu zuten intsumisio izateko bidea. Izan ere, arrazoiak askotarikoak izan ziren: bakezaletasuna, pentsaera anarkista, abertzaletasuna eta sinesmen erlijiosoak. Guztiek soldadutzari uko egin zioten, eta nahiago izan zuten kartzelara joan armadan parte hartu baino.

## Dokumentaleko hazia

Ikus-entzunezkoaren hazia 2012an ipini zuen Gaizka Aranguren kazetariak. Urte hartan, Iruñeko

**PROTAGONISTEK NAHIAGO IZAN ZUTEN KARTZELA ARMADAN PARTE HARTU BAINO**

ko espetxea bota zuten: hala, Aranguren bera eta beste zenbait intsumisio kamerak hartuta barrura sartu ziren irudiak grabatzera. Izan ere, 90eko hamarkadan hainbat intsumisoren bizitoki izan zen Iruñeko espetxea. Hain zuzen, bi urte, lau hilabete eta egun bat izaten zen intsumisioei jarritako zigorra.

Emakumeek ere izan zuten protagonismoa mugimenduan; hala, Mabel Cañadaren –MOK erakundeko sortzailea– eta Kontxita Beitiaren –Donostiako ikastolen mugimenduko sortzailea– hitzak jasotzen ditu lanak.

2001ean, soldadutza bertan behera geratu zen. Dokumentalean diote ez zela behar bezala ospatu, PPko ministro Trilloren erabakia ezin zelako ospatu.

## 90 minutuko lana

Dokumentalaren gehiengoa euskaraz dago eginga; baina badira testigantza batzuk gazteleraz jaso direnak, Carotonerera kasu. 90 minutu irauten du.



NIRE USTEZ

MARKEL ARRIOLABENGOA

## 'Uu-uu-u-uuuuuu'

Kristautasuna albo batera uzten hasiko bagara, eta jaien deitura paganoak berrasmutzen, nik jai nagusia urubiari eskainiko nioke. Zalantza gutxirekin. Ez dakit nola; *urubi rock*, *urubi fest...* baina urubiari. Izan ere, landa-gunean zaindaririk bada, hori urubia da.

Arbelen ere ez da honen pareko saguen etsairik. Ez *ratiboom*, ez *ratizida*, ez *rati stop plus*, ez ezer. Urubia.

Baserri orenen bueltan dabil bat edo beste. Eta zenbat sagu jaten du urubi batek urtean? 2.160. Ez da broma, 2.160 sagu, lursagu, arratoi kume eta beste karraskari erdi desiratu. Batek! Eta ez du hari eskainitako jairik. *Ez-du-jai-rik*. Ez du egunik. Izan ere, gurean izenik ere ez du! Nola esaten zaio, bada, Aramaion urubiari? Hontza? Bai zera! Ez dut sinisten. Izan behar du izen propiorik gurean.

*Buhuu* egiten du hontz handiak, *bu* hontz txikiak, *txii* mozoloak, *shh* gautxoriak eta *Uu-uu-u-uuuuuu* egiten duena, nor da?

Dakienik bada, pozarren jasoko dut erantzuna.

## Detektibe lanetan jarriko dira haurrak zapatuko antzerkian

Monda Lironda taldeak 'Detektibeak' antzezlan eskainiko du kultura etxean, 17:30ean hasita

### A.E. ARAMAIO

Ettxeko txikiei zuzendutako emanaldia eskainiko du Monda Lironda taldeak bihar, zapatua. Detektibe lanetan jarriko dira antzezlano bi pailazoak: desagerpen baten berri izango dute eta gertakari hori argitzen saiatuko dira.

Emanaldia kultura etxean izango da, 17:30ean. Sarrerak aurrez eskuratu beharko dira, *entradium.com* atarian. Doan izango den arren, protokolo kontuengatik sarrera aurrez hartu beharko da.

4 urtetik gorako umeendako eta familiendako ikuskizuna izango da. Apika Monda Lironda pailazo taldea 2003a ezker dabil etxeko txikienei barrea eragiten. *Detektibeak* lanak 60 minutu irauten du. Bi pailazoak detektibe lanetan jarriko dira antzezlana horretan: desagerpen batzuk gertatuko dira eta horiek argitzen saiatuko dira. Hala ere, konturatuko dira datu garrantzitsu bat falta dutela: ez dakite zer bilatu behar den. Kamuflaje eta gailu arraroekin lortuko dute dena argitzea?

## 'Playmobil' filma eskainiko dute domekan, 17:00etan

Haurrei zuzendutako filma eskainiko dute domekan, 17:00etan, kultura etxean. *Playmobil* filmak etxeko txikienei irudimena martxan jarriko du. Marla eta Charlie anai-arreben istorioak ekarriko dituzte pantaila handira. Istorio horretan hainbat lagun berri egingo dituzte Marla eta Charlie. Filmak 94 minutu irauten du.



Playmobil filma.



# Erretiratuak pentsioen igoera eske hasiko dira

Basotxo erretiratuaren elkarteko zuzendaritzak erabaki du elkarretaratzei berrekitea, eta hileko lehenengo astelehenean batuko dira, Herriko Plazan, 12:00etan; hain zuzen ere, martxoaren 1ean egingo dute lehenengo, hiru urteren ostean

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Erretiratuak pentsioen aldarrikapenak kalera atera zituztenetik hiru urte bete dira, eta Agijupens elkarteak (Erretiratuaren eta Pentsiodunen Gipuzkoako Elkarte) barne hausnarketa egin du. Basotxo erretiratuaren elkarteko zuzendaritza batzordeko kideak bat etorri dira hausnarketa horrekin, eta berriro kalera ateratzea erabaki dute.

Hileko lehenengo astelehenean elkartuko dira, martxoaren 1ean hasita, Herriko Plazan (12:00), eta gainerako herritarrek ere gonbidatu dituzte euren aldarrikapenak babestera.

## Gutxieneko pentsioen igoera

Basotxoko presidente Aitor Alberdi eta Pedro Etxebarria zuzendaritzako kidea bat etorri dira Agijupens elkarteak esandakoarekin: "Pentsiodunok duela hiru urte atera ginen gure aldarrikapenekin. Aurrera egin dugula uste dugu, horietako batzuk lortu egin direlako. Hala

ere, gutxieneko pentsioen igoera egiteke dago. Guretzat aldarrikapen garrantzitsuena da, justiziagatik eta elkartasunagatik uste dugu gutxieneko pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldatara iritsi behar dela, bizitza duina ziurtatzeko. Gutxieneko pentsioen igoerak gaur egun hilabete amaierara iristen ez diren pertsona askoren ongizateari lagunduko lioke eta, gainera, generoen arteko aldea murriztuko luke".

2017an ekin zieten erretiratuak herrietako elkarretaratzei, baita Aretxabaletan ere, baina ondoren, bertan behera utzi zituzten horiek: "Beste mugimendu batzuk sortu ziren, ildo oso zehatzekoak, eta hainbatetan

## ESKATUKO DUTE GUTXIENEO PENSIOA IRISTEA LANBIDE ARTEKO GUTXIENEO SOLDATARA

haiek zioten lelo batzuekin bat ez gentozelako bertan behera utzi genituen mobilizazioak", adierazi dute biek ala biek, eta gaineratu: "Gaur egungo langileei edo langabeei dagozkien hainbat aldarrikapen hor daude. Baina beren erakundeei dagokie, besteak beste, sindikatuak, aldarrikapen horiek zehaztea eta horiek lortzeko egin beharreko mobilizazioen buru izatea. Pentsiodunok elkartasuna eta babesa eman diezaikegu. Baina bi arloak bereizi beharra daukela uste dugu".

## Madrilgo Gobernuari eskaera

Era berean, argi dute Madrilgo Gobernuaren eskumena direla pentsioak, eta eskaerak hari egingo dizkiote: "Mobilizaziora deitzen dugu lortu dena ziurtatzeko, Gobernuaren aldebakarreko erabakiek atzera egitea ekar ez dezaten. Eta ziurtatzeko pentsio guztiak gutxienez lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzen direla".



Erretiratu bat bidegorrian paseatzen. M.A.

## Adinekoen gaitasun funtzionala neurtu eta landuko dute

70 urtetik gorako hainbat herritarri zenbait parametro neurtuko dizkiote Atxabalta Mugiko kideek

**M.A.** ARETXABALETA

Zahartzaro aktiboa sustatze aldera Atxabalta Mugi egitasmoa lan garrantzitsua egiten dabil herrian. Aurten, adinekoen gaitasun funtzionalaren neurketa eta lanketa jarri dute jomuga, eta horren arrazoiak argitu du Maialen Alkorta teknikariak: "Gaitasun funtzionalaren galera adinarekin areagotu egiten da, batez ere, 75 urtetik gorakoaren artean, eta emakumezkoen kasuan, are eta gehiago".

## Bi neurketa

70 urtetik gorako aretxabaletarren lagin bat hartuko dute aztertzeko eta taldetxo bati hainbat parametro neurtuko dizkiote; hona hemen: gaitasun funtzionala, erorketa arriskua, jarduera fisiko maila (IPAQ), elikadura ohiturak eta muskuluen eta eskeletoaren lesioen testak. Behin hori eginda, hiru

hilabeteko esku-hartzea egingo da eta 30 minutuko saio praktiko pertsonalizatuak eskainiko dizkiote, hainbat eratako jarduerak indartuta: oreka, indarra, martxa eta malgutasuna, besteak beste. Horren ondoren, beste neurketa bat egingo diete, emaitzak alderatzeko.

Alkortak zera gaineratu du: "Gaitasun funtzionalaren galerak eguneroko ekintzen ahultzea, erorketa arriskuen areagotzea eta independentziaren galera dakar, besteak beste, eta horietan eragiten duten faktore garrantzitsuenetako bi dira jarduera fisikorik eza eta sedentarismoa".

## 2016a ezker abian

Jarduera fisikoa sustatzearen aldeko apustua egin zuen Aretxabaletako Udalak 2016an, eta ordutik dago abian Athlonek kudeatzen duen Atxabalta Mugi zerbitzua.



Basotxoko presidente Aitor Alberdi eta zuzendaritza batzordeko kide Pedro Etxebarria, elkartearen egoitza aurrean. MIRARI ALTUBE

## UDAK 'streaming' bidez emango ditu etxeko partiduak

Ohorezko Erregionalak etxean jokatu dituen partiduak zuzenean streaming bidez ematea erabaki du UDAk; Youtubeko kanalaren bidez ikusi ahal izango dira horiek. Esatari lanetan, gainera, Ibai Zangituk eta Miren Antxiak jardungo dute.

Etxeko lehenengo partidua bihar, zapatua, jokatu du, Urolaren aurka.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



# Emakumeak nagusi Arkupeko oholtzan

Martxoko kultura gidan emakumezkoak protagonista izatea erabaki du Udalak, Emakumeen Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta; eskainiko dituenen artean daude 'Matriuska' eta 'Ovarios verdes fritos' antzezlanak eta 'Cholitas' dokumentala

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Martxoaren 8a hilabete osora luzatzeko asmoarekin, emakumea ardatz izango duen egitaraua antolatu dute Udaleko Kultura eta Berdintasun sailek elkarlanean. Eta ekitaldi guztietarako sarrerak astelehenetik aurrera izango dituzte salgai Arkupeko leihatilan.

## Antzerki bi eta dokumentala

Hilabeteari hasiera emateko, Kamikaz Kolektiboak eta Ttak Teatroak *Matriuska* antzezlan eskainiko dute hilaren 6an, zapatuan. Historiaren parte diren aurreko emakume guztien gorputzak, izenak eta existentziak berreskuratu behar diren gainean hausnartzeko ikuskizuna izango da.

Eta hilabeteari bukaera beste antzezlan batek emango dio, martxoaren 28an, hain zuzen. Detritus Teatrus taldeak *Ovarios verdes fritos* lana ekarriko du. Belen Nevadok idatzi, zuzendu eta antzeztutako ikuskizun probokatzailerak eta apurtzailea da; betiere, umorea lagun izanik.

Ikus-entzunezkoarekin ere egingo diote keinu Martxoaren 8ari. Boliviako bost emakume indigenaren istorioa jasotzen duen *Cholitas* dokumentala eskainiko dute hiru egubakoitzean. Lanak hainbat sari jaso ditu eta askapenaren eta ahalduntzearen ikur bihurtu da.

Horiez gain, Arkupeko erakusketa aretoan, Maria Antonia Ugarte arrasatearrak egindako lanak izango dira ikusgai hurrengo egubakoitzetik. Olio, pastelez eta akuarela egindako margolanak jarriko ditu Aretxabaletan bizi den artistak.

## Paul San Martinen emanaldia

Musikak ere izango du lekua Zaraia aretoko oholtzan. Hilaren 21ean, Leizarra musika eskolako irakasle Paul San Martinek piano kontzertua eskainiko du.



*Matriuska* antzezlanaren une bat. KAMIKAZ KOLEKTIBO/TTAK TEATROA

## Egitaraua

### Martxoak 5 eta 7

- 19:00 *Mendian hil, hirian hil* dokumentala.

### Martxoak 6

- 19:00 Antzerkia: *Matriuska*.

### Martxoak 10

- 18:30 Ipuin kontaketa: *Enaitz pirata ipuinen munduan*.

### Martxoak 12, 19 eta 26

- 19:00 Dokumentala: *Cholitas*.

### Martxoak 14

- 17:00 Antzerkia: *Erbia eta dortoka*.

### Martxoaren 16tik 18ra

- Huhezinema jaialdia.

### Martxoak 21

- 19:00 Kontzertua: Paul San Martin.

### Martxoak 28

- 19:00 Antzerkia: *Ovarios verdes fritos*.

Atlantikoaren bi aldeetako ikuspegiak jasoko dituen bidaia musikala eskainiko du hark, eta blues, boogie, woogie eta jazz doinuak eskainiko die bertarutako direnei.

## Ipuin kontaketa umeendako

Neska-mutikoen, oster, ipuin kontaketa izango dute martxoaren 10ean, udal liburutegiak antolatuta. *Enaitz pirata ipuinen munduan* saioa eskainiko die Onintze Goitizek 4 eta 7 urte arteko umei. Izena aurretik eman behar da, liburutegian, edukiera bermatzeko -22 lagunendako tokia egongo da-.

Eta hilaren 14an, *Erbia eta dortoka* antzezlan eskainiko die Glu Glu konpainiak.

## 'Mendian hil, hirian hil', bi aldiz

Bestetik, *Mendian hil, hirian hil* dokumentalaren beste bi emanaldi izango dira hurrengo aste bukaeran: hilaren 5ean eta 7an. Iñaki Peñak zuzendutako eta Artemanek ekoiztutako ikus-entzunezkoari harrera beroa egin diote aretxabaletarrek, eta otsailan izandako lau emanaldietarako sarrerak berehala agortu ziren.

## Elkarlana ezin dutela aurrera eraman adierazi du EAJk

EH Bildurekin izandako talkak ugariak izan direla diote eta gaineratu dute akiturik daudela leialtasun faltarekin

**M.A.** ARETXABAETA

Udalean ordezkariak duten bi alderdien arteko lankidetzak apurtu egin dela zioen joan den astean EH Bilduk, eta horri erantzun gura izan dio EAJk. Adierazi dute Gobernu berria osatzerakoan, elkarlanean aurrerapauso bat eman gura izan zutela EH Bilduri batzorde baten ardura emanda eta zinegotzi bat jardun osoz liberatzeko konpromisoa hartuta. "Lehen urratetatik nabarmendu zen agintaldi honetako jarrera ez zela aurrekoa izango. Alderdi bera izanda ere lidergo aldaketa izan zen eta politika egiteko beste estilo bat ezarri zuen", adierazi dute.

## "Mesfidantza giroa"

Talka ugari izan dituztela urte eta erdian diote, eta "akituta" daudela leialtasun faltarekin: "Borondate onez emandako erraztasun eta baliabideak elkarlanerako beharrezkoak gure proiektuak oztopatu eta bere burua promozionatzeko erabili ditu EH Bilduko bozeramaile eta Udalean liberatua den Ion Albizu jaunak".

"Erabateko mesfidantza" sortzen diela bozeramaileak gaineratu dute, eta egoera horretan

ezin dutela elkarlanean jardun: "Ion Albizu ez litzatekeen EH Bilduko kide bat Gobernu batzordean mantentzeko borondate adierazi dugu". Eta zera gaineratu dute: "Mesfidantza giro honetan ez dago lan egiterik eta HAPO garatzeko ardura gure gain hartuko dugu. Gobernu batzordeko kideari buruz ez dute ezer erantzun; beraz, zain jarraituko dugu". Argitu gura izan dute erabakia EAJren udal taldeko zinegotziek hartu dutela, ez "goitik aginduta".

Era berean, EAJk dio Gobernu batzordea indar korrelazio bat izan beharko litzatekeela adierazi zuela EH Bilduk, eta horri erantzun diote, mezu hori sinesgarria izango litzatekeela EH Bilduk gehiengo duen herrietan, Oñatin edo Bergaran, jokabide hori erakutsi izan balu.

## Aretxabaletarren alde lanean

"Elkarlanean sinistu" arren egoera "jasanezin" bihurtu delako hartu dutela neurri "zorrotz" hori gaineratu dute. Eta, era berean, aretxabaletarren onerako lanean jarraitzeko gertu agertu dira, "gardentasunez eta zintotasunez".

## Martxoaren 8a gertatzeko azken bilerak martitzenean

Aretxabaletako Mugimendu Feministak Martxoaren 8a gertatzen dihardu azken asteetan eta datorren martitzenean, martxoaren 2an, egingo dituzte azken bilerak; 15:00etan eta 18:00etan elkartuko dira Arkupen. Herriko emakumeak gonbidatu dituzte bilerari horietara, horien ekarpenak ere jasotzeko eta egunera begirako lanak zehazteko.

Joan den zapatuan Emakumeen Mundu Martxak Debagoienean izandako erantzunarekin pozik agertu dira Mugimendu Feministako kideak, eta orduan sortutako giroari eutsita, Emakumeen Nazioarteko Eguna indartsua antolatu gura dute azken urteetan egindako legez.

## Ixadebalde merkealdien azoka martxoan izango da

Negu parteko denboraldiari bukaera emateko asmoarekin, Aretxarte merkatarien elkarteak Ixadebalde merkealdien azoka egingo du martxoaren 5ean eta 6an. Produktu merkatuak saltokien aurrealdean eskainiko dituzte, iaz egindako moduan; egubakoitzean egun osoz eta zapatuan goiz partean.

Ixadebalde azokan parte hartuko dute arropa eta oinetakodendek, baita jatekoa eskaintzen duten hainbatek ere; hona hemen guztiak: Belar Meta, Asensio, Tak, Haurrak, Amaia ume denda, Kilima, Titare, Zubia, Txillarria, Kiloka eta Hankabeltz. Aretxabaletarrak saltokietara gerturatzea gonbidatu dituzte.



Ainhoa Sanchez, Loramendi elkarteko teknikari berria, egoitzako atarian. IMANOL BELOKI

## Herritarren nahiak jakin guran daude Loramendin

Ainhoa Sanchez Loramendi elkarteko dinamizatzaile berria da, eta, lantaldean osatutako proiektu berriak esku artean dituzten arren, galdetegi bat osatu dute herritarren nahiak jakiteko eta horien interesen arabera ekintzak antolatzeke

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Ainhoa Sanchez aretxabaletarra izango da hemendik aurrera Loramendi elkarteko dinamizatzailea. Urtarrileko azken astean orain arte kargu hori izan duen Eñaut Zubizarretarekin eskualdatzea egin, eta otsailan burubelarri hasi du bere jarduna, nahiz-eta Loramendiko langilea izandakoa den eta ezagutzen duen bertako dinamika.

Aretxabaleako euskararen, kulturaren eta aisiaren gaineko proiektuak dinamizatzeko lanetan arituko da Sanchez, eta bere asmoa herritarrengana gehiago gerturatzea dela adierazi du: "Hori izan da lehenengo lana. Gauza berriak egitea abiapuntu izanda, herritarrei zuzenean galdetu diegu zer nahi duten. Bazkideak erdigunean jarrita, bazkideak eta herriko jendea; eta euren ahotsa eta iritzia entzun nahi dugu. Galdetegi bat osatu dugu horretarako, eta dagoeneko jaso ditugu zenbait iritzi eta proposamen ezberdin".

**Plangintza osatzeko galdeketa**

Hasiera batean, galdetegiaren zabalkundea sare sozialetatik egin dute; Whatsappez, Facebook-eko eta Instagramez, baina herritarrek animatu dituzte eskaera, proposamen edo bestelakorik egin nahi duena Loramendi elkarteko lokalera gerturatzeke. Bertan, herritar orok ateak zabalik izango dituela nabarmendu dute.

**Ataria libre, erakusketetarako**

Loramendiren bulegoa udaletxe zaharrean dago, eta iaz, eraikineko ataria atondu zuten, bertan, batez ere, kultura ekintzak egiteko. Kontzertuak, ipuin kontaketa, hitzaldiak... egin dituzte, eta orain, herriko artistengana

**PROIEKTU BERRIAK OSATZEKO ETA AURRERA ATERATZEKO GALDETEGIA OSATU DUTE LORAMENDIKOEN**

zuzendu dira; kasu honetan, norbaitek erakusketa bat jarri nahiko balu, txokoa erabiltzeko dagoela adierazteko: "Eremua aprobetxatze aldera, erakusketetarako dei egin dugu. Oraindik jarriak ditugu, esaterako, Idoia Elexpuruk ekarritako koadro batzuk. Egoerak uzten digun arabera, erakusketetatik abiatu eta kultura eskaintza zabalagoa antolatzea gustatuko litzaiguke; ea posible den. Ideiak baditugu, eta saiatuko gara gauza berriak aurrera ateratzen; betiere, euskarara oinarritzat hartuta".

**Lantaldearen garrantzi handia**

Loramendi osatzen duten langileek duten lanerako prestutasuna ere nabarmendu gura izan du Sanchezek: "Lantaldean gauzak antolatzeko moduarekin jarraituko dugu. Lanerako prestutasuna izatea funtsezkoa da, eta langileekin batera herritarren bultzada ere funtsezkoa izango zaigu proiektu berriak aurrera ateratzeko".



Martinez de Lizarduy, jaso berri duen azken sariaren ziurtagiriarekin. MARTINEZ DE LIZARDUY

## Munduko tokiko 40 telebistatan emititzeko saria Lizarduyk

'Erraiak' lanak jaso berri duen azken saria jauzi handia izan da Ekain Martinez de Lizarduy zuzendariarentzat

**I.B. ARETXABALETA**

*Erraiak* dokumentalak 20. saria jaso berri du, eta ez nolana hiko. Izan ere, *World Distribution Award* lehiaketan dokumental onenaren saria jaso du, eta horrek esan gura du Ekain Martinez de Lizarduyren lana hizkuntza desberdinetara itzuli eta mundu zabaleko tokiko 40 telebista kateetan emitituko dela: Hegoafrikan, Alemanian, Txekian, Eslovakian, eta abar.

"Sorpresaz sorpresa aritu naiz, eta honako hau sari borobila izan da. Balio handikoa zabalakundeari begira, munduan za-

balduko delako irrintzia...", esan du Martinez de Lizarduyk.

**Indiako lehiaketara**

Irrintziaren gaineko dokumental festibal askotara bidalita, aitortza izan duela adierazi du Lizarduyk, eta, gaur-gaurkoz, ez dela lana inora bidaltzen ari. "Azken finean, lehiaketetako epaimahaikideak ezagutzen dute elkarren artean, eta, bata besteari gomendatuta, leku ezberdinetatik ari zaizkit lana bidaltzeko eskatzen; azken egunetan, Indiatik eskatu didate, esaterako."

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

## Maskarak uretan pilatuz gero, zer?

"Urkulura egunero noa pasean eta maskara mordoia ikusten ditut, uretan pilatzeko arriskuarekin. Jausitakoa jaso egin behar dela gogoraraziz ea kartelen bat jartzen duten", dio herritar batek.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.



# M8arekin lotuta, Eudelek proposatutakoa aurrera

Martxoaren 8aren baitan EAJk proposatutako erakunde adierazpena atera zen aurrera, EH Bilduren eta Eskoriatzako Elizateen Elkartearen abstentzioarekin. Bilduk proposatutakoak, berriz, Elizateen baiezkua jaso zuen eta EAJren ezezkoa

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako otsaileko osoko bilkura modu telematikoa egin zuten martitzenean udalbatzako kideek. Joserra Zubizarreta alkatea bajaran dagoela esanez hasi zuten bilkura, eta, hori horrela, Josu Ezkurdia alkateordeak gidatu zuen gai-zerrenda.

Hasteko, urgentziak puntu bat gai-zerrendan sartu nahi zela adierazi zuen EAJk. Hain zuzen ere, Euskaltegirako ordezkari moduan Zubizarretaren ordezkari Maite Uribe proposatu zuten; galde-eskeen aurretik aho batez erabaki eta onartu zuten. Tramiteak eta kontratu luzapenak ere onartuta, Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren baita, EH Bilduk eta EAJk proposatutako erakunde adierazpenei eskaini zieten bilkurako tarte luzeena.

## EAJren ezetza EH Bilduri

EH Bilduri eta Eskoriatzako Elizateen Elkarteari hitza eman aurretik, Josu Ezkurdia EAJko

bozeramaileak euren iritzia adierazi gura izan zuen: "Argi eta zehatz irakurri dugu Bilduren proposamena, eta, esaten denaren kontra ez goazen arren, Eudelek proposatutakoarekin bat egingo dugu, Euskadiko alderdi guztien adostasuna duelako, hainbat udalerrri, udal eta instituziotan aurkeztu eta onartu delako. Hala, ezezko botoa emango diogu, batasun eta indar gehiago lortzeagatik".

## Talde feministarekin adostuta

EH Bilduk egunerako prestatu zuen erakunde-adierazpena Dorleta Sologaitoak irakurri zuen, honako hau esanda: "Bat egiten dugu EAJk aurkeztu duen erakunde adierazpenarekin, guk

## MARTXOAREN 8KO ERAKUNDE-ADIERAZPENA HIZPIDE, BOTOAK ARRAZOITUZ

Eskoriatzako talde feministarekin egin dugu idatzi hau, beraien oniritziarekin, eta uste dugu osatuagoa dela Eudelek proposatutakoa baino".

## Elizateen babesa

Eskoriatzako Elizateen Elkarte bozeramaile Leire San Vicente, bestalde, babesa adierazi zion oposizioak aurkeztutako proposamenari: "EH Bilduk eta EAJk aurkeztutako bi erakunde-adierazpenak interesez irakurri ditut. Biak testuinguratsun dira, eta puntu komunak dituzte, salbuespenak salbuespen. EH Bilduk aurkeztutakoak berdintasun politika garatzeko oinarri sendo bat dauka, mugimendu feminista kontuan hartzen duelako eta emakumea erdigunean jartzen duelako eta konkretuagoa iruditzen zaidalako topatzen den eraldaketa gauzatzeko". Horiek esanda, eta bozkatuta, EAJk aurkeztutakoa irten zen aurrera, EH Bilduren eta Elizateen abstentzioarekin.



Nieves eta Mercedes Galdos ahizpak motor gainean. ESKORIATZA IRUDITAN

## Galdos Aranburuzabala ahizpak, feminismoaren ikur bihurtuta

Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldekoek kamisetak eta poltsak atera dituzte, argazki zahar bat oinarri

## I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldekoek, Eskoriatzako feminismoaren ikur bihurtu guran, kamisetak eta poltsak egin dituzte Nieves eta Mercedes Galdos Aranburuzabala ahizpa eskoriatzarrak motor baten gainean ageri diren argazki zahar bat erabilita. Feminismoa aldarrikatzeko, eta Eskoriatzako emakumeak ardatz izanda, aurrera begirako ekintzak gauzatu ahal izateko atera dituzte poltsak eta kamisetak; zenbait koloretan erosi daitezke, gainera, 15 eurotan.

Naiara Errasti diseinatzaile eskoriatzarra arduratu da diseinuaz, eta, emaitzarekin "pozik", joan den zapatuan, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxoaren 8ko Debagoieneko ekintzaren baitan, postua jarri zuten horiek saltzeko.

## Aurrera begirakoak egiteko

"Kamisetak eta poltsak egitearen ideia Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeko Jasonerena izan zen. Buruan gauza asko ditugu, eta horiek gauzatzeko eta dirua batzeko abiatu dugu egitasmoa", adierazi du Kristina Cardenalek.

## Urtebeteren ostean, lehenengo ekintza antolatu dute erretiratuek

Martxoaren 3an, Memoria Lantegia izango da, kultura etxeko lehenengo solairuan, 16:30ean hasita

## I.B. ESKORIATZA

Urtebetez ez dute inolako ekintzarik egin Olazar Erretiratuen Elkarte kideek. Batzar Orokorra egiteko ere zailtasunak izan dituzte, eta, hori ere bertan behera utzita, zerbait antolatzeko garaia dela erabaki dute. Hori horrela, Memoria Lantegia antolatzea erabaki dute.

Martxoaren 3an izango da, kultura etxeko lehenengo solairuan, 16:30etik 18:00etara bitartean, eta parte hartu nahi duenak norberaren datuak eta telefono zenbaki bat utzi beharko ditu

ikastaroa emango den gelan, tailerreko gidari izango den Sara Alavari emanda: "Kultura etxeko lehenengo solairuan izango da tailerra, eskumako gelan. Oraingoan, hamaika lagunek eman dute izena, eta beste laurentzat dago lekua. Ordua zen zerbait antolatzeko, eta ea taldea betetzen dugun... Horrekin batera, informatika ikastaroa berrartu egin nahi genuke, baina neurriak betetze aldera modua aldatu beharko dugu", adierazi du Pedro Hernandok, Olazar Erretiratuen Elkarte kideak.



2019ko Martxoaren 8an, Fernando Eskoriatza plazan elkarretaratzera abiatzeko gertu. GOIENA

# Eskaintza mamitsua martxoko kultura gidan

Irantzu Varelak eskainiko duen bakarrizketarekin eta Arrasateko zenbait musikari tartean dituen Neomak taldearen trikiti eta pandero doinuekin emango zaio hasiera martxoko kultura agendari. Horrekin batera, ez da faltako dantza, antzerkia, magia...

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Kultura eskaintza zabala izango da martxoan Eskoriatzan. Izan ere, bakarrizketa, hitzaldia, musika emanaldiak, antzerkia, dantza saioa... egongo dira. Gehienak Zaldibar antzokian eskainiko badira ere, Joseba Iñurrategi pilotalekuan eta Manuel Muñoz kiroldegian ere izango dira zenbait. Martxoko lehen asteburuan, esaterako, bakarrizketa umoretsua eta trikiti eta pandero doinuz bustitako emanaldia izango dute eskoriatzarrek gozagarri.

## Kontsumoa eta matxismoa

Martxoaren 5ean, bakarrizketa egingo du Irantzu Varelak, Zaldibar antzokian, gaztelerez. Emakumeen Nazioarteko Egunaren baitan, *No hay matriarcado ni en el supermercado* izenburupean, 45 minutuko saioa eskainiko du kazetari eta aktibista feminista bizkaitarrak. Umoretik landuta, kontsumoa-

## Egitaraua

### Martxoaren 5a

- **Bakarrizketa. Irantzu Varela** 19:00etan, Zaldibar antzokian.

### Martxoaren 6a

- **Kontzertua. Neomak** 19:00etan, Zaldibar antzokian.

### Martxoaren 12a

- **Hitzaldia. 'Ser mujer migrada en la sociedad vasca'** 19:00etan, Zaldibar antzokian.

### Martxoaren 13a

- **Antzerkia. 'Esnatu naiz kabareta'** 19:00etan, Zaldibar antzokian.

### Martxoaren 14a

- **Dantza tailerra** 18:00etan, pilotalekuan.

### Martxoaren 19a

- **Bandaren kontzertua** 19:00etan, kiroldegian.

### Martxoaren 21a

- **Dokumentala. 'Bideak'** 19:00etan, Zaldibar antzokian.

### Martxoaren 27a eta 28a

- **Hodei magoa (helduentzat)** 19:00etan, Zaldibar antzokian.



Neomak taldeko kideak. NEOMAK

rekin eta indarkeria matxistekin lotutako hainbat alderdi uztartuko ditu.

## Trikitixa eta panderoa

Martxoaren 6an, berriz, Neomak taldearen kontzertua izango da Zaldibarren. Gaztetxotan hasita, trikiti txapelketetan aurkari nahiz bikote gisan plazara salto egin eta gerora, Kepa Junkerarekin *Sorgiñak* moduan harahona ibiliak dira taldeko kideak. Ahotsak, trikiti eta panderoa uztartuz, euren lana aurkeztera etorriko dira taldea osatzen duten Arrasateko, Debako, Zarauzko, Zizurkilgo eta Asteasuko zazpi emakumeak –Amets, Irati, Leire, Eneritz, Garazi, Alaitz eta Maria–, Eskoriatzara. "Gure kantu propioez batera, trikiti tradizioaletik hartutako koplak moldatuta ere eskainiko ditugu kantuak; ahotsa perkusioaz lagunduta", adierazi du Amets Ormaetxeak, Neomak taldeko kideak.

Hala, estreinaldia ez, baina emango duten lehenengotako emanaldietako bat izango da martxoaren 6koa. Izan ere, azaroan Arrasaten emanaldi bat eskainita eta urtarrilaren 20an Nafarroako VII. Trikiti Jaialdian zenbait kantu ere egin ostean, Eskoriatza izango dute hurrengo geltoki Neomak taldekoek.

## Sarrerak erosteko

Hitzordu guztietara begira, edukiera neurriak errespetatzeko sarrerak edo gonbidapenak alde aurretik erosi edo jaso beharko dira. Emanaldi gehienek bost euroko kostua dute; hala ere, martxoaren 12ko hitzaldia eta martxoaren 19ko bandaren emanaldia, esaterako, doakoak izango dira, eta *Bideak* dokumentala ikusi nahi duenak, berriz, hiru euro ordaindu beharko ditu. Sarrera guztiak Manuel Muñoz kiroldegian jaso beharko dira ekitaldiaren aurreko astelehenetik aurrera.

## Metraje laburreko lanak, mendia, abentura eta natura ardatz

Gaur, egubakoitza, eta etzi, domeka, Mendi Tour Film festibaleko lan onenen proiektzioa Zaldibar antzokian

### I.B. ESKORIATZA

Hilaren 19an, Mendi Tour Film festibaleko lan onenen emanaldien aurrekari gisa, *Iñurrategi anaiak* liburuaren aurkezpena eta mendiko argazkien erakusketa izan zen Zaldibar antzokian. Azken hori oraindik ikusgai dago, antzokiko sarreran.

Gaur, egubakoitza, eta etzi, domeka, ordea, abentura eta natura gaien inguruko zinema Mendi Tour Film festibaleko ziklo ibiltariko lan onenak ikusteko aukera izango da Zaldibar antzokian, 19:00etan hasita.

Proiektatuko diren lanak bertsio originalean azpitoluekin eskainiko dituzte, ikus-entzuleak xeheatasun guztiarekin gera daitezzen. Horietan, istorio harrigarriak, zirraragarriak eta inspiratzeko gaitasun handia dutenak ezagutzeko aukera izango da, eta, metraje laburrekoak izanda, bertara doazenak gehiago ikusteko gogoz geratuko dira.

Hiru eurotan saio baterako sarrera erosi daiteke eta 5 euro ordainduta bi saioetarakoak alde aurretik erosi behar dira, Manuel Muñoz kiroldegian.

## Oihal eta ehungintza materialez egindako eskulan saioa

Martxoaren 7an, 5 urtetik gorako haurrek familian egiteko tailerra izango da Ibarraundi museoan. 17:00etatik 19:00etara bitartean, oihal eta ehungintza materialez osatutako eskulanak egiteko aukera izango da.

Izen-ematea zabalik dago, eta, edukiera mugatua izanda, aurrez eman beharko da izena. Hain zuzen ere, 5 eta 9 urte arteko haurrek heldu batekin joan beharko dute hitzordura eta 9 urtetik gorakoak, berriz, bakarrik joan daitezke. Lourdes Martinez joskintza irakaslea izango da tailer horretako gidaria, eta parte hartu gura duenak bost euro ordaindu beharko ditu.



AUZOKO ESKORIATZA

## Hizkuntza ezberdinak aurkeztuz

Domekan, otsailaren 21a, Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna izan zen, eta Huhezi Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera bisita egin zuten Auzoko Eskoriatza taldeko kideek astelehenean. Taldean dituzten lehen hizkuntza guztiak aurkeztu, elkar ezagutu eta bizipenak partekatzeke aprobetxatu zuten bertako egonaldia.



# "Ondo hezia badago, beldurra gutxitu egiten da"

**AITOR OYON TXAKUR-HEZITZAILEA**

ADIKIDE izenpean txakurrak eta haien jabeak hezten darama urte eta erdiz Aitor Oyon eskoriatzarrak Zarimutz elizatean, lan horretarako egokituta duen eremuan

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Aitor Oyon eskoriatzarra bere txakurrak ez ezik, arazoak dituzten inguruko beste hainbat txakur hezten aritzen da, haien jabeek ere lan horretarako argibideak emanda. Mimatuak dauden txakurrei, kasurik egiten ez dutenei edo bestelako arazoak dituztenei... laguntzen die Zarimutuz txakurrekin ariketak egiteko, animaliekin aisia eta heziketa lantzeko atonduta duen eremuan.

**Zenbat denbora daramazu txakur-hezitzailea?**

Betidanik izan ditut txakurrak, beti gustatu izan zaizkit, baina ofizialki txakur-hezitzaile urte erdi daramat, Eskoriatzako Zarimutz elizatean txakurrekin aritzeko atonduta dudana eremuan. Txakurren heziketarako kultura falta da; horiek ikasten aritu naiz, eta orain, praktikan jartzen dut ikasitakoa.

**Zein arazorekin etortzen dira jabeak txakurrekin?**

Mota askotako arazoak izaten dira, baina ohikoenak dira txakurrak sokatik tiraka egiten duela, kasurik egiten ez diela... Horrekin batera, zenbait agindu irakatsi gura izaten dizkiete txakur-jabeek txakurrei: jartzeko, etzateko... Garrantzitsuena sozializazioa da; kalean edozein lekutan aritzeko eta txakurra alboan txintxo joateko, jendearen albotik pasa eta norbaitekin elkartuz gero, txakurrak zintzo obeditzeko. Ardiekin aritzen direnak ere etortzen zaizkit... Helburua kasu egitea da, eta, horretarako, jokamoldeak moldatzen eta zuzentzen aritzen naiz.

**Zarimutuzen zirkuitua ere baduzu.**

Txakur ezberdinak batzen ditut hemen; hala, euren artean aritzen dira, beste txakur-jabeekin... Horrenbestez, jende ezberdinarekin egoten ere ikasten dute. Zirkuitua eginaz, zenbait trebetasun ikasten dituzte.



Aitor Oyon txakur bati irakasten. IMANOL BELOKI

**"EGOERA ZAIL BATI AURRE EGITEA ERRAZAGOA DA LANKETA ONA EGINDA BADUZU"**

**Zenbat txakurrekin ari zara lanean? Batzuei irakastea beste batzuei baino zailagoa izango da, ezta?**

Orain arte, hogeit hamar txakur ingururi ibili natzaie irakasten, gutxi gorabehera. Eta egia da: normalean, txakurrari gazte-gaztetatik irakasten bazaio, errazagoa izaten da. Izan ere, ohiturak hartzen dituzte zaharagoak direnean, pertsonen moduan, eta horiek aldatzea pixka bat gehiago kostatzen da. Esaterako, une honetan, 9 urte dituen txakur batekin ari naiz, eta, lanketa gehiago egin beharra izan arren, ari da ikasten. Teknika batzuen bitartez ezaba daitezke portaera desegoki gehienak.

**Ohiko aginduak ikasi ostean, zer?** Hasieran, txakurrari lotuta dagoela irakasten diot. Gero, saio aurreratuagoekin hasten gara, txakurra suelto dagoela;

egoera ezberdinetan jarrita kasu egitea, eta gero, txakurrak estresa kentzeko jokoak ere egiten ditugu: elementuren bat gorde eta bilatzea, zirkuitua egitea, haginkariarekin ere aritzen gara...

**Txakurrekiko beldurra dutenen aurrean, ondo hezia dagoen txakur bat izanez gero beldurra txikitu egiten da?**

Noski; txakur-jabeek mota guztietako egoerak jasan ditugu. Bi txakur borrokan hastea, pertsona batek beldurra izatea... Baina, halako egoeretan, txakurra ondo irakatsita badago, egoerari samurrago egin diezaiokazu aurre. Aurretik lanketa egiten bada, ez du zertan gertatu.

**Norbaitek txakurrekin arazorik badu, edo zenbait agindu irakatsi gura badio, zer egin behar du zurekin kontaktatzeko?**

Normalean, egun bakarrean edo bi egunetan dominatu daiteke txakurra ohiko aginduak ikasi ditzan, baina hogeit hamar saioak eskaintzen ditut. Facebooken dut **ADIKIDE** izeneko orrialde bat, eta bertatik nirekin jarri daiteke harremanetan nahi duena.



Leintz Gatzagan egindako Zuhaitz Egun batean batutakoak landatzen. GOIENA

## Ginkana egin ostean, fruta arbolak landatzera joango dira

Zapatuan, Zuhaitz Eguna ospatuko dute, eta Udalak herritarrei utzitako lursailean egingo dute landaketa

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Urteroko zita errespetatuz, zapatu honetan Zuhaitz Eguna izango dute Leintz Gatzagan. Gurel Guraso Elkarteko kideek antolatuta, ginkana egingo dute, lehenbizi, herrigunean, 11:00etan hasita. Bertan, herriko zuhaitz eta landareak ezagutzeko aprobetxatuko dute goiza, eta, ostean, zuhaitzak landatzera joango dira, Udalak utzitako ortuen alboan. Herrigunetik Gatzagainera bidetako dagoen lursailera.

Herrigunean eta inguruetan dauden zuhaitz eta landareak ezagutzen hasiko dute eguna.

Batez ere, haurrei erakutsiko dizkiete herriaren bueltan daudenak, eta horretarako, jolas eran ginkana egingo dute.

**Fruta arbolak landatu**

Zuhaitz landaketarako, berriz, zenbait fruta arbola eramango dituzte landatze-eremura, eta lau edo bost zuhaitz landatzea dela asmoa adierazi du Beñat Agirreurreta zinegotziak: "Fruta arbolak eramango ditugu, sagarrondoak, seguruenik, eta herri gainaldean Udalaren jabetzakoa den lursailean egingo dugu landaketa".



GARAZI OROBENGOA

## Haizeteak kalteak eragin ditu

Domekan, Garro jauregiko sabai-leihoak eraman zuen haize-bolada batek, eta beste bi eraikinetako teilatuetan ere kalteak sortu zituzten ufada gogorrek. Suhiltzaileak kalte materialak konpontzeko lanetan aritu ziren domeka arratsaldean, bertatik pasatzen ziren herritarren segurtasuna bermatze aldera.



# Hildako nazionalen omenez, mausoleoa

36ko gerraren ondorioz (1936-1939) bizia galdu zuten antzuolar nazionalen oroigarri gisa, 1940an horma-irudi handi bat margotu zuten plazako elizpeko horman. Bertan, hildako zortzi herritarren izenak datoz; ustez, frankismoko zenbait ikurrekin batera

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Errukizko Amaren parrokiaren elizpeko hormak Espainiako gerraren gordintasuna darama azpian. Karez estalita dago gerrak eta frankismoak eragindako samina gogorarazten duen mausoleoa; pixkanaka karea altxatzen eta margolana azalerraten hasia da, ordea.

**Mausoleoa**

Gerrako irabazleek, nazionalak, euren alde borrokatu zirenak eta hildakoak goraiatzeko, 1940an mausoleoa egin zuten. Bertan, *En memoria de los fallecidos de la última Cruzada por Dios y por España* idatzi zuten. Oso garbi ikusten ez den arren orduko argazkietan, frankismoaren hainbat ikur ere badaramatza lanak behealdean. "Helburu alegorikoa zuten margoak ziren, eta bertan, aberriaren alde borrokatu eta hil zirenen zerrendak aipatzen ziren. Antzuolako oso handia da, ikusgarria. Horrela-



Murala kare azpian daraman hormaren aurrean Iñigo Ramirez de Okariz. M.A.

ko omenaldiak herriko txoko garrantzitsuetan jartzen zituzten. Dagoen argazki bakarrean argi ikusten ez den arren, badirudi frankismo ikurrak ere badaudela", dio Iñigo Ramirez de Okariz historialariak.

Udalak 900 pezeta ordaindu zizkion Pedro Martinez eibartarrari murala margotzeagatik.

**Memoria historikoa**

"Orain arte jaso dugun memoria historikoa irabazleena izan da;

gero eta gehiago gabilta galtaileen memoria ere berreskuratzen. Antzuolako horma-irudiaren kasuan, ordea, badakigu irabazleen oroigarria dela. Agerzten direnak garai hartako sentsibilitate politiko jakin batekin lotutakoak dira. Oraindik horrelako ikurrek, nolabait, buruhaustek ematen dituzte. Bestalde, badira margoan zer dagoen ikusteak zer gertatu zen eta memoria historikoa argitzen lagunduko lukeela uste dutenak. Ondoren, berriro erabaki behar-ko litzateke zer egin hormarekin".

Gogora Institutuak sinbologia frankisten txostenean, aldiz, ez du Antzuolako jaso. "EAEn euskarri eta forma jakin batzuk erabili ziren; sinbologia frankistari dagokionez, baliteke *altxorra* izatea Antzuolako margolana", argitu du.

**MURALA EGITEKO, UDALAK 900 PEZETA ORDAINDU ZIZKION PEDRO MARTINEZ EIBARTARRARI**

## M8ko adierazpen instituzionala onartu dute osoko bilkuran

EAJren ekarpen eta zuzenketekin onartu dute, aho batez, Emakumeen Nazioarteko Eguneko udal adierazpena

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

EH Bilduk, EAJk eta alderdi sozialistak aho batez onartu dute Emakumeen Nazioarteko Egunaren baitan Udal Gobernuak aurkeztu duen adierazpen instituzionala. Martitzenean egin zuten otsaileko ohiko osoko bilkura eta gai bakarria izan zuten berbagai.

EAJk egindako zuzenketa eta ekarpenekin onartu zuten M8ko adierazpen instituzionala. Udal Gobernuak eskatuta, ordea, herriko Andramanuelak emakume taldearen berariazko aipamena



Otsaileko ohiko osoko bilkura. M.A.

ere jasotzen du testuak. "Gu ados gaude EAJ taldeak egindako aldaketekin, baina Andramanuelak taldearekin elkarlanean jardutea berariaz aipatzea gura dugu, jatorrizko idatzian agertzen zen moduan", gaineratu du Beñardo Kortabariak, herriko alkateak.

Zehazki, ohiko osoko bilkuran onartu duten M8ko adierazpen instituzionalaren azken puntuak jasotzen du Antzuolako emakume taldearen ekarpena. "Emakumeen eta feminismoen elkarregintza bultzatuko da, Andramanuelak elkarteak kasu, elkarlana emanez, genero ikuspegitik estrategikotzat identifikatu diren ekintzen diseinu, garapen eta ebaluazio prozesuetan euren parte hartzea sustatuz"; hori dakar bederatzi puntu jasotzen dituen adierazpenak.



ION ARANGUREN

## Larreatarrak, Getafera bidean

Ibai eta Ekain Larrea anaia bikiak Getafen izango dira asteburuan. Han jokatuko da Espainiako kros txapelketa, eta biak dira euskal selekzioaren elastikoa defendatuko duten atleta antzuolarrak. Ekain Larrea, gainera, Euskadiko txapelkun berria da. Getafera joan eta Espainiako txapelketan parte hartu aurretik, COVID-19 proba egingo diete gaur.



Nazionalen ohorezko koadroa. IRINMODO BLOGA

## Ohorezko koadroa

36ko gerran hil ziren nazionalak, kartzelan egondakoak, isunak eta errepresioa jasotakoak... Horiek guztiak ohorezko koadro batean jaso zituzten gerra amaitzean, argazkiekin eta izen-azizenekin. Etxez etxe banatu zituzten, ondoren, oroigarri gisa.



# GOIENA TELEBISTA

## UDABERRIKO PROGRAMAZIOA



**%100 EMATEN  
JARRAITZEN DUGU**

### Jone Olabarria ARRASATE

Iaz bete zituen hogei urte Goiena telebistak. Ezin izan zuen nahi moduan ospatu, COVID-19ak galarazi zuelako. "Aukerak ere sortu zituen izurriteak eta larrialdi egoerak. Saioak beste modu batera antolatu behar izan genituen eta komunitatearen ekarpena inoiz baino aberatsagoa izan zen", dio Oihane Agirrek, Goiena telebistako zuzendariak. *Etxetik plazara* da horren adibidea, zeinetan herritarrek bidalitako ikus-entzunezkoak bihurtu ziren protagonista.

### Goienaren kontsumoak, gora

COVID-19ak herritarren kontsumo ohiturak aldatu zituen. Bat-batean, sareko kontsumoa handitu egin zen, halaber. *Goiena.eus*-ek igarri zuen, bereziki -%55eko igoera izan zuen 2020an, aurreko urtearekiko, *Goiena.eus*-en bisitari kopuruak. Ondorioz, era berean, *Goiena.eus*-eko *Telebista* atalak ere gorakada izan zuen iaz.

Gaur egun, ohiko telebistako antenaren bidez -Lurreko Telebista Digitala-, kablez edo zuntz optikoz jasotzen diren edukien paketeen bidez, Euskaltelen bidez, *Goiena.eus* bidez eta Goienaren *app*-aren bidez ikus daiteke Goiena telebista. Nahieran ere kontsumitu daitezke saioak, zuzenekoaz gain. Aplikazioa, gainera, berrituta etorriko da aurki.



Hemen *Debagoiena* saioa grabatzen, Txomin Madina aurkezlea eta Oihana Elortza Oñatiko berriemailea. MARKEL ARRAYAGO

## Goiena telebistak saio eta eduki berrieekin ekingo dio udaberriari

Goiena telebistak udaberriko programazioa estreinatuko du martxoarekin batera. Ez du iraultzarik ekarriko, baina bai berritasunak, saio edo tarteei dagokienez, eta telebistaren ikur bihurtu diren saio batzuk berriro datozelako, aldaketekin horiek ere

### Saskia bete saio

Udaberriari, *Galdegazte*, *Hala bazan*, *Harira*, *Harmailatik* eta *EKT* -Euskal Kultura Transmisioari buruzkoa- eduki eta formatu berrieekin datoz. Jokin Bereziartuaren eta eskualdeko ikastetxeetako elkarrizketazaila gaztetxoaren *Galdegazte*-k martxoaren 3an, eguaztena (21:30), estreinatuko du denboraldia, Mireia Gabilondo aktore bergararrarekin. Ostean etorriko dira Mariasun Pagoaga, Jon Olivares, Markel Irizar... *Harira* ere datorren astean itzuliko da. Juan Inazio Perez Iglesias Jakiundeko presidente izendatu berria izango da lehen gonbidatua. "Alkateekin egin zuen saioa udazkenean Eneko Azkaratek, eta oraingoan, beste erakunde batzuetako herri ordezkarien txanda izango da", aurreratu du Oihane Agirrek. Xabi Urzelaik astelehenean aurkezten duen *Harmailatik* ere berritasunekin ari da COVID-19ari aurre egiten, "kirolariei emanez protagonismoa". Arantzazu Ezkibekek eta Oihana Elortzak aurkeztuta, Harkaitz Canori, Uxue Alberdiri, Maialen Lujanbiori, Gariri eta beste kultur gile batzuei egindako elkarrizketak jasotzen ditu, eguenean, *EKT* saioak.


EHuneko ehun emanez helduko dio Goiena telebistak udaberriari ere. "Gure komunitateari gurean gertatzen dena euskaraz kontatzen jarraitzeko", bukatu du Oihane Agirrek.

**Zelan ikusi  
Goiena  
telebista**



#### Antena bidez

Lurreko telebista digitalaren seinalea jasota, antena bidez ikusi ahal izango da Goiena telebista etxeetan, 25. kanalean.



#### Euskalteleko kable bidez

Euskaltelek duen telebistaren eskaintzaren barruan dago Goiena telebista ere. Debagoienean, hamaikagarren kanalean.



#### Nahieran 'Goiena.eus' atarian

Goiena telebista nahieran ikusteko aukera dago *Goiena.eus* atarian; zuzenekoaz zein norberak aukeratutako saioa nahieran.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO: 943 25 05 05



Xabier Urzelai eta Mondrako kapitain Aitor Azkarate, plato berrian. GOIENA

## Kirola berbagai izan dadila, nahiz eta harmailak hutsik egon

Pandemiak eragin zuzena izan du kirol hitzorduetan, baina eduki eta dekoratu berriarekin itzuli da kirol saioa

**X.U. ARRASATE**

Berrasmatu egin behar izan dute *Harmailatik* saioa. Martxoan, bertan behera utzi zuten kirol saioaren emanaldia, eta halaxe egon zen hainbat hilabetez, ikas-turte berria hasi zuten arte. Orduan, baina, lehengo errezetak ez zuen balio: "Segituan konturatu ginen ligak berrekiten bazituzten ere COVID-19aren eragina handia izan zitekeela. Batetik, ziurgabetasun handia zegoen jokatu ahal izango zituzten partiduen gainean; pentsa, orain arte ez dute futbola hasi,

eta, gainera, herri mailako lasterketa guztiak ere bertan behera utzi zituzten. Eta denboraldi-aurreak erakutsi zigun egun batetik bestera partiduak bertan behera gera zitezkeela, asteburuko agendatik tira egiteak arrisku handiak zituela", adierazi du Xabier Urzelaiak.

Horregatik, astero platora gonbidatuak ekartzeaz batera, tarte berriak sortu dituzte: "Protagonista izan ziren tartean, esaterako, garai bateko kontuak ekartzen ditugu; harrera polita izaten dabilta elkarrizketok".


## 2030era begira, Debagoiena eraldatzeko proposamenak

Goiena telebistan D2030 ekimenarekin elkarlanean ekoiztutako saioa eskainiko da, hileroko

**Uxue Igarza Loiola** DEBAGOIENA

*Debagoiena eraldatzen* izeneko saioan, egungo gizartearen mui-nera egingo dute bidaia, eta gaur egungo arazo larri eta sendoenak eraldatzeko bidean jarriko dira.

Horretarako, Debagoiena 2030 ekimenak definitutako XXI. mendeko erronka globaletan jarriko da fokua: ekonomia zirkularra, digitalizazioa, inklusioa, hezkuntza, lanaren etorkizuna, energia, mugikortasuna... D2030en helburua arazo horiei erantzun komunitarioa emango dien "eraldaketa mu-



Lurreratzen atala grabatzen.

gimendua" sustatzea da, eta, horrenbestez, *Debagoiena eraldatzen* saioan, erronka horiek eta horiei aurre egiteko irtenbide posibleak gertutik ezagutzeko apustua egingo da.

Orain arte bezala, adituen, herritarren eta gazteen ahotsa jasoko dute saio bakoitzean. Zehatzago esanda, hiru atal izango ditu saioak: erreportajea, gai nagusia sakon jorratzeko; *Lurreratzen* atala, munduko beste txoko batzuetako esperientziak ezagutzeko; eta *Ikasmahaiaren bueltan*, bailarako ikasle eta gazteen ikuspuntua jasotzeko.

Eskualde "adimentsu", "inklusi- sibo" eta "klimatikoki neutrora" gerturatzeko beharrezkoak izango diren gakoak aztertuko dira, horrenbestez, hileko hirugarren egunean, 21:30ean, Goiena telebistan.

## Herri ordezkariekin berbetan gaurkotasunezko gaiez

**Oihane Agirre** ARRASATE

Goiena telebistaren klasikoetako bat *Harira*. Agintaldiz agintaldi, kolore ezberdinetako alkateak eta zinegotziak elkarrizketatu izan ditu, aro ezberdinetan, Eneko Azkaratek. Baita beste erakunde batzuetako ordezkariak ere. Hain justu, udazkenean alkateekin erronda egin ostean, udalez gairako beste

erakunde batzuetako arduradunak elkarrizketatuko ditu orain. Juan Inazio Perez Iglesias Jakiundeko presidente eta EHUKo errektore ohia izango da lehen gonbidatua martitzenean, hilak 5, (21:30). Zientzialaria, Biologian doktorea eta Fisiologian katedraduna, gaurkotasuneko kontuez jarduten du hedabideetan; COVID-19az ere jardungo dute.



Eneko Azkarate aurkezlea. GOIENA



### Hemen Debagoiena

- Egutegia.
- 18:00/20:00/22:00.


Txomin Madinak egutegia, astelehenetik egubakoitzera, aurkezten duen magazina da. Lantalde zabalaren arduratzen da saioaren ekoizpenaz, eta Debagoieneko herri guztietako informazioak du lekua bertan. Astero tartean ere baditu: martitzenetan, *Zirikatzan*, Aitor Agirianok umoretik egiten dituen inkestak; egutegian, Eneko Azurmendik munduan zehar diren debagoienarrekin egiten du hitzordua, hango berri izateko...



### Albisteak

- Egutegia.
- 15:00/16:00/17:00.

Egutegia albisteak jasotzen dituen informatiboa da. Astelehenetik egubakoitzera, arratsaldeko lehen ordutik aurrera (15:00) eta orduero eskaintzen ditu Goiena telebistak. Lekuko eta protagonisten ahotik kontatzen dira Debagoieneko egutegia albiste garrantzitsuenak. Albiste horiek 18:00etatik aurrera *Hemen Debagoiena* saioan ikus daitezke, bertan jorratzen diren beste gai eta formatuekin batera, modu osatuarekin.



### Harmailatik

- Astelehena.
- 21:30 eta 23:30.


Debagoieneko kirola da protagonista saio horretan. Pandemia egoerak nabarmen aldatu du asteburuko kirol hitzorduen agenda. Horregatik, saioak formatua berri du. Kirolari moduan sasoi batean protagonista izan ziren horiek lekua dute astero saioan. Gainera, kirol taldeek ere lekua izaten dute astero erreportajeetan. Eta elkarrizketaren tartean, bereziki kirol profesionalean jarduten dutenak jasotzen ditu.



### Harira

- Martitzena.
- 21:30 eta 23:30.

Eneko Azkaratek, Goienako edukietako zuzendariak, gidatzen duen elkarrizketa saioa da *Harira*. Berbagai diren gaurkotasuneko edukien gainean jarduteko, herri ordezkariak, erakunde publikoetakoak, sindikatuetakoak, kultur elkarteetakoak... agertuko dira martxitik aurrera, udazkenean denboraldian ibarreko alkateak pasa ostean. Juan Inazio Perez Iglesias Jakiundeko presidentea da denboraldiko lehen gonbidatua.



### Osoko bilkura

- Zapatuan 19:00.
- Domeka 12:00 eta 22:00.

Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko hileroko osoko bilkurak, oso-osorik, herri horretako berriemailearen eskutik. Eneko Azurmendi, Jokin Bereziartua eta Oihana Elortza, hurrenez hurren. Hileko lehen martitzenean izan ohi dira bilkurak Arrasaten; hileko azken astelehenean, Bergaran; eta hileko azken egunean, Oñatin. Gertatu eta hurrengo asteburuan ikus daitezke Goiena telebistan osoko bilkura horiek.





# 1990-1993 epealdiko errepassoari amaiera

'Hala bazan' saioaren hirugarren denboraldian ikusi ahal izango dira, esate baterako, duela hiru hamarkadako Maritxu Kajoi, San Martzialgo erromeria eta moda desfileak. Herriak eta jendea nola aldatu diren ikusteko modu paregabea izango da, gainera

**Julen Iriondo** ARRASATE

*Hala bazan* saioak hirugarren denboraldia du martxan. Goiena 2019ko udazkenean hasi zen, Arrasate Telebistaren artxiboko materiala erabiliz, aurreko mendeko 90eko hamarkadako nondik norakoak jasotzen dituen saioa ekoizten; ordu erdiko 40 atal inguru izango dira, denera, oraingo sortako dozena pasatxoak gehituta.

Aurreko asteetan santa-eskeei eta euskalgintzak antolatutako txiste jaialdiari eskainitakoak eman eta gero, datozen saioetan askotarikoak izango dira ikusgai. Ospakizunei eta Arrasateri dagokienez, adibidez, Maritxu Kajoi z gain, Besaideko Oroimen Eguna, Udalatx Eguna, unibertsitatean ospatutako San Pan-krazioaren omenezkoa eta Errozioa izango dira ikusgai, besteak beste; Bergarakoen artean, berriz, San Martzialgo erromeria, esate baterako, eta baita, beste gisa batekoen artean,



Udalatx Eguna. GOIENA

Txibisto dantzalekuaren itxi-rarena ere. Bergara zein Arrasateko moda desfileak ere izango dira saioetan.

## Gizarte gaiak

Momentuko gizarte eta politika gaiak ere izango dute tokia *Hala bazan* saioaren hirugarren sortan honetan; honela, drogekin eta

hiesarekin lotutakoak ez dira faltako, ezta emakumeen borrokari buruzkoak ere. Horiekin batera, 1991n EAJko zenbait zinegotzik jeltzaleek PSErekin egindako akordioa bete ez eta Nekane Iglesias sozialista alkatetzarik gabe geratu zenekoa – Xabier Zubizarretaren mesedetan – jasoko du saioak.



Uxue Alberdi. O.E.



Jon Garaño. O.E.

## Euskal kulturgintza oinarri hartuta, hausnarketa saioak

Eguenean, martxoaren 4an, Uxue Alberdi idazlearen elkarrizketa eskainiko da; Jon Garaño, berriz, martxoan

**Arantazu Ezkibel Galdos** ARRASATE Huhezik eskaintzen duen Euskal Kulturgintzaren Transmisioko graduondoa jasotakoak eskainiko ditu *EKT* saioak.

Euskal kulturgintzaren inguruko hausnarketak jasoko dira elkarrizketa bidez, eta, bide batez, eztabaidarako proposamena egin. *Euskal kulturgintza: nondik gatoz, nora goaz, nora jo beharko genuke?* Kulturgintzaren bueltan dabilten hainbat sortzaile, soziologo, historialari... pasako dira graduondotik; eta Goienak horien hitzak jasoko

ditu. Ordu erdiko elkarrizketak izango dira, eta tartean sartuko dira, *Apunteak* formatuan, gai baten inguruko hainbat iritzi.

## Eguenean, Uxue Alberdi

Orain arte, Maialen Lujanbioren, Harkaitz Canoren eta Gariren elkarrizketak eskaini dira. Datorren astean, Uxue Alberdi idazlearen txanda izango da. Genero ikuspegitik zentro eta periferia kontzeptuez arituko da Alberdi. Martxoan, besteak beste, Jon Garañoren elkarrizketa eskainiko da.



## Galdegazte

- Eguaztena.
- 21:30 eta 23:30

Gazteendako eta gazteekin ekoizten duten saioa, aurten zazpigarren denboraldia izango duena. Debagoieneko ikastetxeetako 14 eta 17 urte arteko ikasleak dira saioaren produkzioaz arduratzen direnak: saioko gonbidatua adostu, bideoak ekoiztu, gidoia idatzi... Behin gidoia lotuta, saioaren grabazioaren txanda da, baita urduritasunen momentua ere. Dena dela, urtez urte, kazetari harrobi bikaina dagoela erakusten ari da saioa.



## Hala bazan

- Egubakoitza.
- 21:30 eta 23:30

Arrasate Telebistako artxibotik tiraka ekoizten den saio arrakastatsua da. Oraingoa hirugarren denboraldia izango da, hamahiru kapitulu berrirekin datorrena. Otsailaren 5ean hasi zuen ibilbidea, eta orduan, Santa Ageda eguna izanik, ohitura herrikoi hori orain dela hogeita hamar urte zelan ospatzen zuten ikusi ahal izan zen. Datozen saioetan, denetariko irudiak eta protagonistak ikusi ahal izango dira *Hala bazan* saioan.



## Debagoiena eraldatzen

- Eguena (hileko hirugarrenean)
- 21:30 eta 23:30

Hileko hirugarren egunean estreinatzen den saioa da. Lehen atala otsailean estreinatu zen, pandemiari eskainitakoa. Bigarren saioan –martxoaren 18an eskainiko dea–, ekonomia zirkularraren gaia landuko dute. Hainbat ahots jasotzen dira erreportaje nagusian. Gazteen ahotsa ere jasotzen da saioan, eta atzerriko esperientzia baten berri ematen da. D2030 plataformarekin elkarlanean, Uxue Igarzak aurkeztuta.



## EKT

- Eguena.
- 21:30 eta 23:30

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak antolatutako Euskal Kulturgintzaren Transmisioko graduondora hainbat dira gerturatzen diren sortzaileak. Bertara datozen protagonistak horiek dira saioan protagonista. Otsailaren hasieratik, saioa Goienan ematen hasi zenetik, hainbat dira bertatik pasa diren protagonistak: Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Harkaitz Cano, Gari, Edu Apodaka eta Ainhoa Urien, besteak beste.



## Elkarrizketa

- Eguaztena.
- 21:30 eta 23:30

Euskal Herriko pertsona ezagunei elkarrizketak, gertutik ezagutzeko aukera ematen dutenak. Hainbat diziplinako pertsonaia elkarrizketatzen dira saioan: kirolariak, idazleak, aktoreak, abeslariak... Haiei elkarrizketa egiten ere, hainbat pertsona ezagun: Joni Ubeda, Juan Kruz Lakasta, Ane Zabala... *Tap* aldizkari digitalerako egiten diren elkarrizketak dira; oraingoan, telebistaz eman ahal izateko egokitua.



Mireia Gabilondo, Jokin Bereziartua eta Aranzadi ikastolako Eider Elorza eta Mikel Etxaniz, Goiena telebistako platoon. M. ARRAYAGO

## Badator 'Galdegazte 7': pandemiak ez dio eragin kazetarien harrobiari

Martxoaren 3an estreinatuko da 'Galdegazte' saioaren zazpigarren denboraldia, formatu eta dekoratu berriarekin, COVID-19ak behartuta; saioa aurkezle Jokin Bereziartuaren arabera, baina, pandemiak ez dio eragin "etorkizuneko kazetarien harrobi oparoari"

**Jone Olabarria** ARRASATE

Zazpigarren denboraldiari ekiten gertu dago Debagoieneko 14 eta 17 urte arteko ikasleak protagonista dituen *Galdegazte* saioa. Bailarako udalen, ikastetxeen eta Goiena Komunikazio Taldearen elkarlanari esker 2014-2015 ikasturtean abiatu zuen bidea *Galdegazte*-k, eta zazpi denboraldiotan hainbat aurpegi ezagun pasatu dira Goiena telebistako platotik; betiere, ikasle nerabeek aukeratzen dituzten galderei erantzuteko gertu. Sei denboralditan ikasle asko pasatu dira saiotik, Jokin Bereziartua aurkezleak azaldu duenez: "Denboraldi bakoitzeko hamar saio grabatzen ditugu; atzean utzi ditugun sei denboraldietan 56 programa izan dira, iaz pandemiagatik lau saio grabatu gabe geratu behar izan zirelako. Saio bakoitzeko gutxienez hiru ikas-

le egon izan direnez platoon, horrek esan nahi du modu zuzenean gutxienez 168 ikasle pasatu direla *Galdegazte*-tik. Zazpigarren denboraldirako grabaketak hasita daude eta Bereziartuak aurtengo gonbidatuetako batzuk iragarri ditu: "Ikasleek kultura arloko gonbidatuak aukeratu dituzte, gehienbat: Mireia Gabilondo aktore, gidoigile eta zuzendari bergararra, Mariasun Pagoaga aktore arrasatearra eta Yune Nogueiras eta Jon Olivares aktore bergararrak zazpigarren denboraldiko protagonistetako batzuk izango dira".

**MARTXOAREN 3AN  
ESTREINATUKO DA  
ZAZPIGARREN  
DENBORALDIA, MIREIA  
GABILONDOREKIN**

**Ikasleen eta gonbidatuen gustuko**  
Etorkizuneko kazetarien galderak ez dira gaur egungo kazetarien berberak, eta halaxe zioen lesio oso luze batetik futbol zelaira bueltan zetorren Realeko jokalaria Imanol Agirretxek 2018an, futbola utzi aurretik: "Galderak ezberdinak izan dira, eta jakin-min handia erakutsi dute. Egunerokotasunetik irten eta beste gai batzuk ukitu ditugu, eta hori asko eskertzen da".

Ikasleek grabaketak nola bizi dituzten galdetuta, honako hau adierazi du Bereziartuak: "Grabaketa baino astebete lehenago egiten ditugun prestaketa saioak oso emankorrak izaten dira, ikasleek saio barneratu dezaten. Grabatzen hasi aurretik oso urduri egon ohi dira, baina behin grabatzen hasita urduritasunak ahazten dituzte. Kazetarien harrobi ederra dugu bailaran".

## "Platoa eta errealizazioa ezagutu... nekez ahazten duten bizipena da"

JOKIN BEREZIARTUA 'GALDEGAZTE' SAIOKO AURKEZLEA


**Zer lortu du *Galdegazte*-k? Ekimen garrantzitsua da?**

*Galdegazte*-k gauza asko lortu ditu, baina esango nuke lorpen handiena dela gure komunitatea indartzearena. Garrantzi handia ematen diogu Goienan komunitateari, eta *Galdegazte* komunitatea egitearen adibide garbia da; are gehiago, 14 eta 17 urte arteko nerabeekin eta ikastetxeekin elkarlanean ari garela jakinda. Parte hartzea erabakitzen duten ikasleendako lehen aldian izan ohi da telebista plato bat, errealizazio gela bat edota erredakzio bat ezagutzen dutena, eta hori nekez ahazten den bizipena da. Saioa amaitu osteko gozatuak ez du preziorik. **COVID-19ak nola harrapatu zintuzten iaz? Ze eragin?** Grabaketa bete harrapatu gintuen eta egoerara moldatu behar izan genuen; betiere, eskolekin elkarlanean. Itxialdia



M.A.

amaitu ostean, bi saio grabatu genituen modu telematikoa, baina ikasleak etxetik galdetzen jartzea ez da gauza bera, saioaren funtsa galdu egiten da. Denboraldi berrian, ikasleak platoon egongo dira, saioa pandemiara egokitu dugu eta. **Pandemiara egokitu... Nola?** Dekoratu berritu egin behar izan dugu, distantziak bermatu eta grabatzen ari garenean maskarak kendu ahal izateko. Horregatik, hiru beharrez, bi ikasle egongo dira platoon.



Ander Monedero eta Jagoba Domingo, errealizazioan, ikasleekin. M.A.

## Telebistako 'tripak', bertatik bertara

Zazpigarren denboraldian, pandemiara egokitzeko, dekoratu goitik behera berritu behar izan du Goienak. Distantziak bermatuta maskara gabe grabatu ahal izateko, platoon hiru ikasle beharrez bi egongo dira aurretik, eurek aukeratutako gonbidatuekin eta saioa aurkezlearekin batera. Hori bai, beste bi ikasle errealizazio-gelatik jarraitzen dute saioa zuzenean. "Badira platoon egon nahi ez duten ikasleak, baina telebista izugarri interesatzen zaienak. Horregatik erabaki dugu beste bi ikasleri saioa errealizazio-gelatik zuzenean jarraitzeko aukera eskaintzea; telebistako tripak bertatik bertara ezagutu dezaten egin dugu, eta orain arte ikasleek egin duten balorazioa oso ona izan da", zehaztu du Bereziartuak. Martxoaren 3an (21:30 eta 23:30) estreinatuko da *Galdegazte*-ren zazpigarren denboraldia, Mireia Gabilondo aktore eta zuzendari bergararrekin.



# "Lodifobiak era berezian eragiten die emakumeei"

**MIJO LIZARZABURU** LODI-AKTIBISTA

Martxoaren 8aren harira, "gorputz subertsiboen politika" izango dute aztergai bihar, 11:00etan, Torresoroan. Sarrerak aurrez erreserbatu behar dira, liburutegira joanda

**T.M./J.O.** ANTZUOLA

Loditasunaren auzia "auzi politikoa" dela dio Mijo Lizarzaburuk. Izan ere, "lodi-aktibismoak gorputz heterosexual, funtzional, argal, zuri eta ederrek gaur-gaurkoz gizartean duten normaltasuna apurtzea" duela helburu aktibismoak azaldu du. Sare sozialen, mugikorren eta irudiaren testuinguruan, gorputz lodiek bizi duten atakaz ere ari-tuko da Lizarzaburu.

**Lodifobia beti egon da ala garaio-tako arazo bat da? Eta garaio-tako bada, zerk eragin du?**

Ez daude azterketa asko. Gertatzen dena da gaur egun irudiaren industriak duen indarrarekin, esaterako, autoerrepresentazioa sare sozialetan denbora guztian edo irudiaren garrantzia, badagoela gero eta garrantzi handiagoa eta indar gehiago gorputz lodiek okerrak diren uste horretan, eta, ondorioz, aldatu nahi izate horretan. Ez dut uste hau beti egon denik, ez da zerbait berezkoa. Izango du historikotasun bat, baina egia da, garaioan indar handia du. **Ikuspuntu politikotik heltzen diozu gaiari...**

Gizarteak markatzen du nolakoa den gorputz zuzena eta gorputz okerra, eta lodiak oker horien artean daude. Politikoa da honek



Lodi-aktibismoaz eta lodifobiaz jardungo du Lizarzaburu irudian. MIJO LIZARZABURU

interes batzuk ekartzen dizkiolako bai kapitalismoari, bai matxismoari, baita arrazakeriari ere. Gai hau sakonago landuko dugu Antzuolan.

**Zer esaldi, ekintza, detaile dira lodifobiaren erakusgarri?**

Ez dut uste esaldi zehatz bat edo jarrera jakin bat denik. Kultura oso bat dago. Horren adibide da gorputzaren arrazionalizazio matematikoa; pisua neurtzea, pisu hori gero alturarekin batera proportzioan sartzea, gero hortik grasa eta muskulua bereiztea, medikuntza eta auto-

zainketatik egiten den aitzakia-rekin. Arrazionalizazio horren aurrean eraten da dieten kultura, kirolarena... Kultura oso bat da, ez da hainbeste zerbait konkretua. Arrazismoarekin bezala gertatzen da, arazoa ez da hainbeste esatea "beltz putak!" edo halako esamoldeak, baizik eta arrazismo instituzionala, mugak...

**Nola eragin diezaioke kultura honek lodi dagoen pertsonari?**

Ez die soilik lodi dauden pertsonari eragiten, hortik harago doa, baina, bereziki, emakumeei

eragiten die. Emakume orok argaldu nahi du, estatistikoki oso gutxi dira argaldu nahi ez dutenak. Argaldu nahi izate hori eguneroko lodifobiatik sortzen da; etengabeko mezuak daude, bai familian, bai lagunekin, baita telebistatik, gizartean... Ez ligatzea ere, esaterako, mezu sozial bat da. Honek ekartzen duena autogorroto handia da, kultura oso batek legitimatzen duena.

**Hortik aldaketa nahia ere?**

Ez dizute utziko sekula zeure buruarekin gustura sentitzen, baizik eta etorkizunean izango zarenaren proiektio imaginario batekin sentitu beharko duzu gustura. Argaltasunaren promesetako horren menpeko izango zara, autogorroto handi baten bidez. Gaizki ikusten dena da emakumea ez makurtzea kontrol kulturalera. Hau da, zu oso kezkatuta bazaude bi kilo argaltzarekin eta zure bizitza osoa argaltze prozesu horren bueltan emango baduzu, ez dizu axola ez nor den presidentea, ez zer giro den kaleetan, zenbat pertsona ari diren hiltzen mediterranean... Zu zurearekin zaude; tofua jan behar dela, eta *cross-fit*-a egin behar dela.

**Adinean aurrera egin ahala kontzienteago gara gauzeekin... Baina honek guztiak haurrei eta nerabeei nola eragiten die?**

Haurrei, bereziki, gogorra egiten zaie, ez dutelako tresna kolektiborik; ez dago 4 urteko ume feministarik, baina badaude 4 urteko ume lodiak. Ez dute tresnarik lodifobia hori ikusi, salatu eta kritikatzeko. Amei buruz eta amatasunari buruz ere hitz egin nahi dut puntu honetan; biolentzien gurutzada bat gertatzen da hor matxismoaren eta lodifobiaren artean. Pertsona

bat lodi dagoenean uste da bere ardura dela loditasun hori, eta umeen kasuan ez da haurraren ardura bezala ikusten, baizik eta bere amarena. Matxismoaren eta lodifobiaren arteko nahaste indartsu bat gertatzen da, amari sorraraziz gorroto bat bere haurrerekiko, haurrak kargatu beharko duena geroago. Oso zaila da amek eta haur lodiek harreman sanoa izatea.

**Gizonezkoei eragiten die lodifobiak?**

Bai, eragiten die. Kontua da beste modu batean edo beste leku batean eragiten diela. Modernitatearen perspektibatik, gizonezkoak betidanik lotu dira arrazoimenarekin, lanarekin, ekintzarekin... Eta, aldiz, emakumeak estetikarekin, aisialdiarekin eta ondo pasatzearekin. Gizonak balio du egiten duenagatik eta emakumeak, duen itxuragatik. Hortaz, bai, eragiten die gizonei eta azaleratu egin behar da, baina gehiago eta zuzenean emakumeei eragiten die. **Gero eta gehiago ikusten dira ohiko argaltasun kanonek markatzen dutena baino pisu gehiago duten modeloak. Zein iritzi duzu?**

Modelo *curvy*-en inguruan, imajinatzen dut oso zaila dela industria horretan lan egitea gorputzera horrekin, eta hemendik, animo. Baina kanpainei dago-kienez, helburua oso argia da: loditasuna merkatuaren parte egin nahi dute, betiko ohiko neska-puska horri arropa saltzeko, baina baita bere lagun lodiari saltzeko ere.

**"GAIZKI IKUSTEN DENA DA EMAKUMEA KONTROL KULTURAL HORRETARA EZ MAKURTZEA"**

## Martxoaren 8aren bueltan, ekintza ugari Antzuolan ere

Elkarretaratzea eta manifestazioa antolatu dituzte Martxoaren 8rako, baita hainbat tailer osteko egunetan

**J.O.** ANTZUOLA

Mijo Lizarzaburuk bihar eskainiko duen hitzaldiarekin hasiko dute Antzuolan martxoan egingo dituzten saioen zikloa. Martxoaren 8an bertan, eguerdian, elkarretaratzea izango da, eta

ostean manifestazioa, 18:00etan hasita. Andramanuelek eta Udalak antolatu dituzte ekintzak. Martxoaren 13an, 18:00etan, Torresoroan, Mirari Martiarenaren eta Idoia Torregaraireren eskutik, *Luze edo motz* ikuski-

zuna izango da. Saioak euskara, berdintasuna eta genero ikuspuntua jorratzen ditu, eta askotariko gaiak taularatuko dituzte, hala nola hilekoa, emakumeen masturbazioa eta menopausia; betiere, umoretik landuta.

Egun berean, goizean egiteko asmoz, autoren eta bizikletaren zaintzak egiten ikasteko tailerra antolatu nahian dabilzala azaldu dute Andramanuelek, baina oraindik antolaketa lanetan dabilzta eta guztiz zehazteke dagoela aitortu dute.



Duela bi urteko Antzuolako elkarretaratzea, Zurrategin. GOIENA

# 50 urte dira trenak galdu zela

1971ko otsailaren 28a. Gero ere zerbitzuren bat eman zen arren, data hura har daiteke Maltzaga-Zumarraga burdinbidearen amaieratzat, trenaren bukaeratzat Bergaran; horrela du gogoan goiko estazioko buru izandako Carlos Gonzalezek

**Julen Iriondo** BERGARA

Maltzaga eta Zumarraga arteko edo Debako Trenea ere deitu zuten 1889an inauguratu zuten. Berariaz eratu zen enpresa bat azpiegitura sortu eta hornitzeko, eta zerbitzua emateko ardura ere enpresa hark berak zuen -1906an beste konpainia batzuekin bat egin eta Ferrocarriles Vascongados sortu zuten, egungo Eusko Trenbideak enpresa publikoaren aurrekaria-. Ferrocarriles Vascongados sortuta eta Bilbo eta Donostia arteko linea martxan, ibilbide nagusi haren adar bilakatu zen, Osintxutik sartu eta Deskargatik irten, Bergara eta Antzuola zeharkatzen zituena, Maltzaga-tik Zumarragarako; 22,7 kilometroko ibilbidea, denera, trenbide estuan. Ez nolanhiko ibilbidea, gainera, Debagoienean egiten zituen azken kilometroetan mendatea gainditu behar izaten zuen-eta, malda gogorrenkin eta 60 metroraingo erradioa zuten bihurtu zuten.

Osintxukoaz gain, beste bi geltoki zituen Debako Trenak udalerrian, Mekolaldekoa eta goiko estazioa; bidaiari bergarrei beste lau ibilbiderekin lotura egiteko aukera ematen zien, gainera: aipatutako Bizkaiko eta Gipuzkoako hiriburuen artekoarekin, Maltzagan; Vasco-Navarro zeritzonarekin, Mekolalden; eta Norteko Ferrokarrilarekin eta Urolako Trenarekin, Zumarragan.

**Carlos Gonzalez, geltokiko buru**

Carlos Gonzalezek nondarra den galdetuz gero, bere erantzuna: "Toki horietakoa guztietakoa!". Toki horiek guztiak zeintzuk diren? Bada, bera lanean jardundakoak; beti trenarekin lotuta: Elgoibar, Maltzaga, Duran-

go, Lemoa... Makinatxo bat leku, egia esanda.

Hor, tartean, Bergaran bizi izan zen sei urte eta erdiz Gonzalezek, familiarekin; goiko estazioan bertan bizi ere, hango burua zen eta: "Geltoki-buruoi doan uzten ziguten etxebizitza". Eta han harrapatu zuen Debako Trenaren amaierak, 1971n. Gogoan du nola, igande batez, otsailaren 28an, azken aldiz eman zion han tren bati abiatzeko baimena; eta nola "Bergarako bizilagun ugari" joan ziren azken tren hari agur egitera: "Denek egon nahi izan zuten bertan". 11:37an abiatu zen tren hura Zumarragatik, eta 12:12an irten zen Bergararik, Maltzagarantz; orduan bukatu zen Carlos Gonzalezek Bergarako egonaldia.

Gonzalezek Elgoibarren egin zituen bere azken lan urteak, trenarekin lotutako lau hamarkadako ibilbidearen ostean -geltokiko buru bai, baina trenbideak egiten, txartelak saltzen... ere ibilitakoa da, 18 urte zituenetik-, eta 1993an erretiroa hartu zuen; orduan bai, orduan hartu zuen huraxe, Elgoibar, bizitoki egonkor, gaur arte. 1932an Irunen jaioa, leku askotan bizi izan zen, beraz, lanerako adina izan zutenetik denetan trenak eramanda; sortzetik izan zuen burdinbidearekiko lotura, aitzak ere hari lotuta egiten baitzuen lan.

**Poliki-poliki, hiltzen**

Carlos Gonzalezek oso iltzatuta du 1971ko otsailaren 28 hura.

**22,7 KILOMETROKO IBILBIDEA ZUEN TRENAK, ETA DESKARGA MENDATEA GAINDITZEN ZUEN**

Egia da, dena dela, Debako Trenea poliki-poliki joan zela hiltzen, eta data haren aurretik zein ostean badirela kontuan hartu beharreko beste batzuk, esanguratsuak; bai, baita ondoren ere, hurrengo urteetan ere ibili baitzen tren bakarren bat ibilbide hartan.

Azpeitian egoitza duen Burdinbidearen Euskal Museoko zuzendaria da Juanjo Olaizola, ikertzaile eta historialaria; bereak dira azalpenak: "Trafikoa beherantz zihoala-eta Ferrocarriles Vascongados konpainiak Mekolalde eta Zumarraga arteko zerbitzua bertan behera utzi zuen 1967ko irailaren 11n; emakidagatiko betebeharrak betetzeko egunean behin ibiltzen zen tren misto bat zen salbuespena. Baina hau mantentzea ere ez zen errentagarri, eta konpainiak zerbitzua aldi baterako etetea eskatu zion Herrilaretarako Ministerioari 1969ko urtarrilaren 31n".

Ia bi urte pasa ziren Ministerioak baimena ematerako -1970eko abenduaren 7an-, eta apur bat gehiago gauzatzerako, 1971ko otsailaren 28 hartan. "Maltzaga eta Mekolalde arteko zerbitzua mantendu egin zen; hori bai, eguneko bidaiarientzako tren batekin eta merkantziararako beste batekin soilik. 1972ko ekainean, galerak hazi eta hazi ari zirela-eta Ferrocarriles Vascongados konpainiak ustiapen orori utzi zion, eta FEVE Estatuko enpresa publikoak hartu zituen bere gain. Maltzaga eta Mekolalde arteko zerbitzu denak, behin behinean, bertan behera utzi zituen FEVEk, 1974ko apirilaren 1ean. Eta 1975eko martxoaren 1ean behin betiko itxi zuten Maltzaga eta Zumarraga arteko linea".



Azken trenea goiko estaziotik abiatzear; Carlos Gonzalez, hainbat emakumerekin. C.G.



Carlos Gonzalez, astean, Elgoibarko geltokian. J.I.

**'La Voz de España'-k jasotakoa**  
Garai hartako *La Voz de España* egunkariak honelaxe jaso zuen Mekolalde eta Zumarraga arteko zerbitzuaren "aldi baterako etetea" 1971ko martxoaren 2ko zenbakian, Gipuzkoako herrietako berriei eskainitako orrial-

**IRUNEN JAIO ETA HAINBAT LEKUTAN BIZI IZAN DA CARLOS GONZALEZ, BETI TRENARI LOTUTA**

dean, Santos Alustiza berriemailearen hitzetan: "Galerak dituzten trenbide estuko ferrokarrilekiko neurri murriztaileak errukirik gabe ari dira gauzatzen, eta urte gutxian bi dira gure herrian kendu dituzten burdinbideak, erabiltzaileei kaltea eraginez, uda sasoiari, batez ere, tren horiek ehunka bidaiari eramaten zituzten-eta gertuko hondartzetara eta Arabako mendi zein urtegieta. Mekolalde eta Zumarraga lotzen dituen trenarekin hartu dituzte muturreko neurri hauek; aurreko





La Voz de España-ren 1971ko martxoaren 2ko albistea. BURDINBIDEAREN EUSKAL MUSEOA



Goiko estazioa, 1970eko apirilean. LORENZO LASKURAIN, BERGARAKO UDAL ARTXIBOKO BILDUMA

domekan kendu zuten zerbitzua, euri-jasa izugarri batekin, hodeiek malkotan agurtu nahi izan balute bezala, bagoiak Zumarragan ateratako eta azken geltokirainoko azken txartel hura gorde nahi zuten bidaiariz beterik zirela, modu horretan biharko egunean efemeride hura gogoratu nahiko zuketena bidaiariz beterik. Gure herrirako bidean, zenbait geltokitan, trenaren zetozen langileei hamarretakoarekin egin zieten harrera base-rritarrek, gertuko herrietako azoketara joateko hainbeste aldiz erabili izan zuten garraio-bidea kendu izanagatik sortutako sentimenduekin era maitekor horretan bat eginez. Goiko estazioko buru Carlos Gonzalezek, uniforme bikain zermala, hunkituta eta apur bat triste ere bai itxuraz, azken aldiz agindu zuen trenaren abiatzea. Ehunka bidaiari jaitziak ziren bagoietatik, argazki makinekin hartzeko tren haren erabiltzaile askorendako malenkoniatsua zen gertaera hura".

#### Itxieraren arrazoiak

Bidaiari eta merkantzia "oihalkiak eta burdinazko tresnak, ikatza eta txatarra, bereziki" kopuruaren jaitziera handia izan zen itxieraren arrazoa, Carlos Gonzalezen esanetan "errepide bidezko komunikazioa hobetu izanagatik".

Eta, honela, aurreko mendeko 70eko hamarkada hartan trenik

gabe geratu zen hainbat urtez burdinbidez inguraturik ez eze zeharkaturik ere egondako herria, Bergara. Izan ere, 1967aren amaitu zen Vasco-Navarro trenaren ibilbidea, eta urte batzuk geroago Debako Trenarena: "Hiru burdinbidetako zazpi geltoki izan zituen Bergarak: Osintxukoa, Mekolaldekoa, goiko geltokia, behekoa, Labegaraiekakoa, Elorregikoa eta Aizpuru-txokoa, Urolako trenarena; azken hau ere Bergarako lurretan zegoen". Hainbeste edukitakoa, eta dena galdu; askotariko egin-beharretarako, lanerako erreportajerako Carlos Gonzalezekin Elgoibarren elkartuta, dio hainbat lagun joaten zirela, adibidez, hara, Sigmara- eta aisialdirako erabilia, trenik ez ordutik aurrera.

Itxiera ostean, Carlos Gonzalez saiatu zen Maltzaga eta Eskoriatza artean trena berrezartzeko gestioak egiten: "Hainbat alkaterekin bilerak ere egin genituen, baina ez zuten emaitzarik eman". La Bergaresaren autobus zerbitzua martxan zegoen ordurako, eta bezero asko kendu zizkion trenari: "Hark hondatu zuen dena".

## BIDAIARIEN ETA MERKANTZIEN KOPURUA JAITSI IZANA IZAN ZEN IXTEKO ARRAZOA

## Trenaren trazatua, bide berde

2013an onartu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusiek, behin betiko izaeraz, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana. Haren arabera, 2021a epemuga jarrita, bide berde bilakatu behar du bere garaian Maltzaga eta Zumarraga arteko trenak egiten zuen bidea. Egin beharreko lanak bi laurtekotan banatzen zituen planak, eta bigarren laurtekoan egitekoak ziren Maltzaga eta Soraluez artekoak eta Bergaratik Zumarraga artekoak –Soraluez eta Bergara artekoa, badago–. Kontua da bigarren laurtekoaren amaieran lanok egin gabe daudela oraindik.

Dena dela, eta Debagoieneko zatiari dagokionez, Bergara-Zumarraga zatiko Antzuolako Galardetik Deskargarainokoa da egiteko falta dena, eta Antzuolako alkate Beñardo Kortabariak ziurtatzen jo du "aurten" egingo dela, eta horretarako hitzarmen bat iragarri du etorkizun hurbilerako.

Horren aurretik, hori bai, lehenengo lana izango da Jauregiko tunela konpontzea, 2019ko abenduan izandako lur-jausi baten ondorioz itxita baitago. Egunotan hasiko da Gipuzkoako Foru Aldundia tunela konpontzen.



Bide berdearen egoera. GFA



Goiko estazio ingurua. JOKIN BEREZIARTUA

**Estazioko egokitzapena, geldi** Bestalde, Bergarako aurreko Udal Gobernuak bazuen asmoa goiko estazioa aisialdirako egokitzeko. 2019an, berri eman zuen lanon lehen fasearen proiektua idazten ari zela AT2 enpresa.

Lanik ez zen, ordea, hasi, eta orain, berriena da gaur egungo

Udal Gobernuak ez duela, oraingoz, asmo haiekin jarraitzeko intentziorik. "Ez dago lehenetsun artean", adierazi du egungo Udal Gobernuak. Dena dela, egungo agintariak atea zabalik uzten dute etorkizun baterako, kontuan izanda, gainera, prozesua martxan jarri zela.





Haima jarrita duen Irala kaleko taberna baten terraza; estalpeak jartzeko, adibidez, ordenantza aldatu beharra dago. IMANOL BELOKI

# Pandemiarako terrazen araudia aldatzera doaz, akordio politikorik gabe

Ostalariek behar dituzten terrazetarako ordenantza aldaketa bat egin behar dela dio Udal Gobernuak, "pandemiak kaltetu duen sektoreetako bat" den ostalaritzak "laguntza gehiago" behar duela iritzita; EAJk dio aldaketa proposamena "oso berandu" datorrela

## Jokin Bereziartua BERGARA

Udal Gobernuak terrazen ordenantza aldatzea proposatu zuen astelehenean udalbatzaren aurrean, ostalariei laguntzeko "bide bat" irekitzeko asmoz. EH Bilduko bozeramaile Nagore Iñurategiren arabera, pandemia hasi osteko lehen diru-laguntza lerroa, zergetan eta tasetan aurreztutakoa eta bigarren laguntza lerro baten jasotakoa aintzat hartuta, 4.000 eurotik gora jaso ahal izan ditu ostalari bakoitzak eta 70 establezimenduri "banakako azterketa" egin zaie. Terrazei begira aurreikusten diren aldaketan artean honako hauek daude: alboak manparekin itxita izango dituzten karpak edo toldoak jartzeko aukera; goizeko irekiera ordutegia aurreratzea; berogailuak jartzeko aukera eta terraza handitzeko aparkalekuen erabilera baimentzea.

**Ostalariek: terrazak eta laguntzak** EAJko eledun Elena Letek, berriz ere ostalariendako Udalaren partetik "laguntza zuzen gehiago" eskatzeaz gain, esan zuen aldaketa "oso berandu" datorrela: "Ostalariek behar dutena da jakitea zer-nolako terrazak jar ditzaket. Esateko alkateak dekretuz izango duela baimena terrazak jartzeko ez dira hamar hilabete behar". Jeltzaleek "denbora larregi" igaro dela uste duten bitartean, EH Bilduk argudiatu zuen gaiak "lanketa sakona" eskatzen duela. "Aztertu behar dira Udalaren baliabideak

**EH BILDUK DIO 4.000 EUROTIK GORA JASO AHAL IZAN DITUELA OSTALARI BAKOITZAK PANDEMIA HASIERATIK**

eta sektore horren beharrak zeintzuk diren. Ordenantzaren egokitzapena adierazpide bat da egoera berrira egokitzen jakin dugula, gauza asko hartu behar dira eta kontuan. Berandu datorrela? Beste instituzio batzuetatik beranduago etorri dira laguntzak". 2021eko aurrekontuan jasota dago "laguntza zuzena" ematea taberna itxi behar izan duten ostalariei. Guztira, 70.000 euro, honela banatuta: bi langile edo gutxiago dituztenei, 500 euro, eta hirugarren langiletik aurrera, 150 euro gehiago. Alokairua edo kreditua ordaindu behar badute, beste 200 euro. Gehienez jasoko den laguntza 1.200 euro izango da, eta ostatuei zein banatzaileei lagunduko zaie azaroko fakturazioa %75 edo gehiago jaitsi bazaie. EH Bilduk alde bozkatu zuen, EAJk kontra eta PSE-EE abstenitu egin zen.



Gorka Artolaren (EH Bildu) eta Elena Leteren (EAJ) arteko eztabaida. A.M.

## EH Bildu eta EAJ: prozedura arazoak

Astelehenean argi geratu zen, beste behin, EH Bilduk eta EAJk prozedura arazoak dituztela. Jeltzaleak ez datoz bat Gobernuaren batzorde antolaketarekin eta horrek agerian utzi zuen lankidetzara asko zailtzen dela. EAJk irmoki salatu zuen bereziki "gizarte zerbitzuetan aditua" den zinegotzi bat batzordetik kanpo utzi izana: "Gizarte Zerbitzuak errotan zituen gure zinegotziak ez dauka aukerarik batzordearen egungo ordutegian joateko. Parte hartzea ukatu egin zaio; penagarria da". EH Bilduk dio ez dutela parte hartzerik ukatu: "Gezurra da parte hartzea ukatu dugula. Konpatibilitate arazo batzuk daude ordutegietan eta egutegietan, ez da ez diegula parte hartzen uzten. EAJko zinegotzi horren parte hartzeak gure zinegotzi batek parte ez hartzea ekarriko luke; gainera, aukera izan badute batzorde horretan beste zinegotzi batzuekin parte hartzeko".

## Ortuen gaia kalera atera nahi du EAJk

Galderen eta eskaeren tartean, EAJko Joseba Elosuak eskatu zuen ortu komunitarioen gaia kalera ateratzea, eta eguaztenean agerraldi bidez gaian sakondu zuten jeltzaleek: "Herritarrentzako ortu ludikoak eskaintzeko ekimenarekin bat egiten dugu. Prozesua parte hartzearen bidez garatzea eskatzen dugu, herritarren nahiak entzun eta asebetetzeko, eta gardentasuna bermatzeko". Aukeretakoa bat Boluan ikusten dute: "Lur-jausia egonkortzeko aukera bat ortuak egitea izan daiteke, beste interbentzio batzuen artean". EAJk uste du herrian badaudela beste gune apropos batzuk ere, eta horregatik abiatu nahi dute partaidetza prozesu bat. Bestalde, jeltzaleek, "lanerako gertu" daudela berrestez gain, adierazi dute EH Bilduk "gehiengo osoarekin eta oposizioari zein herritarrei bizkarra emanez" gobernatzen duela.

**Monzonen etxea, eztabaidagai** Bestalde, La Caixarekin, Caritasekin, Lokatzarekin, Soraluze kooperatibarekin eta Oloso Dorrea Fundazioarekin hitzarmen bana adostea onartu zuen udalbatzak asteleheneko bilkuran. Eztabaida handien eragin zuena Oloso

**UDAL AURREKONTUA: TABERNA ITXI BEHAR IZAN ZUTENEI, UDALAK 1.200 EURO EMANGO DIE AURTEN, GEHIENEZ**

Dorrearen hitzarmena izan zen: EH Bilduk alde bozkatu zuen, EAJk kontra eta PSE-EE abstenitu egin zen. Jeltzaleek salatu zuten zehaztasunik ez dagoela Udalar urtean 20.000 euro eragingo dizkion hitzarmen batean: "Ez da zehazten bisitetan zer ikusi ahalko den... Bestalde, bisitako Udalak 46 euro ordainduko ditu, hori ez da inon ikusi". EH Bilduk dio "aspaldiko laneketa batetik" datorrela akordioa eta publikoari itxita egon den Monzonen etxeko ateak irekitzeko "berebiziko interesa" duela.





Bizipoza elkarteko kideak eta Ndank Ndank elkarteok, Bergarako Udaleko eta Jarduneko ordezkariekin, aurkezpenean. B.U.

# Bizipoza elkartearen jaia, martxoan zehar Bergaran

Bizipozaren barruan dauden elkarten errealitatea ezagutzeko, askotariko ekitaldiak egingo dituzte martxo osoan. 'Mundu berri bat guztiontzat' ekitaldia egingo dute martxoaren 13an eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna martxoaren 14an

**J.O./T. M. BERGARA**

Hasiera batean joan den irailean egin behar zuten Bizipoza jaia martxoan zehar egingo dute Bergaran, formatua moldatuta. Izaera bereziko gaiak lantzen dituzte, eta haurren eta familien "ongizatea" helburu duten 35 elkarte hartzen ditu bere baitan Bizipoza egitasmoak; tartean, Bergarako Ndank Ndank.

## Euskal Herri osora zabaltzeko

Hain zuzen ere, elkarte horrek antolatu ditu martxorako ekitaldiak Jardunekin eta Udalarekin batera. "Ezberdinen arteko elkarlana sustatzearekin batera, ekimen honen bidez Bergarako haurrek eta gazteek modu ludikoan hainbat gai eta balio lantzeko aukera izango dute, etorkizunean heldu izango diren horiek balioetan oinarritutako heziketa izan dezaten", azaldu du Gorka Artola alkateak.

Bizipozaren barruan dauden elkarten errealitatea ezagutzeko askotariko ekintzak

egingo dituztela azaldu du elkarteko Leire Elizegik, bai bergararentzat, baina baita kanpokoentzat ere: "Gaur egun zaila izanda ere Bergaran Euskal Herri osoko jendea biltzea, bi norabideko jaia izango da, herrian bertan egingo dena, baina online bidez ere zabalduko dena".

## Martxo osoan

Prestatu dituzten ekintzen artean, herriko ikastetxeetan egingo dituzten tailerrak daude: "Aspanogik, Biak Batek, Ndank Ndank eta Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioak emango dituzte tailerrak, eta, Bizipozaz gain, Jardun eta Kantu Kantoi elkarteek tailerrak eskainiko

**EGINGO DITUZTEN  
EKITALDIETARAKO  
SARRERAK HILAREN  
3AN JARRIKO DITUZTE  
SALGAI INTERNETEN**

dituzte herriko eskoletan". Martxoan zehar, bergararentzat modu presentzian eta kanpokoentzat online egingo duten Bizipoza tribiala izango da beste ekintzetako bat.

## 'Seminarixoa.eus'-en salgai

Hilaren 13ko eta 14ko asteburuan, hainbat ekitaldi izango dira. Senegalgo *yassa ganar* platera oinarri izango duen bazkari birtuala egingo dute eta hilaren 13an, pilotalekuan, *Mundu berri bat guztiontzat* ekitaldi irekia egingo da. Aroa Elorzaren poesiek eta Indai taldearen musikak ere jantziko dute ekitaldia.

Hurrengo egunean, martxoaren 14an, bestalde, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan ikuskizuna egingo da Udal Pilotalekuan. Martxoaren 13ko eta 14ko ekitaldietarako sarrerak martxoaren 3ean jarriko dira eskuragarri: zapatuan, sarrera doan izango da, eta pailazoan ikuskizunerako, aldiz, sei euro ordaindu beharko dira.

## Hitzaldi sorta bukatuta, herrian "interesa piztu" duten gaiekin

Urtarrilaren 12an hasita, lau saioko hitzaldi-sortarekin trantsizio sozioekologikoaren gaia landu nahi izan dute

**J.O. BERGARA**

Begarako Udalak eta Laboratorium museoak antolatutako trantsizio sozioekologikoari buruzko hitzaldi sortaren azken saioa egin dute asteon. Saipei itxiera emateko, energia komunitateak eta Goiener izan zituzten hizketagai martitzenean.

Goiener kooperatibako Oier Etxebarria eskaini zuen hitzaldia: "Goienerren balioak eta proposamenak kontuan izanda, energia berriztagarrien komunitateak landu ditugu. Labur azalduta, eta oinarrian, erakunde bat da energia berriztagarrien komunitate hori".



Oier Etxebarria, hitzaldian. BERGARAKO U.

## Saiok, "oso aberasgarriak"

Gizarte moduan izango diren erronkak mahai gainean jarri eta alternatibak ezagutzeko unea dela iritzita, saiok erantzun positiboa izan dutela azaldu du

Gorka Artola alkateak: "Erantzunak argi erakutsi du bada-goela interesa gai hauen inguruan jardun eta alternatibak lantzeko, eta, alde horretatik, oso aberasgarria iruditzen zaigu". Datozen hilabeteetan halako lanketekin jarraitzeko asmoa adierazi dute.

## OHARRAK

### Bergara Herri Hezitzaileak antolatuta, hitzaldia

*Jolasaren garrantzia eta herri hezitzaileak* izeneko lehen saioa datorren egunean, martxoak 4, egingo dute, Seminarixoan. Olgeta egitasmoko sortzaile Itsaso Pagoagak eskainiko du.

### 'Bizirik' elkartasun jaialdia bihar frontoian

Besteak beste, Talka eta Indai musika taldeek eta Moises Aspiazu dantza taldekoek hartuko dute parte. Azken sarrerak salgai Arranon. Ateen irekiera 16:30era aurreratu dute.

### Pol Pol Mendizale Taldearen ohiko batzarra

Martxoaren 1ean egingo dute, San Pedro kaleko egoitzan, 18:00etan eta 18:30ean. Edukiera muga 25 pertsonakoa da.

**UGARTE**  
AROTEGIA · ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak  
 Horma-armairuak  
 Altzariak neurria  
 Ateak · Eskailerak ·  
 Leihoak · Tarimak ·  
 Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**AROTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
aroztegia@ugartearoztegia.com



Enpresa Registrada 1190/025

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Elhuyar Aholkularitza zerbitzu-ko Amaia Zarrabeitiaren eta Idurre Zuazagastiren eskutik bi orduko lan-saioa egin zuten, hilaren 18an, 24 herritarrek Espaloian. *Danon artian Elgeta 2030* partaidetza prozesuaren lehen herri batzarra izan zen, eta beste bat dago iragarrita martxoaren 4rako.

Helburua da etorkizunari begira Elgetak dituen erronka modu adostuan identifikatzea. Horrekin batera, aurrera begirako lan-lerro nagusiak finkatzea eta horiek aurrera eramateko proposamen zehatzak jasotzea. Hain zuzen ere, Udalak egitekoa duen gogoeta estrategikorako oinarriak jartzea.

Lan-saioko lehen egitekoa izan zen Udalaren enkarguz Elhuyar Aholkularitza zerbitzuak prestatutako galdetegitik jasotako erantzunak eta balorazioak ezagutzea. Aurkezpena hasi aurretik, hainbat datu orokor eman zituen Zarrabeitiak. Azaldu zuen 64 inkesta bete direla. "Gehien-goak euskaraz bete duzue -64 lagunetik 51-, eta, adinari dagokionez, erdia 41-65 urte bitartekoak izan zarete -64tik 32-. Sexuari dagokionez, emakumeek bete dute, gehienbat -64tik 39-". Adinari dagokionez, ohartarazi zuen 25 urtetik beherakoak eta 66tik gorakoak zazpi bakarrik izan direla; hiru 25 urtetik beherakoak eta lau 65etik gorakoak.

Galdetegiak, bestalde, sei arlo bereizten zituela gogorarazi zuen, eta jasotako erantzunen inguruko lehenengo irakurraldia egin zuen Zarrabeitiak alorrez alor. Ondoko koadroan dago jasota laburpena.

#### **Galdetegian jasotako ekarpenak**

Galdetegiko *Zer dugu hobetzeko?* galderak iritziak eta proposamenak egiteko bidea ematen zuen, eta 60tik gora ekarpen jaso dira. Horien aurkezpena ere egin zuen Zarrabeitiak. Espaloia kafe antzokiari egin zion lehen erreferentzia: "Nahiko proposamen orokorra da heldu egin behar zaiola gaiari eta antzokiaren erabilerari buelta bat eman behar zaiola". Kultura eskaintzari dagokionez, "zabalagoa, anitzagoa eta adin tarte gehiagorentzako" izan beharko lukeela jaso da. Ekintza "solteak" egiten direla eta marko baten barruan egin beharko lirakeela jaso da, eta, "akaso, aurre-



*Danon artian Elgeta 2030* partaidetza prozesuko lehen bilera irekia, aurreko egunean, Espaloian. L.Z.L.

## Elgetak dituen erronka nagusiak identifikatzeko bigarren lan-saioa, laster

Martxan da 'Danon artian Elgeta 2030' parte hartze prozesua. Hilaren 18an egindako lehen herri batzarrean jakin ziren herritarrek betetako 64 galdetegiak ateratako emaitzak. Martxoaren 4rako dago iragarrita bigarren eta azken herri batzarra

kontu handiagorekin eta teknikari edo dinamizatzaile batekin". Jaiak indartu egin behar direla ere jaso da, "behera etorritako daudelako". Liburutegi zerbitzuaren ordutegia zabaltzeko proposamena ere iritsi da.

Goizez ere zabaltzeko eskaera egin da; batez ere, azterketa sasoiaren dauden ikasleei begira.

Hezkuntzarekin lotuta, eskola handitzeko eta hezkuntza eskaintza osagarria bultzatzeko proposamenak jaso dira, non

haur eskolak, eskolak, Udalak, guraso elkarteak eta ludoteka-gazteleku zerbitzuek planifikazio bateratuagoa izango luketen.

Osasun arloan, kontsultak zaharberitzeko premia duela adierazi du hainbatek, zehaztuz

medikuaren eta gaixoen arteko elkarrizketak entzuten direla itzarote-gelatik. Eta bada pediatria zerbitzua indartzeko eskatu duenik ere, egunero ezin bada gutxienez astean zenbait egun ezagutzeko. Haurrekin jarraituz, haur parkeren bat estaltzeko eskaera jaso da -aurreikusita dago Maalako parkea estaltzea-.

Kirol instalazioak hobetzeko proposamenak ere egon dira, eta, horrekin batera, gimnasioa modu librean erabiltzeko aukera zabaltzeko. Eta nabarmendu da bizikletendako bidegorri seguru bat jartzeko eskaera.

Bestelakoetan, Gas Naturalea pasatzeko aukera lantzeko, Kanpanzarko bidearen egoera hobetzeko lan egiteko, garraio publikoa hobetzeko eta enpresek herritarrek kontratatzen diren aukera lantzeko ekarpenak ere jaso dira galdetegiaren bidez.

#### **Lanketa talde txikietan**

Talde txikietan banatuta egin zuten lan-saioaren bigarren zatia bertaratutakoek. Jasotako ekarpenak aztertze eta baloratzeko unea izan zen, eta martxoaren 4an izango du jarraipena. Bigarren batzar horretan ere parte hartzea oso garrantzitsua dela esan du Ane Bilbao zinegotziak. "Etorkizuneko Elgeta nolokoa nahi dugun denon artean erabakitze eta eztabaidatzeko aukera izango da. Datuen urteetarako herriaren proiektuen eta aurrekontuen noranzkoa zehaztuko dugu, eta guztiok dugu zer esana".

Herritarrek egindako proposamenen inguruan esan du kontuan hartzeak direla guztiak. "Horretarako banatzen da galdetegiak eta eskatzen da herritarren parte hartzea. Guztiok dugu iritzi bat eta guztiak dira zentzuzko eta zilegi. Egingarriak ote diren beste kontu bat izango da. Bota diren proposamen batzuk ez dira Udalaren eskumenekoak, beste batzuek ez dute jasagarritasunik Elgeta bezalako herri txiki batean, eta berriz ere esango dut, baliabideak oso murriztak dira. Baina, esan bezala, denak aztertuko dira eta ikusiko dugu prozesuak zer gehiago ematen duen datorren astean. Batzar hauek pasatakoan, lan asko galdutako zaigu egiteko. Guztia aztertu ondoren, lehentasunak ezarri beharko ditugu eta prozesuari ahalik eta etekinik handiena ateratzen saiatuko gara".

### **Galdetegitik jasotako emaitzak, alorrez alor**

#### **Kultura eta hezkuntza**

"Nahiko ebidente jasotzen da antzokiak duela ebaluaziorik eskasena, eta bada landu beharrezkotzat ikusten den elementu bat. Kultura eskaintzan denetako iritziak daude, baina balorazio orokorra nahiko eskasa da. Jaiak eta ospakizunen atalean denetariko iritziak daude, baina asko dira *nahiko* eta *eskas* baloratu dutenak. Baloraziorik onena liburutegiak jaso du. Balorazio onak dute, baita ere, ludoteka-gaztelekuak eta haur eskolak".

#### **Osasuna eta zaintza**

"Baloraziorik txarrena mediku kontsultak du, eta onena eguneko zentroak. Ona dute,

baita ere, bai udal gizarte zerbitzuek bai etxez etxeko zerbitzuak. Hainbatek baloratu barik utzi dituzte atal batzuk. Zerbitzuen ezagutzarik eza egon daiteke horren atzean".

#### **Kirola eta aisialdia**

"Baloraziorik eskasena kirol instalazioek dute, eta onena natura-guneek. Balorazio onak dute ere paseo-guneek zein haur parkeek".

#### **Lurralde eta azpiegitura-antolamendua**

"Nabarmena da banku zerbitzua gaizki baloratzen dela. Garraio publikoak ere ez du balorazio onak. Detektatzen da herri basoen inguruko ezagutzarik

eza dagoela. Balorazio onak dute argiteriak, konektibitateak eta garbitasunak".

#### **Enplegua eta lana**

"Askotariko erantzunak daude eta zatikatuta daude alor ezberdinak. Merkataritzak eta ostalaritzak dute baloraziorik eskasena, eta berdin lan merkatuak sarbideak".

#### **Herri identitatea / oinarriak**

"Hemen ondo baloratzen dira hainbat alderdi. Eskasena, akaso, partaidetza-auzolana eta euskararen kale erabilera daude. Berdintasunak du baloraziorik onena. Horrekin batera, inklusioak, tolerantziak eta herri giroak".




## "Zenbat eta iritzi eta proposamen gehiago egon, hobeto"

ANE BILBAO LARRAÑAGA KULTURA ETA EUSKARA ZINEGOTZIA

Udalak ahalik eta etekinik handiena atera nahi dio prozesuari. **Zein balorazio egiten duzue egon den parte hartzearekin?** Herritar guztiek izan dute galdetegi bat betetzeko aukera, eta, adin tarte bateko herritarren iritziak faltan igarri ditugun arren, jasotakoekin gustura gaude. Lehen herri batzarreko parte hartzearekin ere pozik gelditu ginen, ulertzen baitugu gaur egungo bizimoduarekin guztioi kostatzen zaigula horrelako prozesu batera hurbiltzea. Hala ere, 25 urtetik beherako herritarren parte hartze baxua nabarmenduko nuke etorkizuneko Elgeta nolako izango den erabakitze prozesuan, esateko asko dutela uste baitut.

### Liburutegia, haur parkeak, haur eskola eta eskola daude baloratuen artean.

Guk ere argi ikusten dugu zein zerbitzu diren egokien funtzionatzen dutenak. Beti dago zer hobetu. Urteotan zerbitzuak indartzen, eskaintza zabaltzen eta Udalaren egoera kontuan hartuta denon beharretara egokitzen joan



U.S.

gara. Pozten naiz herritarrek ere horrela baloratu izana.

### Kirol instalazioak eta antzokia dira okerren baloratuak.

Beti bueltaka dabilten gaiak dira. Argi genuen antzokiaren kasuan balorazioa negatiboa izango zela. Heldu beharreko kontua dela aipatu da hainbat galdetegitan eta kontuan hartu behar da saiakera ezberdinak egin direla urteetan zehar. Beti mahai gainean dagoen gai bat izan da, inoiz alde batera utzi ez den kontua, eta ikuspegia aldatzeko ordua iritsi da. Esperantza dut balorazioez aparte proposamen ezberdinak aterako direla batzar eta galdetegi hauetatik. Kirol instalazioen kasuan ere joan gara Udalak dituen baliabideen barruan hobekuntzak egiten, eta gehiago izango dira epe motzean. Hala eta guztiz ere, kontuan hartzeko gaia dela argi utzi dute herritarrek.

## "Kontu erotikokoak umore ukituarekin jorratuko ditut"

IXABEL AGIRRESAROBÉ IPUIN KONTALARIA

'Biblibero' egitaraua itxiko du, ipuin erotikokoak kontatuta

Hasier Larrea ELGETA

Umorean oinarritutako ipuinak kontatzen ditu duela 30 urtetik usurbildarrak. *Berotik, erotik, zerotik* izena jarri dio gaur 19:30ean liburutegian egingo duen saioari. Entzule gisa joateko, aurrez apuntatu behar da.

### Ze gai izango dituzu mintzagai?

Herri ipuinak, gehienbat. Gai erotikokoak biltzeko arakatu dut horietan, eta aurkitu dut baten bat, Joseba Sarrionandiaren eta Goiatz Labandibarren testuetan, besteak beste.

### Ze ukitu ematen diezu ipuinei?

Nire ikuspuntuaren arabera umorea erabiltzen dut beti. Honako honetan, zakilak, aluak, orgasmoak, txortaldiak, masturbazioa... aipatuko ditut, edonori gerta dakizkiokeen egoeren testuinguru barruan.

### Ze beste proiektu daukazu esku artean?

Errezilgo eta Bidania Goiatzeko eguneko zentroetara joaten naiz adineko pertsoneri ipuinak kontatzera. Euren bakardadea arintzeko asmoz hasi nintzen saio hauekin. Trukean, eurek istorioak kontatzen dizkirate niri.



Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria I.A.

### 30 urtean, nola aldatu da ipuin kontalarien panorama?

Orain arte, umeentzako saioak nagusitu izan dira, baina, garaioetan, helduentzakoak ere badabilta irtetzen, euskaltegietan eta Martxoaren 8aren bueltan.

## Elgetako zapia, Irunera bidean

Elgetako Emakume Taldeko kideak Uberan elkartu ziren joan den zapatu goizean Bergarako Martxantereekin, Emakumeen Mundu Martxako karabanari emateko zapia pasatzeko. Martxoaren 6an Irun eta Hendaia arteko Etorbidea zubian egingo den ekitaldian eskegiko dute aldarri hori, Debagoieneko eta Euskal Herriko zapiekin batera.



ELGETAKO EMAKUME TALDEA



## Gaizki planteatu da, hasieratik

AINZANE OIARBIDE IRURETAGOIEÑA EAJ

Batzarrean hogeita lau pertsonak parte hartu zuten, 16 urtetik gorakoek %2,8k. Erantzun oso eskasa da, ez du interes handirik sortu elgetarren artean. Bestalde, inkesten erantzunetan oinarrituta dago ondorengo lana, eta, hasieratik esan genuenez, ez dago inolako kontrolik erantzun horiek fidagarriak izan daitezen. Edozeinek bete zezakeen inkesta bai paperean eta baita telematikoki ere, eta pertsona bakar batek nahi adina inkesta bete zitzakeen. Eta horrek inkestaren emaitzak manipulatzeko aukera ematen du.

EH Bilduk ez ditu gauzak ondo egin. Elgetarrek erabakitako etorkizuneko Elgeta ezin da horrela planteatu. Lana egin behar da benetako parte hartze prozesu bat egiteko, eta hau *paripe* bat besterik ez da.

Udal Gobernuari lanketa sozioekonomikoa eskatu diogu elgetarrei datu gehiago emateko, baina ez dute ezer egin.

Elgetako %2,8k erabakiko al du etorkizuna? EH Bilduk ez dauka etorkizuneko proiekturik, eta interesa ere eskasa dute. Gure udal taldeak errespetatzen ditu parte hartu dutenen iritziak eta ekarpenak, baina prozesua gaizki planteatuta dago hasieratik.



## NIRE USTEZ

MIKEL LARREA ZABALO

## Sailkapenak

Alabari galdetu nion eskolan zer nota nahiago zuen, 7koa edo 8koa. "8koa, noski!", erantzun zidan. Eta berriro galdetu nion: "Baina 8koa gelako nota baxuena bada eta 7koa altuena?". Orduan, zalantzak etorri zitzaizkion, eta denbora bat pentsatu ondoren erantzun zidan: "Agian, 7koa". Askotan, inporta zaiguna sailkapen horretan postu onenean geratzea da, berdin zaigu ze emaitzarekin. Gizartea lehia iraunkor baten murgilduta dago. Arlo guztietan. Honekin ez dut esan nahi lehiakorrak izan behar ez dugunik, baina lehia horren helburua ez dadila sailkapena izan, baizik eta puntuazio hori lortzeko egindako lanarekin eta esfortzuarekin irabazitako gaitasuna.

Azkenaldi honetan sarri ikusten ditugu, COVID-19a dela eta, hainbat sailkapen eta estatistika. Gure erkidegoa, lurraldea edota herria sailkapen horietan non kokatzen den bistaratzen dugu, baina, askotan, emaitzei erreparatu gabe. Sailkapenean ondo bagaude, harro sentitzen gara kudeaketa ona delako. Atzean bagaude, dimisioak eskatzen ditugu, kirol lehia balitz bezala.

Eta zuk zer nahiago duzue?

## OHARRAK

### Martxoaren 8a

Emakumeen eskubideen aldeko egunerako, elkarretaratzea deitu dute. Bezperan, *Birritan borxatua* antzezlanaren taularatuko du, Espaloian, Aldatzen Laguntzen antzerki taldeak.

### Ipuinen ordua

Udal liburutegian, gaur, 17:30ean hasita, LH-3, LH-4 eta LH-5 mailako neska-mutilei ipuinak kontatuko dizkie kontalari boluntario taldeak. Aurrez izena ematea gomendatu dute.

### Zer zen intsumisioa?

*Bi urte, lau hilabete eta egun bat* dokumentala proiektatuko dute Espaloian, domeka honetan, 18:00etan. Ostean, bizipenak kontatuko dituzte bi elgetarrek.



Gorka Goikoetxea, Amaia Irizar, Xabier Igartua, Bilma Soto eta Unai Kortabarria. O.E.

## 37 ekintza proposamen herriko merkataritzarako

Herriko merkataritza biziberritzeko planaren eguneraketa egin du Oñatiko Udalak dendariekin batera eta hor jasotako ekintzak lehentasunen arabera gauzatzea da orain helburua. Astean egin dute bost urtetarako plan honen aurkezpena

### Oihana Elortza OÑATI

Merkataritza biziberritzeko plana eguneratu du Oñatiko Udalak Ikertalde enpresarekin eta herriko merkatariekin batera. Diagnostika egin dute lehenengo, eta, hori oinarri hartuta, ekintza plana definitu segidan, identifikatu dituzten indarguneak eta ahultasunak berrindartzeko. Digitalizazioa oinarri hartzen duen sei ardatzeko plana duen txostena egin dute, 37 ekintza proposamen jasotzen dituena.

### Lehentasuna markatu

Eguazten arratsaldean eman zuten planaren berri, eta, han azaldutako moduan, merkatariek lehengo egoeran zituzten kezka, behar edo ezaugarriez gain, pandemiak ekarritako ondorioak kontuan hartuta egindako plana da, pandemiak sektorean eragin zuzenak eta gogorak izan dituela ikusita.

Horrek guztiak eta gizartearen bilakaerak salerosketa moduan izan duen eragina ikusi, aztertu

eta horren gainean gogoeta egin da definitu dute hemendik aurrerako ekintza plana, digitalizazioak ardatz guztiak zeharkatzen dituen plana, lehengo eta oraingo ereduak zeharo aldatu dira eta. "Lehen, denden funtzioa beharrezkoa zen produktuez hornitzeko herritarrak eta herritarren beharrak asetzeko, baina gaur egun, produktuak dira herritarrengana doazenak. Orain ulertu behar duguna da kontsumitzaileak behar ezberdinak izatea eta dendek beste balio erantsi bat eskaintzea", dio Ikertalde aholkularitzako Gorka Goikoetxeak.

Ekintza planean jasota dauden 37 ekintzak lehentasunaren arabera daude katalogatuta, eta

**LOKAL HUTSEKIN ZER EGIN ETA DENDARI ELKARTEAREN IZAERA BIRPENTSATZEA DIRA KEZKETAKO BI**

orain, merkatariekin batera aztertuko du Udalak zein ekintza jarri martxan. "Helburua da lehentasun maila altua edo ertaina dutenetatik hastea", argitu du Sozioekonomiako udal teknikari Unai Kortabarriak.

### 30.000 euro aurten

Ekintza horien artean daude, esaterako, zer egin edo zertan aprobetxatu hutsik dauden lokalak, eta baita Txanda dendari elkartearen funtzionamendua, izatea, birdefinitzea ere. "Aurtengo aurrekontuetan 30.000 euro daude jasota, lehentasuna eman eta aurten egingarriak diren ekintzak edo puntuak martxan jartzeko", azaldu du Sozioekonomia zinegotziak, Xabier Igartuak.

2005ean egin zuen Oñatiko Udalak herriko merkataritza biziberritzeko plana. 2013an, berrikusi eta eguneratu egin zuten, eta orain bukatu dute azken eguneraketa; bost urterako plana da, 2021-2025.



Beharpenak izaten dituzte outlet-eko produktu askok. O.E.

## Udazken eta neguko azoka egingo du gaur eta bihar Txandak

Herriko dendari elkarteko 23 merkatarik kanpora aterako dituzte euren produktuak, beherapenekin

### O.E. OÑATI

Udazken eta neguko Azken Txandak izeneko azoka berezia egingo dute gaur eta bihar Txanda dendari elkarteko 23 merkatarik. Ohitura duten moduan, denda kanpora aterako dituzte beherapenekin eskainiko dituzten produktuak.

Kaleko zein barruko arropak, osagarriak, betaurrekoak zein oinetakoak, besteak beste, prezio berezietan jarriko dituzte salgai herriko hainbat dendarik gaur, egubakoitza, eta bihar. Denden ordutegi barruan eskainiko dituzte, eta, horrelako

beste azoketan egin duten moduan, oraingoan ere erdiguneko kale komertzialetatik aparte dauden zenbait merkatarik plazara eta Kale Barrira eroango dituzte euren eskaintzak. Azoka egiteko, Kale Barria eta Atzeko kalea zirkulaziorako itxita egongo dira. Inguruko merkatarien atez ateko hondakin bilketa berrantolatu egin dute.

Txanda elkarteak, bestalde, aldatu egin ditu zuzendaritzako kideak: Hirukar, Marku, Umezez iturgintza, Maphre eta D'Or dira juntara sartu diren komertzio berriak.



NIRE USTEZ

AMAIA EROSTARBE

## 'Atzerrian lurra garratz'

Artedramak otsailaren 12an eskaini zuen Oñatiko Santa Anan, estreinakoz, *Atzerrian lurra garratz*. Ikustekoa, nire iritzian. Euskara ere ederra da, Miren Amuriza lagun. COVID-19agatik, kultura-emanaldiez gozatzeko aukera ez da lehengo. Berri ona da, bada, kultura-jarduerak gauzatu ahal izatea. Are pozgarriagoa antzokia bete izana.

Ander Lipusek, Laura Penagosek eta Amancay Gaztañagak eratu duten antzezlanaren errealista da. Gaiak sormena, etorkizuneko ametsa(k), emakumea, migrazioa, deserria... dira. Tonua gordina da; goibela, etsipenezkoa eta iluna; tarteka, alaia, itxaropentsua eta koloretsua. Ardatza Kolonbiatik zaintza-lanetara Euskal Herrira etorri den Aurora Moraren bizipena eta unibertsoa da. Gau batean, amaren heriotzaren berria jaso, eta, hainbat zirrara, gogoeta eta istorio korapilatzen zaizkio bihotzean eta buruan. Izan ere, ez da samurra artista izatea eta emakumea izatea. Are gutxiago, erbestean errotzea. Emakumea migratzaile, noiz arte? Noiz euskaldun?... Erantzunik, ez.



# Martxoaren 8ko egitaraua, eguaztenetik aurrera

Bakarrizketa, bi film, edertasun kanonari buruzko solasaldia, emakumeen artisau azoka, Audre Lorderi buruzko dokumentala, pentsiodunen elkarretaratzea, manifestazioa... hainbat eragilerekin Udalak eta Sare Feministak osatutako agendan

## Oihana Elortza OÑATI

Udalak eta Oñatiko Sare Feministak elkarrekin osatu dute aurten ere Martxoaren 8 egunaren bueltako egutegia. Batzuen eta besteen proposamenak aztertu eta egitarau bakarrean jaso dituzte, herriko beste eragile batzuen inplikazioarekin; zinekluba kasu.

## Manifestazioa, plazatik abiatuta

Martxoko lehenengo bi eguene-tako zineklubean emango dituzten filmak Emakumeen Nazioarteko Egunari begira programatutakoak dira.

Egitarauko lehen saioa, baina, hurrengo eguaztenean, martxoak



Irantzu Varela, Arrasaten, 2020ko urtarrilean. JOSU BILBAO

3, Irantzu Varela egingo duen bakarrizketa izango da. Abenduan zen etortzekoa Varela, baina atzeratu egin zen saioa, egun batzuk aurretik eraso egin ziotelako; *No hay matriarcado ni en el supermercado* bakarrizketa egingo du zinema aretoan, 18:00etan.

Beste ekitaldi guztiak hurrengo asteburutik aurrera egingo dituzte. Martxoaren 8an bertan, Olakua auzoan egingo dute eguerdiko elkarretaratzea herriko pentsiodunek, eta iluntzean, plazatik abiatuko da manifestazioa. Bezperan, emakume artisauen azoka egingo dute, berdura plazan. Jabetze Eskolako irakurketa taldeak proposatutako dokumental bat ere badator egitarauan hilaren 11rako, eta 17an, edertasun kanonei buruzko hitzaldia dago.

Filmak eta dokumentala ikusteko sarrerak udal webgunean sartuta hartu behar dira. Gainerako ekitaldiak doan dira, baina komeni da aurrez izena ematea, edukieragatik; udal webgunean hori ere. Informazio gehiagorako: [berdintasuna@onati.eus](mailto:berdintasuna@onati.eus) edo 943 78 04 11.

## Ligan ez jokatzea erabaki du Mekalki-Aloña Mendik

Martxoaren 6tik ekainaren 13ra izango den liga berrian ez jokatzea erabaki du Oñatiko Mekalki-Aloña Mendi saskibaloitaldeak. Hala ere, eutsi egingo dio kategoriari.

Martitzenean Zubikoan egingako bileran hartu zuten erabakia saskibaloiko talde nagusiko jokalariek. "Joan den egubakotzean, Federazioaren proposamen berria jaso genuen: martxoaren 6tik ekainaren 13ra egingo den liga berrian jokatzea. Jokatzuz gero, mailaz igotzeko aukera izango genuke, irabaziz gero; gutxienez, talde bat igoko baita. Proposamenari ezetz esanda, ez genuke jokatuko, baina mailari eutsiko genioke, hurrengo denboraldian gauden kategorian lehiatuko ginatke. Bozketa bidez hartu genuen erabakia. Ezezkoa atera zen. Liga berri horretan ez jokatzea erabaki dugu", azaldu du entrenatzaileak, Aitor Ugartek. Ere mu gorritik irtendakoan entrenamenduak berreskuratzeko asmoa dute.

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



### ABOKATUAK

#### BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

#### BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
Faxa: 943 77 01 08  
[blasaga@conet.es](mailto:blasaga@conet.es)

#### RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

### AHOLKULARITZAK

#### ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
[andrama@arrakis.es](mailto:andrama@arrakis.es)

#### ALBERDI ASESOREAK

BERGARA / Madoategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behe  
Tel.: 943 79 51 25  
[uribesalgo@uribesalgo.es](mailto:uribesalgo@uribesalgo.es)

### ARKITEKTOAK

#### BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behe  
Tel.: 943 79 80 33  
[www.biark.net](http://www.biark.net)

#### LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA

Arkitektoa eta tradesperson formazioa  
Tel.: 636 89 92 11  
[larraitz.arkiestudioa@gmail.com](mailto:larraitz.arkiestudioa@gmail.com)

# Punk-rock doinuak Tilikum taldearen lehen diskoan

Punk-rock doinuko zortzi kantak osatzen dute Tilikum taldearen lehen lana. Itxialdi bezperan hasi ziren grabatzen eta telefonoz bukatu zuten lana, egoeragatik. Musika egiten jarraitzeko gogoia dute kideek, eta bigarren lanerako abestiek ari dira egun

## Oihana Elortza OÑATI

Oñatiko jaietan egiten den Di-bertsioak hitzordurako elkartu izan dira behin baino gehiagotan kuadrillakoak diren Xabier Carpintero (bateria), Ekhi Galdos (ahotsa eta gitarra) eta Julen Arabaolaza (ahotsa eta baxua). Ederki pasatzen zuten, disfrutatu egiten zuten, eta musika egiten jarraitu eta taldea sortzea pentsatu zuten. Horrela jaio zen Tilikum, 2018an.

## Zortzi kantuko diskoa

Jaietan elkarrekin jotzeaz gain, talde ezberdinetan ibilitakoak ere badira hirurak: Arabaolaza eta Galdos Ixilik taldean ibilitakoak dira eta Carpintero, Krimenen. Musikariak eta musikazaleak hirurak, taldea sortzeko ideia izan ahalaz bat hasi ziren kantuak egiten. "Punk-rock musika da guk egiten duguna eta abestien letretako gaiak denetarikoa dira. Badaude batzuk aldarrikapen kantuak direnak eta beste batzuetan barruko sentimenduez mintzo gara", dio Carpintero.

Abestiak egiten hasi eta jendaurrean jotzen ere hasi ziren; lau kontzertu egin zituzten duela bi urte, 2019an: hiru Oñatin eta bat Arrasaten. Eta diskoa grabatzen hasi ziren gero. "Abestiak bagenituen, eta sekulako gogoia CDaren proiekturako. Baina pandemia etorri zen. Duela urtebete, Itxura Records estudioan sartu eta bi asteburu egin genituen Fran Perez teknikariarekin diskoa grabatzen. Sekulako esperientzia izan zen hori, oso aberasgarria. Baina itxialdia etorri zen gero; maste-rizazioa telefonoz egin genuen", du gogoan Carpintero.

Maiatzean eskuetan zuten zortzi kantuz osatutako diskoa, taldearen izan bera duen lana; hirukotearen lehen diskoa. "Baina ezin kontzerturik egin aurkezteko".



Ekhi Galdos, Julen Arabaolaza eta Xabier Carpintero dira Tilikum. TILIKUM

## Eltzian entseatzeko dute

Sare sozialen bitartez egin dute diskoaren zabalkundea eta Oñatiko Aker, Ikatz eta Ona tabernetan ere salgai dago, bost eurotan. "Gure estiloa duen lana da, eta lehengo erara egindakoa. Ilusioa egiten zigun diskoa egi-

**AKER, IKATZ ETA ONA  
TABERNETAN DAGO  
SALGAI TALDEAREN  
IZEN BEREKO DISKOA,  
BOST EUROTAN**

teko prozesuak, eta pozik gaude, nahiz eta guretako dagoeneko kantu zaharrak diren hor jaso ditugunak, abesti berriak sortzen ari gara-eta orain", dio taldeko bateria jotzaileak.

Abesti berriak sortzen ari dira Tilikum taldeko kideak, nahiz eta egungo egoeragatik ezin duten elkarrekin entseatu. Eltzian dute lokala, eta egoerak hobera egin eta berriz elkartu eta musika egiteko gogoia dute. "Oraindik ezin dugu, baina ea laster posible den berriz lokaleko bitzita berreskuratzea".

# "Idaztea beste maite zuten natura Bitoriano Gandiagak"

PELLO ZABALA FRANTZISKOTARRA

Otsailaren 21ean bete dira hogeitau urte Gandiaga hil zela

## O.E. OÑATI

Mendatan jaio zen, eta umetan etorri Arantzazura, fraide, Bitoriano Gandiaga Artetxe. Harreman estua izan zuen Pello Zabalak harekin.

## Arantzazun ezagutu zuten elkar?

Bai. Baserritik Arantzazura joandakoak biok, kalea askorik zapaldu gabe. Bioi gustatzen zitzaigun natura, eta, zaletasun hori medio, eguneko ordu asko elkarrekin pasatzen genituen.

## Idaztea beste gustatzen zitzaion natura, hortaz?

Izugarri. Inguruko mendi eta bazter guztiak ondo ezagutzen zituen. Gogoan izaten zuen zein landare non ikusi zuen, eta jarraipena egiten zion edo toki batetik bestera eramane eta han zelan erantzuten zuen ikusi.

## Zuhaitz asko landatu zituen Arantzazun, ezta?

Arantzazuko lanak egin zirenean haitza, harria, zegoen inguru osoan, egungo paisaia beste bat bada ere, eta hark izan zuen zerikusia inguruak gaur duen itxurarekin. Sarreraren dagoen erlojuaren azpialdera dauden zuhaitzak, esaterako, hark landatutakoak dira.

## Noiz idazten zuen?

Gabonak ziren bere sasoirik gustukoena. Etxekoei, senideei eta gertuko lagunei poema bat, esaldiren bat edo testuren bat idazten zien, eta bidali edo eskura eman. Beste hainbat testu eta poema ere egin zituen, eta musika jarri nien nik haietako batzuei. Eta jakinda Gabonak



Pello Zabala. O.E.

asko gustatzen zitzaizkiola, *Gabon anuntzio, soinu eta kantuz* liburua atera genuen, haren testuei musika jarritako piezekin eta beste hainbat olerkirekin. Gainera, Xabier Egañaren ilustrazioekin apaindu genuen; ederra gelditu zen liburua. CDak ere gehitu genizkion.

## Gabon eskean ibilitakoa zen bera ere Arantzazun?

Bai; izugarri gustatzen zitzaion ekintza hori, asko disfrutatzen zuen.

## Hogeitau urte dira hil zela. Nola oroitzen duzu bera?

Arantzazun kanpora atera eta inguruari begira jartzean ikusten dut nik Gandiaga. Liburuak ere egin zituen, baina nik naturarekin erlazionatzen dut, bera ikusten dut inguruko landareetan, zuhaitzetan, Elgea aldera begiratu eta ikusten dudana paisaian...

## Bihar jarriko dituzte salgai Bulego entzuteko sarrerak

Datorren martxoaren 13an joko du Azkoitiko Bulego taldeak, gaztelekuan. Bi saio egingo ditu: 17:00etan eta 19:00etan, eta saio bietarako sarrerak bihar, zapa-tua, otsailak 27, jarriko dituzte salgai, ohiko tokietan: Udalaren webgunean, Txokolateixan eta plazako leihatila digitalean edo totemean. Sarreraren prezioa zortzi euro da.

## Ameba laukoteak joko du domeka eguerdian gaztetxean

Usurbilen egin ohi duten Bertasio Gauetik sortutako proiektua da Ameba. Rock talde gisa aurkeztu arren, bere estiloa bilatzen dabilen taldea dela eta estiloa oraindik definitu barik dutela esaten dute. *Elikatuz* du izena atera duten lehen lanak, eta horren aurkezpenean egingo dute domeka eguerdian, 12:00etan, Antixena gaztetxean.





#### HARIRA

"*Harira* sailora elkarreterako, sindikatueterako, alderdi politikoetako eta beste erakunde batzuetako ordezkariak gonbidatu ditugu. Eta, betiere, gaurkotasuna aintzat hartuta".

ENEKO AZKARATE  
'HARIRA' SAIOKO AURKEZLEA



#### ALBISTEGIA

"Debagoienean gertatzen den guztia kontatzen eta erakusten segituko dugu. Alde bateko zein besteko iritziak batuta, eta zuei, herritarrei, hitza emanda".

GOIATZ ARANA  
'ALBISTEGIA' SAIOKO AURKEZLEA



#### D2030

"Egungo gizartearen erronka nagusienetara egingo dugu bidaiara, eta gure eskualdea adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izateko gakoak aztertuko ditugu".

UXUE IGARZA  
'D2030' SAIOKO AURKEZLEA



#### HEMEN DEBAGOIENA

"Bertako protagonistak, bertako gertakariak... *Hemen Debagoiena*-n gertukoak, tokikoak, jarraituko du ardatz izaten, baina munduan gertatzen denari muzin egin barik".

TXOMIN MADINA  
'HD' SAIOKO AURKEZLEA



#### HARMAILATIK

"Oztopoak gaindituta, kirola berabai izan dugu, eta aurten, are gehiago. Izan ere, harmailak itxita egon diren honetan, *Harmailatik* saioa Debagoieneko erakusleihu izan da".

XABI URZELAI  
'HARMAILATIK' SAIOKO AURKEZLEA



#### GALDEGAZTE

"Etorkizuneko kazetariak lehen aldiz telebista platu batean, zer eta euren gustuko elkarrizketatuen aurrean. Gazteak, galderak eta hainbat sorpresa".

JOKIN BEREZIARTUA  
'GALDEGAZTE' SAIOKO AURKEZLEA



#### EKT

"Euskal kultura nondik dator? Nora goaz? Zeintzuk izango dira erronkak? Kulturgileen, sortzaileen, historialarien eta beste zenbait adituren esanak jasoko ditugu".

ARANTZAZU EZKIBEL  
'EKT' SAIOKO AURKEZLEA



#### ZIRIKATZEN

"Debagoienean herritarrak zirikatzen eta xaxatzen jarraituko dugu, %100ean, umoretik jolasean. Laster izango gara zure herrian. Jolaserako prest?".

AITOR AGIRIANO  
'ZIRIKATZEN' SAIOKO AURKEZLEA



#### HALA BAZAN

"Badakizue Arrasate Telebistaren artxiboari tiraka ari garela azkenaldian, eta oraindik kontu gehiago. Ze *Hala bazan*, eta bai, bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila 30 urte geroago Goienako plazan".

JULEN IRIONDO  
'HALA BAZAN' SAIOKO AURKEZLEA



Malen Ruiz de Azua pertika-jauzia egiten, domekan, Espainiako Pista Estaliko Txapelketan. SPORTMEDIA

# Gallurren, euren gailurreraino

Izen hori du Pista Estaliko Espainiako Atletismo Txapelketa jokatu zen estadioak, eta Arrasateko bi atletek ez dute erraz ahaztuko. Ruiz de Azuak urrea lortu zuen pertikan eta Carrascalek zilarra jauzi hirukoitzean; biak ala biek marka pertsonala ondu dute

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Espainiako pertika txapelkun izatea hirugarrenez lortu, eta atsedetik ez. Domina jantzi eta hiru egunera, beste txapelketa bat, eta Madrileren beste bidaia bat, eta Madrileren beste bidaia bat. Hori da Malen Ruiz de Azuak eta halako atletek duten dedikazioaren adibide bat. "4,32 metro saltatzea lortu dut eta bosgarren geratu naiz World Indoor Series lehiaketan. Hurrengo jauzia 4,47koa zen. Lehen saikeran ez dut lortu, eta bigarrenan giharrak oso nekatuta igarri ditut, eta ez dut ahalegina egin: domekako nekea, astebetean Madrileren bi bidaia... nahi edo ez, igarri egiten da", adierazi zuen eguaztenean Ruiz de Azuak, Madrildik bueltan.

**Hirugarrenez, Espainiako onena**  
Pertika-jauzian hirugarrenez lortu du Malen Ruiz de Azuak

Espainiako Pista Estaliko Txapelketan onena izatea: 2017an, 4,16 metroko saltoarekin irabazi zuen; 2018an, Monica Clemente eta biak izan ziren txapelkun, marka berbera eginda, 4,31 metro; domekan, aldiz, bere marka pertsonala bi zentimetro ondu bereganatu zuen txapelketa (4,43 metro). Txapelketa atarian pertika aldatu ostean, zalantzeekin baina konfiantzaz joan zen Madrileren; hala ere, bere mailarik onena ematea lortu zuen, non eta momentu aproposenean.

Beste bi atletetarekin aritu zen lehian, Bartzelonako Andrea

**RUIZ DE AZUAK  
PERTIKA-JAUZIAN  
URREZKO DOMINA ETA  
MARKA PERTSONALA  
LORTU ZITUEN**

San Joserekin eta Miren Bartolome nafarrarekin. San Jose zen faborito, baina ez zuen 4,38ko langa gainditzerik lortu. Bai, ordea, Ruiz de Azuak eta Bartolomek, baina langa 4,43ra igotzerakoan arrasatearra izan zen hura gainditzen bakararra.

"Marka hobetzeko itxaropena neukan, baina edozer gauza espero nuen; marka ona lortzea edo nire markatik behera egotea ere bai. Zorionez, dena ondo joan zen, eta ni poz-pozik", adierazi du Ruiz de Azuak.

Aurrera begira jarrita, ez du helburu konkreturik begiz jota, hobetzen jarraitzeaz aparte: "Hobetzeko egiten dut lan eguneroko, eta horretan zentratutako naiz aurrerantzean, marka edo txapelketa jakin bat helburu hartu gabe; gogor lan egin eta listoia zertxobait hobetzea lortuz gero, askoz hobeto".



SPORTMEDIA

**"Urrea eta marka; gehiago ezin eskatu"**

**MALEN RUIZ DE AZUA**  
ATLETA

Pertika aldatu berritan joan zen txapelketara, baina ez zion kalterik egin.

**Zer sentitu zenuen 4,43ko langa pasa eta koltxonetara erortzen ari zinela?**

Emozio itzela. Oso berdinduta geunden Bartolome eta ni, eta txapelketa irabaztean nuen arreta jarrita. Marka ontzea ere lortu nuen, baina, une hartan, txapelketa irabazi izanak eman zidan poza.

**Hobetzen jarraitzeko hauspoa ematen dizu dominak?**

Oso pozik nago, eguneroko lanaren emaitza delako. Askotan, gogor lan egin arren, emaitzak ez dira heltzen, baina jarraitu egin behar da, emaitzak gutxien espero duzuenen heltzen dira eta. Orain arte bezala lanean jarraituko dut, eta, listoia zertxobait igotzea lortuz gero, are hobeto.

## Lau lorpen Carrascalentzat

Eneko Carrascalek lortutakoak ere aipamen berezia merezi du. Lehen aldiz lortu zuen 16 metroko langa gainditzea, non eta Espainiako Txapelketan bertan, eta 16,14ko jauziarekin zilarrezko domina poltsikoratu zuen

**CARRASCALEK 16,14 METROKO MARKA PERTSONALA ETA ZILARRA LORTU ZITUEN JAUZI HIRUKOITZEAN**



MOMENTODEPORTES

**"Txufi'-ri eta Iñigo Uribarreni eskaintzen diet"**

**ENEKO CARRASCAL**  
ATLETA

Azken marka pertsonala 18 zentimetro ontzea lortu du.

**Bazeneraman denbora 16 metroko langa gainditu nahian, eta leku paregabe lortu duzu...**

Urte batzuk dira langa hori gainditu guran, 16 metrotik 20 zentimetro gerturatzen, eta, azkenik, heldu da. Urte hauetako lanak eman ditu fruituak, eta oso-oso pozik nago.

**Nori eskaini nahiko zenioke zilarrezko domina?**

Bi pertsonari. Lehena Iñigo Uribarren da; urte asko egin ditut bere alboan lanean, eta aurten asko igartzen ari naiz bere hutsunea. Eta bigarrena, Fernando Zufiria *Txufi*. Nahi arren, azkenaldian ez da hainbeste agertzen Mojategitik, baina oso gogoan dugu denok".

atleta arrasatearrak. Dominaz gain, beste hiru lorpen lortu zituen: orain arte egindako marka pertsonal onena lortzea –aurrekoa 15,96 metrokoa zen–, 23 urtez azpitik Euskadin inoiz egindako markarik onena lortzea eta ziuurrenik udan Norvegiar jokatu den Europako 23 urtez azpiko txapelketarako txartela ere bai.

"Parte hartzeko gutxieneko markak guztiz zehaztu gabe daude, baina ea marka honek bertan egoteko balio duen; erronka polita litzateke".





Gari Baños, Burgosko itzulian, bere taldeko txirrindulariz inguratuta. MOVISTAR TEAM

# Azken agurra arrastoa utzi duen Gari Bañosi

Masajista oñatiarra "beti laguntzeko prest zegoen pertsona" bezala deskribatu dute hura ezagutzen zutenek. Bizitza osoa txirrindularitzari lotuta, azken urteetan Movistar Team taldean aritu da masajista eta laguntzaile gisa; Aloñan hil zen, zapatuan

## Hasier Larrea OÑATI

Erreakzio zaparrada sortu zuen joan den zapatuan Gari Baños oñatiarraren ustekabeko heriotzak. Movistar Team txirrindulari taldeko laguntzaileak utzitako hutsune handia nabarmendu zuten sareetan bere gertuko lagun eta lankideek. Movistar taldeak sare sozialetan eskerririk beroenak adierazteko bidea

partekatu zuen, eta doluminak erakutsi zituzten, besteak beste, Alejandro Valverde, Nairo Quintana eta Enric Mas txirrindulariek. Ainara Hernando, Alfontso Arroyo eta Arritxu Iribar kirol kazetariak ere gogoan izan zuten Bañosen ekarpena.

Aloña Mendi kirol klubean eman zituen Bañosek bere lehen pedalkadak gartzetan, masajista

espezializatu aurretik. Contentpolis eta Caja Rural taldeetan egin zituen lehen urteak profesional gisa, harik eta 2012an Movistar Team-era joan zen arte. Emakumeen taldeko laguntzaile izatera pasa zen 2018an. Oñatiarra ezagutu zuten pertsona guztiek bat egiten dute pertsona "alaia, baikorra eta eskuzabala" zela aitortzerakoan.

## Zorigaitzeko istripua

Baños Aloña Mendi inguruan zendu zen zapatu eguerdian, 42 urterekin; irrist egin eta amildegira erori zen. Berarekin zihoan bikotekideak larrialdi zerbitzuei deitu eta gorpua erreskatatu zuten Ertzaintzaren mendi erreskateko kideek, suhiltzaileek eta larrialdi zerbitzuko langileek.

2021eko otsailaren 20a tristeki gogoratuko dute haren familiak, txirrindularitzaren munduak eta hura ezagutzen zuten lagunek.

## Bere lagunek esker ona adierazi diote



JON ODRIOZOLA MURIAS  
TALDEKO ZUZENDARIA

"Oso gogorra izan da Gariren galera. Jende gaztearekin beti adi, ni neure bizikleta gainean aritzen nintzenean sekulako prestutasuna eskaintzen zidan beti. Pena handia daukat, oso pertsona ona zen, eskerrik asko guztiagatik!"



ARATZ LOSADA  
KIROLEAN ADITUA

"Izugarrizko kolpea izan da Gariren heriotza. Guztiok gatzat bat nolako pertsona zen deskribatzerako orduan, eta hori da onena. Arrasto handia utzi du guban. Profesionalki ere asko eman dit, Oñatiko irratian beti bere ekarpena egiteko gertu baitzegoen".

## UDAK eta MUK etxean jokatu dute asteburu honetan

Eskualdeko taldeek hitzordu ugari dituzte bihar eta etzi artean. Futbolari dagokionez, Ibarra futbol zelaian jokatu du zapatuan UDAk ligako hirugarren partida. Urolaren aurka izango da hori, 16:30ean hasita. Mondrak Debako Hamaikak Bat taldearen zelaia bisitatuko du eta Bergarak atsedena dauka.

Saskibaloian, Mondragon Unibertsitatea liderrak Solares taldea jasoko du Iturripen. EBA ligako norgehiagoka domekan jokatu dute, arratsaldeko sei eta erdietan.

Mugarri Eingou Arrasateko eskubaloit taldea, ostera, Usurbilera joango da, hango taldearekin indarrak neurtzera. Zapatuan jokatu duten neurketan 16:00etan hasiko da.

Boleibolean, Arizmendik kanpoan jokatu du zapatuan, Bera Bera Bultzen kantxan, 16:00etan.

Arrasate-Ordizia errugbi taldeak, berriz, datorren astean jokatu du, Mojategin, Hernainen aurka. (Ikus 12. orria)



La Cobatillan. CARRERASPORTMONTANA.COM

## Ohiana Kortazar onena, La Covatillako snowcross karreran

Ordubete eta 49 minutu behar izan zituen korrikalari elgetarrak Salamancan dagoen eski estazioko ibilbidean snowcross modalitateko emakumezkoen mailan urrea eskuratzeko. Ibilbide ikusgarria daukan proba da La Covatillakoa, eta bi mila metrora dagoen La Cardosa glaziarra zeharkatzen du. Bere atzetik Rebeca Mariño sailkatu zen, zilarra erdietsiz.



MARKEL IRIZAR  
TXIRRINDULARI OHIA

"Agian, topikoa eman dezake, baina Gari benetan zen tipo ona eta positiboa. Beti laguntzeko prest, beti irribarre batekin eta beti txantxetan".



GARAZI EROSTARBE  
TXIRRINDULARIA

"Niretzako txirrindularitza munduan ezagutu dudan pertsona onenetakoa izan da. Dagoen lekuan dagoela, ez dut inoiz ahaztuko".



KEPA UMEREZ  
ALOÑA MENDIKO PRESIDENTEA

"Klubeko zuzendaritza batzordean asko lagundu zigun bere garaian, eta orain arte ere beti egon izan da prest neska-mutilei eskua luzatzeko".

# Laugarren Beratu jaialdia abiatzeko, azken ukituak

Martxoaren 19tik 21era bitartean askotariko musika emanaldiekin gozatzeko aukera izango da Oñatiko musika jaialdian; oraindik ez dago sarrerak eskuratzeko aukerarik, baina laster izango dira 'Oñati.eus'-en, Txokolateixan eta herriko plazako 'Totem'-ean

## Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Ez dira kultur ekitaldiak antolatzen garairik onenak; hala ere, Beratu Musika Elkarteak Udalaren eta herriko hainbat eragileren laguntzarekin antolatzen duten Beratu jaialdiarekin aurrera egitea erabaki du. "Inoiz baino garrantzitsuagoa iruditzen zaigu laugarren jaialdia antolatzeari den kolpea arintzen laguntzeko eta baita, orokorrean, gizarteari halako eskaintzek egiten dioten ekarpenagatik ere", azaldu dute Beratu Musika Elkartearen kideek.

Neurri murriztaileen eraginez aldaketak etor daitezkeen arren, martxoaren 19an hasi eta 21era bitartean egiteko prestatu dute. Ikasturteko bigarrena izango da; izan ere, azaroan egin zuten iazko martxoan bertan behera geratu zena. "2020. urtea hirugarren jaialdia nola egin berrasmutzen jardun izanaren sentsazioa dugu, baina azaroan egin genuenean izan zuen harrera ikusita, zalantzarik ez genuen izan 2021era begira jartzeko".

## Parekidea eta euskalduna

Euskal Herriko musika jaialdi txikien zirkuituan dagoeneko leku bat du jaialdiak. Hastapenetatik argi erakutsi dute bul-



Anna Andreu eta Marina Arrufat musikari katalanak. NATXO MEDINA

tzatzaileek egitarau parekidea, musika estiloari dagokionez zabala eta, bereziki, musikari euskaldunei tokia egitea direla euren premisak. "Emakumeak dira, bereziki, aurten protagonista, eta, Anna Andreu ezik, beste guztiak euskaldunak dira. Zerbait ezberdina eta originala eskainiko dugula uste dugu; jarrita entzuteko moduko eskaintza oparoa izango da. Kartela Ane Agirre Bikuñak egin du eta jaialdian sortzen den klima islatzen du: musikaren organikotasuna eta lasaitasuna".

**Etxebarriari, gonbidapen berria** Iazkoan egin nahi zuten moduan, *Markak* dokumentalarekin zabalduko dute egitaraua. Gernikaren bonbardaketari buruzkoa da, Hannot Mintegiak zuzendu eta Aitor Etxebarriak musikatu duena; agertokian izango diren musikariek zuzenean eskainiko dute filmaren soinua banda. "Konfinatua zegoenez ezin izan zuen Etxebarriak etorri, baina behin baino gehiagotan erakutsi digu Beratu barrutik ezagutzeko gogo, eta bi proiektu aurkeztuko dizkigu: dokumentalaren soinua

banda, egubakoitzean, beste bost musikarirekin batera, eta *Nihilism Part 1* bakarkako lana, domekan, Lazarraga lorategian; eta, eguraldi txarra egiten badu, gaztelekuan".

Usopop kolektiboarekin elkarlanean lotu dute martxoaren 19rako, herri kanta eta musika klasikoa uztartzen dituen eta Lapurdiko eta Nafarroa Behereko musikariek osatzen duten Habia taldearen emanaldia. Hari-instrumentuak eta ahotsa uztartzen dituen hirukotea Maia Iribarne (biolina), Elena Hairak (biola) eta Amaia Hiriartek (biolontxelo) osatzen dute.

## Katalanak eta etxeakoak

Aurtengo gonbidatu berezia Anna Andreu izango da. "Bikote formatuan etorriko da Andreu abeslaria eta gitarra-jolea, zapatuan, Marina Arrufatekin (teklatuak eta bateria); Andreuk udaberriari argitaratu zuen *Els Mals Costums* katalanez abestutako lana aurkeztuko dute. Zeresan handia sortzen ari den artista da Andreu, eta haren aldeko apustua egin dugu".

Eskarmentuko herriko musikariek hartuko dute lekukoa gero. "Juan Vallsek kantu berriak eskainiko ditu; aurreko lanarekin alderatuz, folketik harago, doinu azkarragoak eta rockerragoak dira, *Americana* kutsukoak. Iñigo Ugarte (gitarra), Ander Etzaniz (baxua) eta Mikel Marco (bateria) izango ditu taulararen gainean lagun".

## Domekan, "proiektu ausartak"

Aitor Etxebarriaz gain, Verde Prato *alter egoa* duen Ana Arsuaga-Bilbon bizi den tolosarraigonbidatu dute domekarako. Gaztea izan arren, askotariko musika proiektuetan jardun du;

## Egitaraua

### Martxoak 19

- **Zinema emanaldia** *Markak* dokumentala, zuzeneko musikarekin, Santa Ana antzokian, 18:00etan.
- **Habia taldearen kontzertua** Santa Ana antzokian, dokumentala eskaini ondoren.

### Martxoak 20

- **Kataluniako Anna Andreu musikariaren eta Oñatiko Valls & Band taldearen kontzertuak** Santa Ana antzokian, 18:00etan.

### Martxoak 21

- **Aitor Etxebarriaren kontzertua** Lazarragako lorategian, 13:00etan.
- **Verde Pratoen kontzertua** Antixena gaztetxean, 18:00etan.

gaur egun, Serpientes post-punk hirukoteko kidea da eta bakarkako kontzertuak ere egiten ditu, teklatura lagun duela.

## Sarrerak, oraindik ez

Hamar eurotan izango dira Santa Ana antzokiko saioetarako sarrerak eta bost eurotan Antixena gaztetxekoak. Martxo hasieran jarriko dituzte salgai.

**MUSIKA "ESKAITZA ORIGINALA" BERATU JAIALDIAN, MUSIKA INDUSTRIARI LAGUNTZEKO ASMOZ**

GOIENA TELEBISTA  
UDABERRIKO  
PROGRAMAZIOA



%100 EMATEN  
JARRAITZEN DUGU

**HARMAILATIK**

MARTXOAREN 19AN, ASTELEHENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

"Bizitza ez da gertatzen zaizuna,  
baizik eta gertatzen zaizunari buruz  
egiten duzun interpretazioa"

UXUE OTXOA  
KIROL PSIKOLOGOA



goiena  
Zu hemen zaude.





Joxan Iza eskultorea eta margolaria eta Gorka Salmeron argazkilaria *Agerkunderako gunea* erakusketan. GORKA SALMERON

# Irakatsitakoari bueltan eman nahi dion bilduma

Joxan Iza eskarmentu handiko eskultore eta margolari bergararrak eta Legazpiko Gorka Salmeron argazkilaria ikonografia kristauaren inguruan egindako interpretazio pertsonala jaso dute Donostiako D' Museoko 'Agerkunderako gunea' erakusketan

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA  
Sortzaile bakoitzak urteetan zehar egin dituen lanen aukeraketa bat egin du, eta hala osatu dute –artista biek elkarrekin estreinakoz– Donostiako Elizbarrutiko museoa ikusgai duten bilduma. Guztira, 70 lan daude, askotariko diziplinetakoak: argazkiak, margolanak, grabatuak, eskulturak...

Maiatza bitartean izango da *Agerkunderako gunea* izena duen erakusketaraino hurbiltzeko aukera. Astelehenetik egubakoitzera 10:30etik 14:30era eta 17:00etatik 18:00etara, zapatuan arratsaldean dago zabalik eta domeketan itxita dago museoa.

**Estreinakoz, elkarrekin bilduma**  
Oñatiko gaztelekuo arduradun zen Patxi Hipolitoren bidez eza-gutu zuten elkar orain dela urte asko Izak eta Salmeronek. Honela kontatu du Bergarakoak: "Hipolito zenak aurkeztu gintuen, eta harreman oso ona dugu. Erakusketa bat dudanean, Sal-

meronek ateratzen dizkit katalogorako edo beste zerbaiterako behar ditudan argazkiak. Halako batean, nire tailerrera etorri zen eta plaka elektrikoekin osatutako Kristo gurutzatu bat ikusi zuen; izugarri gustatu zitzaion, eta elkarrekin zerbait egiteko amua bota zidan. Edorta Kortadi D' Museoko zuzendariarekin berba egin zuen Salmeronek gero, hari proposamen interesgarria iruditu zitzaion, eta orain dela urte eta erdi hasi ginen erakusketa osatzen. Bidean, Mikel Babiano urretxuarra batu zaigu proiektura. Irakaskuntzan, itzulpengintzan eta ikerketan aritzen da, batik bat. Fenomeno hutsa da, eta maisutasunez idatzi ditu katalogoko testuak".

**JOXAN IZAREN ETA GORKA SALMERONEN IKONOGRAFIA KRISTAUARI BURUZKO BILDUMA, DONOSTIAN**

**"Pentsarazteko asmoz"**  
Edorta Kortadi D' Museoko zuzendariaren esanetan, "museoko erabiltzaileei kontzeptu erlijiosoak adierazteko beste modu bat existitzen dela erakustea da erakusketaren helburua". Eta zera gaineratu du Izak: "Erligio sinbologia handia dago, eta horiek interpretatzeko hainbat modu daude. Guk gure irakurketa egin dugu, sinbologia horrekin errespetuz, jolastuz. Argiaren indarra eta garrantzia nabarmena da bilduman; onaren eta txarraren arteko dikotomia ere planteatzen dugu".

Bi gelatan banatuta, batetik, autore bakoitzaren obrak daukela dio Izak: "Argazkiak eta muntaiak dira Gorkarenak, horien artean, bere neska-lagun ohiari egin zion erretratu bitxia. Nireak askotarikoak dira: formatu handiko margolanak eta panpina itxurako eskultura batzuk ere bai. Bion artean egin dugun lan bat ere badago: sargardo botilen eskultura".

## Goiena Klubaren txokoa

### Goiena Klubeko otsaileko sariak!



#### Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Saskia

#### Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



#### PARTE HARTZEKO:

**Posta elektronikoa:** [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena 10/10/2021 egunera bitartean argazki bidez jakinaraziko da. Irabazlearen izena argazki bidez jakinaraziko da. Irabazlearen izena argazki bidez jakinaraziko da. Irabazlearen izena argazki bidez jakinaraziko da. Irabazlearen izena argazki bidez jakinaraziko da.

### Irabazi bi lagunendako otordua

#### HILARIO JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otordua atala eta hartu parte!  
Parte hartzeko atzen eguna: Martxoaren 2a arte

943 25 05 05 [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

KLUBA "Jatetxea" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

### Irabazi bi lagunendako sarrerak

#### Arrasateko udalari esker

"Atzerian lurra garratz" antzerkirako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Martxoaren 7an | 19:00etan

#### PARTE HARTZEKO:

**E-posta:** [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) **WhatsApp:** KLUBA "Antzerkia" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena 10/10/2021 egunera bitartean argazki bidez jakinaraziko da. Irabazlearen izena argazki bidez jakinaraziko da. Irabazlearen izena argazki bidez jakinaraziko da. Irabazlearen izena argazki bidez jakinaraziko da.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



**BAZKIDETZA KUOTA: 57€**  
Deitur: 943 25 05 05 • [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)





## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

**Baserría Oñatin.** Bikote gazte bat gara Oñatin baserría erosteko prest dagoena. 600 34 87 13

## 103. ERRENTAN EMAN

**Oñati.** San Anton kalean bi logelako etxebizitza ematen da errentan. Telefonoa: 635 30 93 48

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate edo Bergara.** Etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. Telefonoa: 633 49 27 40

**Arrasate.** Hiru ume dauzkan familia gara eta etxebizitza behar dugu errentan. 640 71 78 55

**Arrasate.** Lau kideko familia batek etxebizitza behar du errentan, Musakolan. Lana daukagu. Katua daukagu, baina lasaia eta garbia da. Presazkoa da. 651 89 59 16

**Bergara.** Bi pertsona nagusirendako etxebizitza behar dugu errentan. Iggogailuarekin edo beheko solairuan. Pentsiodunak gara. 645 72 92 87

## 105. ETXEA OSATU

**Bergara.** Logela ematen da errentan, San Lorentz. 699 75 52 21 edo 619 48 49 67

**Bergara.** Logela handia ematen da errentan, erdigunean. 671 16 54 60

## 2. GARAJEAK

## 204. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Garajea hartuko nuke errentan, Erguin kalean edo inguruan. Telefonoa: 688 61 28 38

## 3. LOKALAK

## 304. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** 'Kontzientzia Zentroa' sortzen ari gara eta gure ekintzetarako 120 metro koadro baino gehiagoko lokal bila garbitza. Harremanetarako: kontzientzia.zentroa@ gmail.com edo 617 24 29 95 edo 688 81 65 07

## 4. LANA

## 402. ESKAERA

**Arrasate edo Bergara.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 633 49 27 40

**Arrasate eta inguruak.** Etxeko lanak egin, nagusiak zaindu eta denetari-ko garbiketarako egiteko gertu nago. Autoa daukat. 636 11 23 40

**Arrasate eta inguruak.** Nagusiak zaintzeko gertu nago. Esperientzia daukat. Geriatria titulazioa eta Jaurilaritzako agiria. Etxean bertan bizi izaten, ere bai. 633 12 85 30

**Arrasate.** Neska gertu egunean zehar nagusiak eta umeak zaintzeko, sukaldetan edota garbiketetan jarduteko. Telefonoa: 610 99 70 46

**Bergara eta Arrasate.** Nagusiak zaintzen eta garbiketetan lan egingo nuke. Legezko agiriak daukat. 677 00 90 26

**Bergara.** Emakume euskalduna, soziosanitario titulua duena, arratsaldetan edo asteburuetan lan egingo eskaintzen da. 656 74 78 43

**Debagoiena.** Asteburuetan, orduka edo jardun osoz, lan egingo nuke. 632 25 27 26

**Debagoiena.** Denetari-ko garbiketarako egiteko gertu nago. Baita nagusiei laguntzeko ere: erostekak egitera, medikuarenera, ibiltzera eta abar. Autoa daukat. 645 72 92 87

**Debagoiena.** Emakumeak nagusiak zaintzen lan egingo luke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. 627 03 16 40

**Debagoiena.** Esperientzia handia eta erreferentzia onak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. Orduka zein asteburuetan. Autoarekin. 662 43 08 54

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo gauean nagusiak zaintzeko gertu nago. Legezko agiriak eta Jaurilaritzako ziurtagarria daukat. 602 12 79 79

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 602 33 07 73

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko gertu nago. Esperientzia, gomendio gutunak eta legezko agiriak. 617 01 28 31

**Debagoiena.** Garbiketetan eta nagusi zein umeak zaintzen lan egingo nuke. 632 12 42 42

**Debagoiena.** Garbiketetan, adinekoen zaintzan edo asteburuetan orduka lan egingo prest dagoen neska bat naiz. Telefonoa: 643 59 76 06

**Debagoiena.** Orduka, egun erdiz zein etxean bertan bizi izaten nagusiak zainduko nituzke. 632 53 28 51

**Debagoiena.** Hainbat lanetan jarduteko prest nago; pertsona nagusi edo umeen zaintzan, garbiketetan lanetan eta abar. Telefonoa: 641 44 16 30

**Debagoiena.** Leuntzaile, igeltsero eta soldatzaile lanetan arituko nintzateke. Baita nagusiak zaintzen ere. Esperientziarekin. 631 67 45 17

**Debagoiena.** Margotze lanetan, ibilgailu publiko zein pribatuak gidatzen, abeltzaintzan, etxe eta lursailak garbitzen edota sukaldetan esperientzia duen mutila lanerako gertu. Autoa daukat. Telefonoa: 636 26 68 11

**Debagoiena.** Mutila gertu eraikuntza peoi moduan, margotzen, denetari-ko garbiketarako egiten edota nagusiak zaintzen lan egingo. 631 47 14 11

**Debagoiena.** Mutila gertu eraikuntzan, garbiketetan eta abarretan lan egingo. 602 47 44 64

**Debagoiena.** Mutila gertu etxeak garbitzen eta nagusiak zaintzen jarduteko. 643 14 38 75

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaintzen edota garbiketetan lan egingo nuke. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Soziosanitario titulazioa dauka. 681 37 60 13

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko gertu nago. Baita baserrietan lan egingo ere. 672 55 67 35

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, garbiketetan edota ospitalean orduak egiten lan egingo nuke. 641 51 13 06

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, garbiketetan eta abarretan lan egingo nuke. 643 71 16 19

**Debagoiena.** Nagusien eta umeen zaintza eta garbiketetan lan egingo nituzke. Orduka, egunka edota etxean bertan bizi izaten. 631 19 75 84

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientzia duena gertu nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketarako egiten lan egingo. 603 34 85 01

**Debagoiena.** Neska gertu umeak eta nagusiak zaintzeko. 631 27 66 35

**Debagoiena.** Orduka lan egingo nuke, goizez zein arratsalde. Garbiketetan eta nagusi eta umeen zaintzan esperientzia eta erreferentzia onak daukat. 617 91 49 33

**Debagoiena.** Orduka, etxean bertan bizi izaten edo ordezkapenak egingo, zaintza lanak egingo nituzke. Baita atari eta abarren garbiketarako ere. Soziosanitario titulazioarekin. 643 73 62 36

**Debagoiena.** Zaintza lanak egingo nituzke. Baita atari eta abarren garbiketarako ere. Soziosanitario titulazioarekin. Telefonoa: 643 73 62 83

**Debagoiena.** Pertsona arduratsua eta esperientzia daukana, nagusiak zaintzeko gertu. Telefonoa: 688 47 44 64

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo prest nago. Telefonoa: 672 55 67 35

**Debagoiena.** Soziosanitario titulazioa eta legezko agiriak daukat eta nagusi eta umeak zaintzen edota garbiketarako zaitzeko gertu nengoke. Telefonoa: 688 84 10 63

**Debagoiena.** Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusien zain-

tzen jarduteko prest nago; orduka, gauze, asteburuetan. 631 98 15 50

**Debagoiena.** Umeak eta nagusiak zaintzeko gertu nago. 688 76 12 18

**Debagoiena.** Urte askotako esperientzia eta erreferentzia onak dituen emakumea egunean zehar zaintza lanak egingo gertu. 643 86 70 83

**Debagoiena.** Urte askotako esperientzia eta erreferentzia onak dituen emakumea zaintza lanak egingo gertu. Telefonoa: 696 30 19 10

**Debagoiena.** Zaintza eta garbiketetan lan egingo nituzke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Telefonoa: 658 92 43 73

**Eskoriatza, Aretxabaleta edo Arrasate.** Ikastaro soziosanitarioan trebakuntza prozesuan dagoen gizon bat eskaintzen da adineko gizonak zaintzeko, goizetan edo arratsaldetan. 642 98 98 06

**Oñati.** Neska euskalduna pertsona nagusiak zain-

tzeko prest. Erizain laguntzaile titulazioarekin. Telefonoa: 677 05 39 06

## 6. MOTORRA

602. EROSI

**Land Rover bila nabil.** Land Rover Defenderra behar dut baserrirako. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, maburata, edota kolpearekin. 623 17 95 37

## 7. ANIMALIAK

703. EMAN

**Txakurkumea.** Txakurkumea ematen da opari. Labrador arrazaren nahasketa da. Telefonoa: 637 09 51 04

## 8. DENETARIK

802. EROSI

**Arrasate.** Arrasaten lursail bat erosi edo errentan hartzeko interesaturik gaude. 658 72 52 22

**Oñati.** Basoko lur sail bat erosi nuke, pinuarekin edo gabe. 664 37 44 19

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



MARKEL ARRAYAGO

## MIREIA GABILONDORI ELKARRIZKETA

'Galdegazte' Eguaztena, 21:30 eta 23:30



JAKIUNDE

## JUAN IGNAZIO PEREZ IGLESIASI ELKARRIZKETA

'Harira' Martitena, 21:30 eta 23:30

## EGUBAKOITZA, 26

09:00 Kantari Aretxabaleta 6  
09:30 Kantari Aretxabaleta 7  
10:00 Hemen Debagoiena  
11:00 EKT: Gari  
11:30 Hala Bazan: Txiste kontari  
12:00 Hemen Debagoiena  
13:00 Hemen da Miru 14  
13:30 Elkarrizketa: Jon Plazaola  
14:00 Hemen Debagoiena  
15:00 Albisteak  
15:30 EKT: Gari  
16:00 Albisteak  
16:30 Elkarrizketa: Jon Plazaola  
17:00 Albisteak  
17:30 Adinberri 5  
18:00 Hemen Debagoiena  
19:00 Ahotsenea: Marlik  
19:30 EKT: Gari  
20:00 Hemen Debagoiena  
21:00 Elkarrizketa: Jon Plazaola  
21:30 Hala Bazan: Gizartea  
22:00 Hemen Debagoiena  
23:00 EKT: Gari  
23:30 Hala Bazan: Gizartea

## ZAPATUA, 27

08:00 Elkarrizketa: Jon Plazaola  
08:30 Hemen da Miru 13  
09:00 Kantari Aretxabaleta 8  
09:30 Kantari Aretxabaleta 7  
10:00 Kantari Aretxabaleta 9  
10:30 Hala Bazan: Gizartea  
11:00 Hitzaldia: Andoni Egaña  
12:00 Harmailatik  
12:30 Zirikatzen 12  
13:00 Hemen Debagoiena  
14:00 Elkarrizketa: Jon Plazaola  
14:30 Asteko errepasoa  
15:30 EKT: Gari  
16:00 Hemen Debagoiena  
17:00 Harmailatik  
17:30 Zirikatzen 12  
18:00 EKT: Gari  
18:30 Asteko errepasoa  
19:30 Hala Bazan: Gizartea  
20:00 Elkarrizketa: Jon Plazaola  
20:30 Zirikatzen 12  
21:00 Hemen Debagoiena  
22:00 Ahotsenea: Marlik  
22:30 EKT: Gari

## DOMEKA, 28

08:00 Hemen da Miru 13  
08:30 Hemen da Miru 14  
09:00 Hemen da Miru 12  
09:30 Kantari Aretxabaleta 7  
10:00 Kantari Aretxabaleta 8  
10:30 Kantari Aretxabaleta 9  
11:00 Hemen Debagoiena  
12:00 Ahotsenea: Marlik  
12:30 EKT: Gari  
13:00 Hitzaldia: Andoni Egaña  
14:00 Hala Bazan: Txiste kontari  
14:30 Hala Bazan: Gizartea  
15:00 Hemen Debagoiena  
16:00 Hemen da Miru 12  
16:30 Kantari Aretxabaleta 8  
17:00 Kantari Aretxabaleta 7  
17:30 Hemen da Miru 13  
18:00 Hemen Debagoiena  
19:00 Hala Bazan: Gizartea  
19:30 EKT: Gari  
20:00 Hemen Debagoiena  
21:00 Harmailatik  
21:30 Hitzaldia: Andoni Egaña  
22:30 Hala Bazan: Gizartea  
23:00 Ahotsenea: Marlik

## EGUBAKOITZA, 26

## 'BERTSOLARITZAREN GENEALOGIA FEMINISTAK'

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00

## ASTELEHENA, 1

## KIROL ALBISTEAK

'Harmailatik'

21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: [goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista) Edo eskaneatu aldarmeneko qr kodea.

## EGUAZTENA, 3



GOIENA

## PATXI HUARTERI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa'

21:00/23:00

## EGUENA, 4

## UXUE ALBERDIRI ELKARRIZKETA

'EKT'

21:30/23:30

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.



OROIGARRIA

**Gary  
Baños-Antigua  
Morcillo**



2021eko otsailaren 20an hil zen, 42 urte zituela.

---

*Gazte baten heriotza,  
Tristeza, gogorra, mingotsa.  
Malko uholdea, negar hotsa  
dolua, saminarekiko morrontza.  
Maitasunaren aitortza  
osatu, urratutako bihotza.*

---

Lizarralde Kirolak-eko lagunak.  
Oñatin, 2021eko otsailaren 26an.

OROIGARRIA

**Gary  
Baños-Antigua  
Morcillo**



2021eko otsailaren 20an hil zen, 42 urte zituela.

---

*Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.*



---

Kalezaharra elkarte.  
Oñatin, 2021eko otsailaren 26an.

OROIGARRIA



**Gary  
Baños-Antigua  
Morcillo**



2021eko otsailaren 20an hil zen, 42 urte zituela.

---

Haren emaztea: Idoia Aierbe.


*Amorruz ta negarrez  
gaude irakiten,  
ulergaitzak baitira  
hamaika bizipen.  
Segi dezagun zure*

*bidea egiten,  
irrifar eder horri  
jarraika nonbaiten,  
ta erakutsi zenigun  
gurpila eragiten.*


---

Aierbe lehengusuak eta lehengusu txikiak.  
Oñatin, 2021eko otsailaren 26an.

OROIGARRIA



**Gary  
Baños-Antigua  
Morcillo**



2021eko otsailaren 20an hil zen, 42 urte zituela.

---

Boga tabernako zure lagunak.

---

Oñatin, 2021eko otsailaren 26an.

OROIGARRIA



**Gary  
Baños-Antigua  
Morcillo**  
-Goian bego-



2021eko otsailaren 20an hil zen, 42 urte zituela.

---

*Samindurik dugu bihotza  
Motel bizitzaren garra  
Gaur faltan sumatzen dugu  
Zuk emandako indarra.*

---

Idoiaren kuadrilla.  
Oñatin, 2021eko otsailaren 26an.

OROIGARRIA

**Gary  
Baños-Antigua  
Morcillo**



2021eko otsailaren 20an hil zen, 42 urte zituela.

---

Baños-Antigua familiak ez zaitugu ahaztuko.

*Familiako alaitasuna  
zinen guretzako, Gari.  
Bizitzak bere injustizia  
berri bat egin du garbi.*


*Denok maitatzen zintugun.  
Azken mendia azken belardi.  
Goitik begira bihur itzazu  
gure ilun denak argi.*

---

Oñatin, 2021eko otsailaren 26an.

OROIGARRIA


**Jose Ramon  
Goikoetxea Madinabeitia**  
'Goiko'



2021eko otsailaren 19an hil zen, 72 urte zituela.

---

*Jakinez egin, eginez duin; zurekin egoteak aberastu gaitu.  
Zure gidak maisutasunez argitu eta bidea malgutasunez egiten irakatsi diguzu.  
Gurea zure eginez ikasi dugu elkarrekin.  
Umore finez eta lanerako gogoarekin oroituko zaitugu beti.*



---

Desoreka judo kluba.  
Arrasaten, 2021eko otsailaren 26an.

OROIGARRIA



**Jose Ramon  
Goikoetxea  
Madinabeitia**  
'Goiko'



2021eko otsailaren 19an hil zen, 72 urte zituela.


---

*Itxi dituzu begiak, Joxerra  
eta loratu dira basoak.  
Onduko dira fruituak  
eroriko dira hostoak  
zurituko dira ostera gailurrak  
eta zure irribarrearen hazia  
loratuko da gure soroan.*


---

Senideak.  
Arrasaten, 2021eko otsailaren 26an.

ESKER ONA



**Tomasita  
Ugalde Olalde**  
Felipe Alceyaren alarguna



2021eko otsailaren 17an hil zen, 92 urte zituela.

---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiararen izenean.

---

Bergaran, 2021eko otsailaren 26an.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

| ARRASATE EGUNEZ   |  |
|---|--|
| Egubakoitza, 26 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39              | Zapata, 27 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74      |
| Domeka, 28 ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65 | Astelehena, 1 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09        |
| Martitzena, 2 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30 | Eguaztena, 3 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15 |
| Equena, 4 M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99        |  |
| BERGARA EGUNEZ  |  |
| Egubakoitza, 26 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05        | Zapata, 27 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63                 |
| Domeka, 28 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63                | Astelehena, 1 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15              |
| Martitzena, 2 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74  | Eguaztena, 3 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87             |
| Equena, 4 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05              |  |
| ORATI EGUNEZ BAKARRIK   |  |
| Egubakoitza, 26 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16         | Zapata, 27 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16               |
| Domeka, 28 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16              | Astelehena, 1 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22           |
| Martitzena, 2 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22          | Eguaztena, 3 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58             |
| Equena, 4 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58               |  |

Cipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:  
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

URTEURRENA

**Juan Cruz  
Odriozola Iñurritegi**



2020ko urtarrilaren 19an hil zen, 63 urte zituela.

---

Urteurreneko meza zapatuan izango da, otsailaren 27an,  
18:00etan, Oñatiko San Miguel parrokian.

Oharra: mezaren ordua 18:00etan izango da,  
19:00etan izan beharrean.

---

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.  
Oñatin, 2021eko otsailaren 26an.



**Oroilore**  
Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu



*Gure artean agurtutako  
guztiei euren bidea aurkitzen  
lagundu diegu, orain arte  
bezala, eta guztiek izango  
dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerririk beroenak gugan  
izan duzuen konfiantzagatik  
eta maitasunagatik.*

**Ion, Mario, Iban eta Maribi**

---

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA  
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

## TXUTXU-MUTXUAK



1




2



3



4



5

## Kontatu, kontatu!

Badakazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzue? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

### Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

### 1. Eskubideak aldarrikatzen

Mendebaldeko Sahararen autodeterminazio erreferenduma exijitzeko elkarretaratzea egin zuten aurrekoan Arrasaten. Bat egin zuen deialdiarekin Emakumeen Mundu Martxak.

### 2. Felix Iñurrategiri omenaldia

*Iñurrategi anaiak.* Mendiari bihotz emanak komikiaren aurkezpenean, egileak eta Alberto Iñurrategi egon ziren Eskoriatzan. Ostean, mendi argazkien erakusketa ikusi zuten.

### 3. Askotariko pertsonaiak irudikatzen

Eginkizun horretan ipini zituzten Eli Pagola, Jokin Bergara, Maider Arregi eta Amaia Iturriotz bertsolariak, Bergaran. Bertso-trama ederra osatu zuten.

### 4. Hard-rock doinuez gozatzen

La Excavadora taldeak diskoa aurkeztu zuen aurreko asteburuan Oñatin. Aurretik eskarmentua handia duten musikariak batu dira proiektu berri horretan.

### 5. 25 urte ezkontuta

Segundo Uribetxeberria eta Ana Aranegi arrasatearrak ospakizunetan daude. "Zorionak, bikote, lagunen partetik! Jarraitu zuen umorearekin eta irribarrekin".



ZORION AGURRAK




ESKORIATZA  
**Nahia Navas Clemente**  
Martxoaren 2an, 7 urte. Zorionak, maitia! Mila musu etxeko guztion partetik. Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Askok maite zaitugu!



OÑATI  
**Lexuri Altube Arkonada**  
Martxoaren 2an, 10 urte. Zorion on-onak, maitia! 10 urte jada! Jarraitu zaren moduko arduratsua, alai eta jatorra izaten. Ederki ospatuko dugu zure eguna, merezi duzu-eta! Izugarri maite zaitugu! Muxu goxoak etxeko, eta batez ere, aitaoren, amatxoren eta Laiatzen partetik.



OÑATI  
**Julen Odriozola Larrañaga**  
Martxoaren 1ean, 7 urte. Zorionak, Julen! Ondo pasatu zure egunian. Patxo pila bat familixako danon partetik.



ONDARROA  
**Aran Balerdi Zeberio**  
Martxoaren 1ean, 5 urte. Zorionak, Aran! Gure etxeko txikiak bost urte bete ditu. Patxo potolo bat etxeko partetik!



BERGARA  
**Eki Markina Urizarbarrena**  
Otsailaren 28an, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Segi horrelako alai izaten. Muxu handi bat familixako denon partetik!



BERGARA  
**Julen Mendiaraz Osinalde**  
Otsailaren 28an, 3 urte. Zorionak, Julen! Dagoeneko hiru urte! Ondo ospatu eguna eta muxu handi bat, familia osoaren partetik.




ARRASATE  
**Beñat Irazabalbeitia Fernandez**  
Otsailaren 27an, 4 urte. Zorionak, maitia, gure bizitzako argia. Musu handi bat, Olaiaren eta gurasoen partetik.



OÑATI  
**Unai Luis Gomez**  
Otsailaren 27an, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu erraldoi pila bat, etxeko danon partetik.



OÑATI  
**Anje Gezalaga Rodriguez**  
Otsailaren 27an, 7 urte. Zorionak, Anje! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna! Patxo handi bat etxeko partetik!



ARRASATE  
**Eider Balantzategi Eiro**  
Otsailaren 26an, 9 urte. Zorionak, *bixto!* Oso ondo pasatu zeure egunean. Muxu handi bat familia osoaren partetik.




BERGARA  
**Sara Sotil Barrio**  
Otsailaren 26an, 9 urte. Zorionak, bihotz! Aurtengo zure urteguna desberdina dan arren, egun zoragarria pasatu etxekoekin! Muxu erraldoi bana familia osoaren partetik. Bereziki, Aratz, Unai, Malen eta Unax.



BERGARA  
**Malen Azkarate-Askasua Baleztena**  
Otsailaren 25ean, 6 urte. Urte askotarako, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Merendola ederrarekin ospatuko dugu etxean. Patxo potolo bat etxeko partetik.




BERGARA  
**Ander Garai Zenitagoia**  
Otsailaren 25ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo erraldoi bat familia osoaren partetik.



ARRASATE  
**Aitor Garcia Salaberri**  
Otsailaren 25ean, 9 urte. Zorionak, Aitor! Ondo-ondo pasatu zure egunian! Muxu eta besarkada pilo bat etxeko danon partetik.



BERGARA  
**Aitor Perez Elkorobarrutia**  
Otsailaren 24an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna! Patxo eta besarkada handi bat familia osoaren, eta bereziki, Hodeiren eta Maddiren partetik.




ARETXABALETA  
**Miguel Rico**  
Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna! Patxo eta besarkada handi bat familia osoaren, eta bereziki, Hodeiren eta Maddiren partetik.



OÑATI  
**Alba Vaz Olabe**  
Otsailaren 24an, 4 urte. Zorionak, maitia! Horrelako irribarretsu eta sinpatika jarrai dezazula. Muxu potolo bat familiako guztion partetik.



OÑATI  
**Eñaut Marko**  
Otsailaren 23an, urtebete. Zorionak, Okuku! Jada urtetxo bat egin dozu! Patxo handi bat etxeko danon, eta bereziki, Aiertan eta Mirenen partetik.




ARRASATE  
**Mara Garcia Martin**  
Otsailaren 23an, 8 urte. Zorionak, Mara! Zortzi urte! Muxu erraldoi bat! Aitaxo eta amatxo.



BERGARA  
**Malen Gimber Garcia**  
Otsailaren 21ean, urtebete. Zorionak, printzesa! Dagoeneko urtetxo bat igaro da. Zure lehenengo urtebetetzea zoragarria izan dadila. Zorionak eta patxo handia familia osoaren partetik.



OÑATI  
**Aitor Baleztena**  
Otsailaren 20an, urtebetetzea. Zorionak Bergarako mendilagunen, eta bereziki, Aitor-Txikiren partetik. Desiratzen dago berriz zurekin mendian egunpasak egiteko. Eguna noiz bueltatuko den zain. Besarkada bero bat Aitor-Haundil!



BERGARA  
**Haizea Sanchez**  
Otsailaren 19an, 10 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure eguna! Musu handi bat!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



ARETXABALETA  
**Unax Barandiaran Otxoa**  
Martxoaren 4an, 6 urte! Zorionak, mutiko handi eta ondo-ondo pasatu! Familixakuen partetik.



ANTZUOLA  
**Paule Acosta Seguroa**  
Otsailaren 16an, 4 urte. Zorionak, txikitina! Aurten zure urtebetetzea konfinatuta pasatu arren, edarki ospatu ditugu zure lau urtetxoak. Muxu potolo pila bat Maddiren, amatxoren eta aitaoren partetik.



ARRASATE  
**Aner Marquez Lozano**  
Otsailaren 18an, 11 urte. Zorionak, Aner! Oso ondo pasatu zure egunean, txapeldun! Muxu asko 'Distrito 33'-ko bizilagunen partetik.



OÑATI  
**Izar Arenaza Barriola**  
Otsailaren 18an, 6 urte. Zorionak, polit! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta jaso muxu potolo bat, maite zaitugun denon partetik.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 26

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**Pentsio duinak eskatzeko.  
*Olakua auzoan, 12:00etan.***ARRASATE Merkemerka azoka**Ibai-arteko merkatariek udazken eta neguko produktuak eskainiko dituzte prezio ezin hobeetan.  
*Herriko kaleetan, 16:30etan.***ESKORIATZA 'Ipuinen ordua'**Lehen Hezkuntzako seigarren mailako neska-mutikoendako. Aurrez eman behar zen izena.  
*Ludotekan, 16:45ean.***ELGETA 'Ipuinen ordua'**Lehen Hezkuntzako 3., 4. eta 5. mailetakoko neska-mutikoendako, kontalari boluntarioen eskutik.  
*Liburutegian, 17:30etan.***OÑATI Ipuin kontaketa helduentzat -sarrerak agortuta-***La vida es cuento* izeneko saioa egingo du Uruguaiako Soledad Felozak.  
*Kultura etxeko erakusketa aretoan, 18:30ean.***ARRASATE 'Okupazioaren kontrako ofentsiba' hitzaldia**Langile Kontrolpeko Espazioen Babes Sarearen eskutik.  
*Kulturaten, 18:30etan.***ARETXABALETA 'Mendian hil, hirian hil' dokumentala**Doluari buruz Iñaki Peñak zuzendutako lana. Sarrerak, hiru euro.  
*Arkupen, 19:00etan.***ESKORIATZA Mendi Tour film festival***Charge 2, Harda-the tough, Out of the blue* eta *North Country* pelikula emango dituzte, jatorrizko bertsioan, azpigituluekin.  
*Zaldibar antzokian, 19:00etan.***ELGETA Ipuin erotikoak***Berotik, erotik, zerotik* izeneko saioa egingo du Ixabel Agirresarobek. Izena aurrez eman behar da.  
*Liburutegian, 19:30etan.***BERGARA Pilota partiduak**Bigarren urteko kadete mailako Gipuzkoako binakako txapelketa. Alberdi-Lazpiur bergararrak, Zumaiako bikote baten kontra.  
*Pilotalekuan, 19:45ean.*

## ZAPATUA 27

**ARRASATE M8: batzar irekia**Martxoaren 8rako ekarpenak jaso gura dituzte.  
*Kulturaten, 10:30etan.***BERGARA 'Ondo bereiztua, asko aurreztua!' kanpaina**Informazio puntua, eta haurrendako eta gaztetxoendako ekintzak, Mankomunitatearen eskutik  
*San Martin plazan, 10:30etan.***ARRASATE Merkemerka azoka**Gainera, haurrendako eta gazteendako ekintzak egongo dira.  
*Herriko kaleetan, 11:00etan.***LEINTZ GATZAGA Ginkana eta Zuhaitz Eguna**11:00etan, ginkana egingo dute, eta ostean, Gatzaga eta Gatzagain artean fruta-arbolak landatuko dituzte.  
*Herrigunean, 11:00etan.***ANTZUOLA Lodifobiaz jardungo dute**Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, gorputz subertsiboaren politika izango dute aztergai.  
*Torresoroan, 11:00etan.***ARRASATE Ludoteka ibiltaria**3-12 urte artekoendako. Aurrez eman behar da izena.  
*Gazte txokoan, 11:30etan.***OÑATI Sahararen aldeko elkarretaratzea**Egoera salatzen eta konponbidea aldarrikatzeko elkartuko dira, *Sahara askatu* leloarekin, Saharar Errepublikaren 45. urteurrenean.  
*Foruen plazan, 12:00etan.***ARRASATE 'Afrika ez da historia bakarra' hitzaldia**Irekia, edukiera mugatuarekin.  
*Gaztetxean, 12:00etan.*

MONDA LIRONDA

**ARAMAIO 'Detektibeak' antzezlan**Monda eta Lironda detektibeak liburutegian galdu diren liburuak topatzen ahaleginduko dira. Era berean, mailegu zerbitzuaren nondik norakoak azalduko dizkiete umei.  
*Kultura etxean, 17:30etan.***ARRASATE 'Burgosko Prozesua. 1970-2020' erakusketa**Testuinguru historikoa; giza eskubideen urraketak eta errepresioa; eta epaiketan gertatutakoa jaso dute Aldundiak eta Aranzadi zientzia elkarteak.  
*Kulturaten, 17:30etan.*

## DOMEKA 28

**BERGARA Pilota partiduak**Gipuzkoako lau eta erdiko txapelketako hiru partidu: Alberdi-Etxebeste; Etxezarreta-Iriondo eta Bergara-Etxabe.  
*Pilotalekuan, 10:30etan.***OÑATI Ameba taldea**Usurbilgo jaietan sortutako musika taldeak azaroan eman zuen lehen kontzertua. *Elikatuz* diskoa aurkeztuko dute. Edukiera mugatua.  
*Gaztetxean, 12:00etan.***BERGARA 'Sopas & sorber' erakusketa**EHUko Pintura masterreko ikasleek egindako lanak ikusteko aukera. Gaur da bilduma ikusteko azken eguna.  
*Aroztegin, 12:00etatik 14:00etara.***ARRASATE 'Familian jolasean'**0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako txokoa.  
*Okendoko ludotekan, 17:30etan.***ELGETA Intsumisioa hizpide***Bi urte, lau hilabete eta egun bat* ikus-entzunezkoa, eta bi elgetarren testigantza.  
*Espaloian, 18:00etan.***ESKORIATZA Mendi Tour film festival***Arriesgarse a vivir, L'escalade Liberee*, eta *Everest: the hard way* pelikula emango dituzte, jatorrizko bertsioan, azpigituluekin.  
*Zaldibar antzokian, 19:00etan.***ARETXABALETA 'Trabajos de interior' antzezlan**Zentzurik gabeko existentzia duen emakume baten bizipenak kontatzen ditu Behi's Bis taldeak. Sarrerak, lau euro.  
*Arkupen, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 1

**ARRASATE 'Ziurgabetasun garaietarako pasaportea' hitzaldia**MUko irakasle Aitor Zuberogoiatik eta Monika Madinabeitiak egingo dute berba, Goienagusik gonbidatuta.  
*Kulturaten, 10:00etan.***OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**Pentsio duinak eskatzeko.  
*Foruen plazan, 12:00etan.***ARAMAIO 'Detektibeak' antzezlan**Monda eta Lironda detektibeak liburutegian galdu diren liburuak topatzen ahaleginduko dira, ikuskizunera doazen umeekin.  
*Bihar, zapatua, kultura etxean, 17:30etan.***ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea**Pentsio duinak eskatzeko.  
*Herriko Plazan, 12:00etan.***ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea**Pentsio duinak eskatzeko.  
*Herriko Plazan, 12:00etan.***BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea**Pentsio duinak eskatzeko.  
*San Martin plazan, 12:00etan.***ESKORIATZA Eskulanak gaztelekuan**Marxoko hiru zapatutan egingo den partxis txapelketako materiala prestatuko dute: dado erraldoiak eta kamisetak. Gaur, LHko 3. eta 4. mailetakoko ikasleak.  
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

## MARTITZENA 2

**ARETXABALETA M8: batzar irekia**Martxoaren 8ko egitaraua zehazteko proposamenak egiteko aukera bikoitza: 15:00etan eta 18:00etan.  
*Arkupeko bigarren solairuan.***OÑATI Noka ikastaroa**Jabekuntza Eskolaren baitan.  
*Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.***ESKORIATZA Eskulanak gaztelekuan**

Marxoko hiru zapatutan egingo den partxis txapelketako materiala





AMEBA

**OÑATI Ameba taldea**

Usurbilgo jaietan sortutako musika taldeak azaroan eman zuen lehen kontzertua. Enara Eizagirrek, Haritz Zabaletak, Jon Mikel Azpiatzuk eta Malen Azpiatzuk osatzen dute taldea, eta *Elikatuz* diskoa aurkeztuko dute. *Domekan, gaztetxean, 12:00etan.*

prestatuko dute: dado erraldoiak eta kamisetak. Gaur, LHko 5. eta 6. mailetako ikasleak.

*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**EGUAZTENA 3**

**ARRASATE 'Derecho y retos de las mujeres a dos décadas de la entrada del siglo XXI'** hitzaldia EHUKO katedratiko Maggi Barrerek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.

*Kulturaten, 10:00etan.*

**ARRASATE Lilatoirako entrenamendua, Sasoibiderek**

Oinezko lasterketa birtuala egingo dute. Monterron-Gernika etorbidea-Mojategi-Eroski-ospitalea-Arizmediarrieta plaza ibilbidea egingo dute.

*Monterronen, 16:00etan.*

**ESKORIATZA Memoria lantegia**

Olazar erretiratu elkartearen eskutik.

*Kultura etxean, 16:30ean.*

**OÑATI 'Oxigenoa euskarari 6.000 metroan ere' dokumentala**

Felipe Uriarte mendizaleak egingo du aurkezpena.

*Santa Ana antzokian, 18:00etan.*

**OÑATI 'No hay matriarcado ni en el supermercado' bakarriketa**

Irantzu Varelarekin kazetariarekin. *Zinema aretoan, 18:00etan.*

**ZINEMA****ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

**El padre**  
Zapatua eta domeka: 19:00.

**Gatos**  
Zapatua eta domeka: 16:00.

**BERGARA****SEMINARIXOA**

**El baile de la gacela**  
Domeka eta astelehena: 18:30.

**Las aventuras del doctor Dolittle**  
Domeka: 16:00.

**OÑATI****KULTURA ETXEA**

**El profesor de persa**  
Egubakoitzetik astelehenera: 19:00.

**Pequeño gran lobo**  
Zapatua eta domeka: 16:30.

**ANTZUOLA****TORRESOROA**

**The Florida project**  
Domeka: 18:00.

**EIBAR****COLISEO**

**Pequeños detalles**  
Zapatua: 16:00, 18:30.  
Domeka: 16:00.

**La chica del brazalet**  
Zapatutik astelehenera: 19:00.

**Entre nosotras**  
Domeka: 16:00, 19:00.  
Astelehena: 19:00.

**ANTZOKIA**

**Pequeños detalles**  
Domeka eta astelehena: 18:30.

**GASTEIZ****GORBEIA**

**En guerra con mi abuelo**  
Egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena: 17:30.  
Domeka: 12:00, 17:30.

**Wonder woman**  
Egubakoitza eta zapatua: 18:30.  
Domeka: 11:30, 18:30.  
Eguaztena eta eguena: 16:40.

**Los croods**  
Egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena: 17:25.  
Domeka: 12:00, 17:25.

**El pequeño vampiro**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:30.  
Domeka: 12:00, 17:30.

**Las niñas**  
Egubakoitza, zapatua, eguaztena eta

eguena: 19:20.  
Domeka: 12:00, 19:20.

**Elfinks**  
Egubakoitzetik domekara: 16:50.

**Akelarre**  
Egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena: 19:25.  
Domeka: 12:00, 19:25.

**Nuevo orden**  
Egubakoitzetik domekara: 17:40, 19:30.  
Eguaztena eta eguena: 19:30.

**Entre nosotras**  
Egubakoitzetik domekara: 19:20.  
Eguaztena eta eguena: 17:25.

**La boda de Rosa**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:20.  
Domeka: 12:00, 17:20, 19:20.  
Eguaztena eta eguena: 17:05.

**La chica del brazalet**  
Egubakoitzetik domekara: 19:20.  
Eguaztena eta eguena: 19:25.

**La Sra. Lowry e hijo**  
Egubakoitzetik domekara: 17:25.  
Eguaztena eta eguena: 19:30.

**Pequeños detalles**  
Egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena: 17:00, 18:50.

Domeka: 11:15, 17:00, 18:50.  
**Dating amber**  
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:25.  
Eguaztena eta eguena: 19:25.

**Elfinks**  
Domeka: 11:30.

**GASTEIZ****FLORIDA**

**Ane**  
Egubakoitzetik domekara, martitzena eta eguaztena: 19:20.

**La gallina Turuleca**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**La oveja shaun**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Las aventuras del doctor Dolittle**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**La chica del brazalet**  
Egunero: 19:20.

**Nuevo orden**  
Egunero: 17:40, 19:30.

**Entre nosotras**  
Egubakoitzetik domekara, martitzena eta eguaztena: 17:25.

**Luces en la ciudad**  
Astelehena: 17:25, 19:20.

**BERGARA Eguaztenetako azoka**  
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera. *Oxirondon, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Eskulanak gaztelekuan**

Martxoko hiru zapatutan egingo den partxis txapelketako materiala prestatuko dute: dado erraldoiak eta kamisetak. Gaur, LHko 3. eta 4. mailtako ikasleak. *Gaztelekuan, 18:00etan.*

**OÑATI 'Consumimos violencia' ikerlanaren aurkezpena**

Setem Hego Haizea taldearen eskutik, gaztelaniaz. *Kultura etxeko zinema aretoan, 18:00etan.*

**BERGARA 'Caminho longe' pelikula**

Josu Martinezen eta Txaber Larreategiren filma, jatorrizko bertsioan, azpittuluekin. *Seminarixoa, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Erraiak' dokumentala**

Irrintziaren jatorriari buruzko ikus-entzunezko ikusi ostean, Ekain Martinez de Lizarduy zuzendariarekin solasaldia. *Kulturaten, 19:00etan.*

**BERGARA 'Caminho longe' pelikula**

Josu Martinezen eta Txaber Larreategiren filma, jatorrizko bertsioan, azpittuluekin. *Seminarixoa, 18:30ean.*

**EGUENA 4**

**ARRASATE Lilatoirako entrenamendua, Sasoibiderek**

Oinezko lasterketa birtuala egingo dute. Monterron-Gernika etorbidea-Mojategi-Eroski-ospitalea-Arizmediarrieta plaza ibilbidea egingo dute. *Monterronen, 10:00etan.*

**ELGETA 'Danon artian Elgeta 2030' herri batzarra**

Aurrera begirako proposamenak eta estrategiak landu eta lehenetsiko dituzte. Edukiera mugatuarengatik, aurrez eman behar da izena,

943-76 80 22 telefonoan edo *elgeta@udala.eus* helbidean. *Espaloian, 19:00etan.*

**ESKORIATZA Eskulanak gaztelekuan**

Martxoko hiru zapatutan egingo den partxis txapelketako materiala prestatuko dute: dado erraldoiak eta kamisetak. Gaur, LHko 5. eta 6. mailtako ikasleak. *Gaztelekuan, 18:00etan.*

**BERGARA 'Jolasaren garrantzia eta hezitzaileak' hitzaldia**

Itxaso Pagoagak egingo du berba. *Seminarixoa, 18:00etan.*

**BERGARA '30 emakume ahaztezin' erakusketa**

Gaur inauguratuko dute erakusketa. Ikusgai, martxoaren 31ra arte. *Laboratoriumen, 18:00etan.*

**OÑATI 'Entre nosotras' pelikula**

M8aren harira, zineklub emanaldia. *Kultura etxean, 19:00etan.*

**EGUBAKOITZA 5**

**ESKORIATZA Partxis jolasa**

LHko hirugarren mailako neska-mutikoendako, seiko taldeetan. *Intxaurtxueta parkean, 16:45ean.*

**ESKORIATZA Partxis jolasa**

LHko 5. eta 6. mailtako neska-mutikoendako, seiko taldeetan. *Intxaurtxueta parkean, 16:45ean.*

**ESKORIATZA 'No hay matriarcado ni en el supermercado' bakarriketa**

Irantzu Varelarekin kazetariarekin. Sarrerak, bost euro. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

**ZAPATUA 6**

**OÑATI Zuhaitz azoka**

Arbolak eta landareak erosteko aukera, Ingurumen Jardunaldietan. *Foruen plazan, 09:00etan.*

**ELGETA 'Ondo bereiztua, asko aurreztua!' kanpaina**

Informazio puntua eta haurrentako eta gaztetxoendako ekintzak. *Mendizaleen plazan, 10:30ean.*





AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

## Mikel Zabalza oroit

1985. urtea zen. Abesbatzan kantatzen nuen orduan, Errenterian, eta entsegu eguna zen. Lagunekin izan genuen elkarrizketa gogoan dut: "Mikel Zabalza azaldu omen da Bidasoa ibaian hilda". 20 egun pasa ziren 32 urteko Orbaizetako gizona, Donostian autobus gidaria, Guardia Zibilak atxilotu zuenetik.

Bagenekien emandako bertsio ofiziala ez zela egia. Mundu guztiak zekien behin Intxaurrendoko infernu gorrian sartuz gero, ez zegoela gauza onik. Garai hartan askok genuen lagun bat Intxaurrendotik pasatakoa... bañera, poltsa -burutik behera sartuta-, zigarro erredurak... Tortura horiek guztiak oso ezagunak ziren. Garai iluna, surrealista. Ohikoak ziren tortura hauek Galindo jeneralaren beldurrezko erreinuan, eta Mikel Zabalzak hantxe eman zuen bere azken hitza.

Egun hauetan argitaratu da CESIDeko Perote jenerala eta Guardia Zibil kapitainaren arteko elkarrizketa argigarria: "Se les ha ido la mano, se les ha quedado en el interrogatorio a consecuencia de la bolsa en la cabeza". Ikaragarria, barruak astintzen dizkit entzutean! 36 urte joan dira eta jada ez dago justiziarik hori ordaintzeko, baina egia azalera tezak beti lagutzen du.

## BUKATZEKO



Argentinako Sebastian Amayak eta Agurne Juldain arrasatearrak Mintzanet ekimenean parte hartzen dute. IMANOL SORIANO

# Euskarak batu dituen nazioarteko adiskideak

Euskara online eta doan praktikatzeko aukera ematen duen Mintzanet ekimenaren bidez ezagutu dute elkar Arrasateko Agurne Juldainek eta Argentinako Sebastian Amayak; asteburuan aurrez aurre ezagutzeko aukera izan dute, Arrasaten elkartuta

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Buenos Airesko (Argentina) Laurak Bat euskal etxean euskara irakaslea da Sebastian Amaya, eta, horrez gainera, literatura irakasle ere badihardu ikastetxe batean. Ikasketez psikologoa da Agurne Juldain eta Sarea Fundazioak Arrasaten duen Bidean gizarteratzeko zentroa du lantoki.

Euskaraz berba egiteko gogoak bultzatuta ezagutu zuten apirilean elkar; harrezkero, zapaturo egin dute hitzordua, onlinem euskaraz berba egiteko.

**Mintzanet programaren bidez** Irabazi asmorik bako ekimena da Mintzanet; Maramara Taldea enpresak kudeatzen du, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoa-

ko Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren laguntza du. Euskaraz jarduteko aukera handirik ez duela-eta egin zuen Amayak ekimenarekin bat. "Nire birraitona eta birramona Euskal Herrikoak ziren; horrez gain, asko gustatzen zait euskara, eta gustura nago euskararekin. Ekimen oso baliagarria da, asko ari naiz ikasten, eta, gainera, lagun

bat irabazi dut", dio Amayak, eta zera gaineratu du Juldainek: "Arrasateko Zahar Berri egitasmoan jardun izan dut aurretik, eta telebistan Mintzanet ekimenerako boluntarioak behar zizutela ikusi nuenean eman nuen izena, euskararen alde nire aletxoa jarri guran. Getxoko neska bat jarri zidaten *bidelari* eta ni *Bidelagun* rolean; harekin saio batzuk egin nituen, eta, geroago, beste *bidelari* bat proposatu zidaten, Sebastian. Eguneroko gaiet buruz egiten dugu berba, eta, gauden garaian, nola ez, pandemiaren hango eta hemengo gertakarien bueltakoak. Ez naiz euskara irakaslea ni; hortaz, gramatika zuzenketaren batzuk egiten dizkiodan arren, oinarrian, lagun arteko solasaldi informalak izaten dira".

Biek ala biek programaren onurak azpimarratu dituzte eta ekimenean parte hartzeko gonbidapena egin dute. "Astero ordu erdi bat ateratzea ez da zaila, eta euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak, biak, irabazten ateratzen gara".

**Asteburuan, Arrasaten elkartuta** Apirilean hasi ziren pantailaren aurrean astero elkartzen, eta asteburuan elkartu dira lehenengo aurrez aurre; izan ere, azken bi hilabeteotan Lazkaoko Maizpide euskaltegi-barnetegian dagoela kontatu du Argentinakoak: "Etxepare Euskal Institutuzioaren bidez ikastaro trinkoa jasotzen ari gara euskal diasporako hamaika lagun. Ikaragarria eta sinestezina da bizitzen ari garen esperientzia! Turismo handirik egiteko aukerarik ez dugu izan, baina euskara ikastea zen helburua, eta, duda barik, bete da!".

Zure negozioa ezagutzera eman nahi duzu?  
**Zatoz batu-banatural!**

- Banaketa **masiboa**.
- Banaketa **pertsonalizatua**.
- **Kartelak** ipini.
- **Autoz auto** banatzea.

**Batu Banatu:**  
zure publizitate-banaketa, neurrirra!

**b + b**  
batu-banatu

www.batubanatu.eus  
943 08 10 50 / 688 69 00 07  
banaketak@batubanatu.eus